


# Goienkaria

2009ko otsailaren 27a > Egubakoitza > IX. urtea > 366. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Historiaren helburua da gizatalde baten nortasuna berrestea"

Mikel Sorauren  
Historialaria



**G2a**

Delorean taldeak kontzertua egingo du Bergaran > 37

**BERGARA**

Herriko 866 landare espezie batu eta deskribatu egin dituzte > 19

**ESKORIATZA**

Prozedura-akats batengatik berriz bozkatu dute aurrekontua > 28

**KIROLA**

Aitor Lopez Rekarte: "Realak energia positiboa behar du" > 34

**JENDARTEA** > EMAKUMEAK

## Martxoaren 8an kalean korrika

Kirolean emakumeen parte-hartzea indartu guran, Arrasateko Emakume Txokoak *Takarraran* lasterketa deitu du Martxoaren 8rako. Ibarreko emakume guztiak daude gonbidatuta. > 14

**JENDARTEA** > TURISMOA

## Ibarreko ostalariek jardunaldi gastronomikoak egingo dituzte

**MENUA** Bertoko eta garaiko produktuak ezagutzera emateko menu bereziak eskainiko dituzte 16 jatetxek

**TURISMOA** Gastronomiarekin batera ibarreko ondare artistikoa ezagutzera emateko bisitak ere antolatuko dituzte

**ELKARLANA** Jardunaldiok Mankomunitatearekin batera antolatu dituzte. Martxoaren 2tik apirilaren 30era izango dira > 06

**ELKARTASUNA** > SAHARA

## Sahararren bandera udaletxean

Errepublikaren 33. urtemuga ospatzeko jarriko dute ibarreko udaletxeetan > 06

**M-1**

Goienkaria

Huteskondeak 'Asteleheneko Goienkaria'-n

Eusko Legebiltzarrerako emaitzen berri jasoko duzue *Asteleheneko Goienkaria*-n: Debagoieneko datu orokorrak, herri-ka, EAEkoak, analisiak...



ENTSEATZEN Ariznoako gimnastak domekako saioa prestatzeko entrenamendu saioaren aurretik, Labegarietan.

XABIER URTZELAI

## Urteurren jaialdia egingo du Ariznoak domekan Bergarako pilotalekuan

Ariznoa Gimnasia Elkarteak 25. urteurrena ospatzeko gimnasia eta dantzak bateratuko dituen ikuskizuna gertatu du domekarako. Aukeran dantza

konpainia, Samu Crew break taldea, Acro Indar gimnasia akrobatikoko taldea eta Almukena Cid gimnasta olinpiarra gonbidatu dituzte. > 36

**AURKIBIDEA**

Debagoiena > 04-07  
Iritzia > 08  
Elkarrizketa > 09  
Gutunak > 10-11  
Herriak > 13-33  
Kirola > 34-36  
Kultura > 38-39  
Sailekuak > 40  
Gazteak > 42  
Telebista-Irratia > 43  
Zerbitzuak > 44  
Berri-zakua > 45  
Non-zer > 46-47

**SEIN**

**SEIN-ETXEBERRIA**  
Garmendipe 1  
20730 AZPEITIA-GIPUZKOA  
TEL.: 943 15 71 15  
FAXA: 943 81 59 22

**SEIN-MEMESA**  
Notario Etxagibel 3  
20500 ARRASATE-GIPUZKOA  
TEL.: 943 71 24 25  
FAXA: 943 71 22 98

**SEIN-LAUSA**  
Pol. Traña-Padura, 4 pabilioia  
48220 ABADIÑO-BIZKAIA  
TEL.: 94 621 71 40  
FAXA: 94 681 75 45

eragin eta aldatu

bozkatu

www.aralar.net

ezkerreko alternatiba abertzalea aralar



# Sei debagoiendarren iritziak Legebiltzarrerako hauteskunde bezperan

**ESKAERAK** Hurrengo lehendakariari eskatu diote herritarren partaidetza eta bakerako eta konponbiderako pausoak emateko elkarrizketaren bidez

**ALDAKETA** Lehendakari ez abertzalearen aukera ikusten dute batzuek, baina gehienek ustez ez da pasako edo ez luke pasatu behar

**BOTOA** Domekan botoa ematera joango diren arren, batzuei aurkeztea ukatu egiten zaiela ez dute bidezkoztat jo eta horrek eragina izango du emaitzetan

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Hauteskunde kanpainaren ostean, martxoaren 1ean, domekan, botoa emateko aukera egongo da. Hautesontzietara botatuko paperekin Eusko Legebiltzarrerako ordezkariak aukeratuko ditugu; gehienek botoa aukeratua izango dute, seguruenek. Paper adina aukera izango da, eta iritziak ere horren arabera.

Hainbat debagoiendarrengana jo dugu hauteskundearen gaineko iritzia jakin nahian. Gehienek botoa ematera joango direla esan digute eta horrekin batera euren eskaerak ipini dituzte mahaian.

**Esteban Urtzelai**

ABESBATZA ZUZENDARIA

**"Agintean denaren arabera norabide oso ezberdina har dezake gure herriak"**

**1.** Euskal Herriaren eta euskaldunon alde benetako apustua egin dezala. Asko poztuko nintzateke gure herriaren eraikuntzan aurrerapauso sendoak emango balira. Eta esan, esaldi batean esan liteke, baina lana sendo egin beharko da hori lortzeko.

**2.** Lurraldetasuna, euskara, giza eskubideak, bakea... hainbeste gauza... Agintean dagoenaren arabera norabide oso ezberdina

har dezake gure herriak. Beldur pixka bat ere ematen du.

**3.** Ez dut uste pasako denik. Pasatuko balitz, benetan pena handia emango lidake. Ikusi da zer pasatzen den euskal nortasunarekin eta euskarekin berarekin, ez abertzaleak gobernuan jartzean.

**4.** Bai, noski. Gutariko bakoitzak gure etorkizun politikoaren nondik norakoa erabakitzeke aukera bakarra da. Batzuetan badirudi norberaren botoak ez duela ezertarako balio, baina aurrera egin nahi bada, hori da bidea.

**Maite Albes**

INGENIARIA ETA DANTZARIA

**"Jokoan daude nazioaren nortasuna, herritarren hitza eta gogoeta"**

**1.** Etxebizitza bat lortzeko gaur egun dauden arazoei aurre egitea eta konponbideak ematea. Lan arloan, langabezia zenbakiak izoztea (hobetzea litzateke onena, baina krisi markoa agian ez da onena horretarako), eta berdintasuna lortzea, behingoz, emakumeok eta gazteok. Hezkuntza, ikerketa, garapena eta proiektu berriak bultzatzea etorkizuna gaur finka dezagun. Proiektuon barnean (askotan gai-

**1. Zer eskatzen diozu hurrengo lehendakariari?**

**2. Zer dago jokoan domekako hauteskundeetan?**

**3. Lehendakari ez abertzalearen aukera posible da?**

**4. Botoa ematera joango zara?**

netik) ingurumena eta balio sozialak zaintzea, mimatzea eta bultzatzea. Informazioan argia izatea, errealitatea beti isolatzeke eta manipulazioa eta gezurrak, behingoz, alde batera uzteke. Finean, bizitzan oinarritako puntuak zaintzea izan dezan helburu: justizia soziala egitea, ama lurra zaintzea, euskaraz bizi izatea eta gure ohiturak bizi izatea, herritarren partaidetza...

**2.** Hauteskunde guztietan bezala, nazioaren nortasuna, herritarren hitza eta gogoeta daude jokoan... edo egon beharko lukete.

**3.** Bozkatzeko zerrendak *diseinuzkoak* egiten dituzten heinean, *posible* eta *imposible* hitzek konnotazio ezberdinak izan ditzakete.

**4.** Bai, nire eskubideari ez diot ukorrik egingo, beste batzuk arduratzen baitira beste hainbat eskubide kentzen-eta.

**Jose Antonio Altuna**

ENPRESARIA

**"Lotsa handia behar lukete EAJk eta PSOEek batzeko, ez litzateke bidezkoa"**

**1.** Lehenengo, behar den bidetik bakea lortzea. Krisia ere handia da, baina osatzeko bakea aurre-

tik balego, errazagoa izango litzateke. Alderdikeria albo batera uzteko ere eskatuko nioke, hori delako gure beste etsai bat.

**2.** Gauza asko. Atzerapauso handia izan liteke. Pertsona bat ez da boto baten parekoa; arabar batek bi edo hiru bizkaitarrek beste balio du, Parlamentuak ez du islatzen benetan EAE dena. Horrekin eta batzuei botoa ukatuta, ez da argazki zuzena. Aldaketa egon liteke, baina iruzurrarekin.

**3.** Lehendakari aldaketa zaila izango da. Lotsa handia eduki beharko lukete EAJk eta PSOEek batzeko, ez litzateke bidezkoa. Batzuek baietz diote, baina ez da nire aukera. Zentzu horretan. Ibarretxerekin fidatzen naiz, nahiz eta nire botoa ez eduki.

**4.** Bai. Beste batzuk ezingo dira joan, eta hori ez zait batere ondo iruditzen, ez dira hauteskunde zuzenak; niretzat, balio gabeak.

**Reyes Azkoitia**

PILOTARI OHIA

**"Gustatuko litzaidake agintariak bertakoak izatea elkarlanean"**

**1.** Kanpora begira jarri gabe, barrura begiratu eta konpontzen



**UNAI ZIARRETA**  
**INDEPENDENTEA**  
**LEHENDAKARI HAUTAGAIA**



**EMANBOTOA**






Esteban Urtzela.

GOIENKARIA



Maite Albes.

GOIENKARIA



Jose Antonio Altuna.

GOIENKARIA

ko "elkarrekin aurrera egin nahi" hura ilusio galdu bat ote den ala oraindik piztu daitekeen.

**3.** Bai. Inoiz baino aukera handiagoa ikusten dut horretarako. Eta komeni ere, zalantza daukat ez ote den hala izatea komeni ... Zenbaitek hausnarketa egin dezaten, egin dezagun, akaso komeniko litzateke...

**4.** Bai, joango naiz. Ez dut uste inoiz botorik eman gabe geratu naizenik. Batera edo bestera, nire iritzia beti eman dut eta hala egin behar dudala sentitzen dut, gainera. Botoa ematearena eskubi-dea da, baina nik betebeharrak moduan ere ikusten dut. Gizarte honen partaide naizenez, parte hartzea ezinbesteko ikusten dut.

### Pello Garitano

ERRETIRATUA

## "Alde bati botoa ukatzea ezker abertzalearendako kalte handia da"

**1.** Krisiari buruz asko egiten da berba, eta badago, baina horrek besteko garrantzia du elkarriketak. Eskatuko nioke denek bat egin eta hitz egiteko, bakea lortzeko ezinbestekoa baita.

**2.** Hauteskundeetan gauza asko agindu arren, gero, esandakoak albora uzten dituzte erraz. Bakearen premia larria da eta jokoan dago aurkezten diren alderdiek elkarriketaren bidez bakea lortzeko bidea zabaltzea. Alderdi guztiek eman behar dute pausoa.

**3.** Bai, medioen arabera eserleku gutxiaren alde egongo da. Hortaz, PPrekin hitzarmena eginez gero, PSOEko lehendakaria izan daiteke. Kasu horretan ez dut uste hoberako izango denik, baina ikusteko dago. Besteek eman ez dituzten pausok ea hurrengoek eman dituzten. Alde handi bati botoa ukatzea ezker abertzalearendako kalte handia da.

**4.** Asmoa badaukat. Pena da aukera ez zaiela denei eman. Hori akats handia da euskal abertzaleendako eta lehendakari zein irten erabakitzeke ere izango du eragina. Ibarretxe hor egongo da alde handirik gabe, baina talde indartsu bati aukerarik ez emateak kalte handia egin dezake.



Reyes Azkoitia.

GOIENKARIA



Miren Urkiola.

GOIENKARIA



Pello Garitano.

GOIENKARIA

saiatzea. Izan ere, beti besteei eskatzen dihardugu, baina gure artean borrokan bagabiltza, zer eskatu behar diegu besteei? Hortaz, eskatuko nuke Euskal Herriko alderdiek konponbidera iristeko aparteko saiakera egitea.

**2.** Gu izan edo ez izan. Gure artean konpondu ezean aukera beti egongo da kanpokoak sartzeko eta guk egin ez duguna besteek egingo digutela pentsatzea zentzugabea iruditzen zait.

**3.** Gustatuko litzaidakeena da agintariak bertakoak izatea eta elkarlanean jardutea; horrela balitz, uste dut kanpokoek, ez abertzaleek, ez luketela aukerarik izan behar.

**4.** Ez dakit. Egia esan, oraindik ez dut erabaki, baina botoa ematera joaten banaiz ere ez dut uste alderdi politikorik dagoenik nire botoa irabazi duenik. Irabazi dutena da alderdi guztiek boto baliogabea.

### Miren Urkiola

KAZETARIA

## "Erreferendumez eta galdeketez ohikoagoak izan beharko lukete"

**1.** Hark ere gogoan har dezala herritar guztiok garena herri honen parte eta erabaki garrantzitsuak hartzerakoan ere, zuzenean parte hartu nahi dugula.

Lau urtean behin ematen den boto horren ordezkaritza balioa gehiegizkoa iruditzen zait hainbat gairen garrantzia kontuan hartuta. Erreferendumez eta galdeketez ohikoagoak izan beharko lukete.

**2.** Legebiltzarra osatuko dutenen printzipio ideologikoak. Lizarragarazi garaian abertzaleen artean ikusi genuen hurbiltze behar eta gogoak jarraitzen ote duen edo beste lehentasun batzuk nagusitzen ote diren. Orain hamar urte-



**IparProject**

www.iparproject.com

Etxebizitzaren ekipamendu integrala Merkatuen lehen markak  
Mota askotako estiloak Gremioen koordinazioa





**M-1****EUSKO  
LEGE BILTZARRERAKO  
HAUTESKUNDEAK  
2009**

# Hauteskundeen jarraipena Debagoieneran

- > Emaizak
- > Eguneko gora beherak
- > Ordezkaritza politikoaren iritziak
- > Analisi eta balorazioak
- > Debagoienerako datu guztiak

**Erosi astelehenean egunkari saltokietan edo egin zaituz harpidedun 943 25 05 05**

ASTELEHENEKO  
**Goienkaria**

- > Saio berezia domekan, zuzenean, 19:45etik aurrera
- > Emaizak
- > Eguneko gora beherak
- > Ordezkaritza politikoaren iritziak
- > Analisi eta balorazioak
- > Debagoienerako datu guztiak

**Goitz Aranek eta Julen Iriondok aurkeztua  
Elena Laka eta Mikel Lezamiz iritzi emaileekin**

**Goitb**  
Goiena Telebista

- > Domekan, Debagoienerako datuak jaso ahala, sarean
- > Intzidentziak, herriz herri
- > Uneoro berritzen
- > Iritziak emateko aukera

**www.goiena.net**

**Goiena.net**

- > GOITBko domekako hauteskundearen gaineko saio berezia irrati bidez zuzenean jarraitzeko aukera
- > Astelehen goizean, saio berezia
- > Analsiak eta balorazioak
- > Iritziak

**FM 107.7**

**ARRASATE  
IRRATIA**

**Goiena**



HAUTESKUNDEAK 09 > LEGEBILTZARRA AUKERATZEKO

# Domekan 51.429 lagunek bozkatu ahalko dute

Debagoienean 85 mahai jarriko dituzte 22 hautesleketan eta 09:00etan zabalduko dituzte

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Guztia prest dago domekako hauteskundeetarako. Legebiltzarreko hauteskundeak egingo dituzte.

Ezustekorik ez egoteko, guztia gertu dute Debagoieneko eta Aramaio hautesleketan. Gura duten herritarrek etxetik eroan dezakete botoa. Nahiago dutenek hautesleketan hartu ahalko dute. Debagoienean, 51.429 herritarrek dugu botoa emateko eskubidea, 22 hautesleketan egongo diren 85 mahaietan.

Hauteslekuak 09:00etan zabalduko dituzte, eta herritarrok eten barik eman ahalko dugu botoa 20:00ak bitartean. Orduan hasiko dira kontaketa egiten. Emaitzak esango dute nork hartuko duen lehendakari kargua datozen lau urteetarako.

## IBILGAILU EGOKITUA

Euren kabuz botoa ematera joan ezin dutenek Gurutze Gorriaren laguntza izango dute. Hain justu ere, egokitutako ibilgailua erabiliko dute. Ibilgailu horrekin botoa eman behar duen herritarra hauteslekuraino eroango dute Gurutze Gorrikoek.

Domekan ibilgailu egokitu erabili gura dutenek bihar baino lehen eman behar diete izena eta helbidea Gurutze Gorrikoek, zerbitzua ondo kudeatzeko. Interesatuak 943 76 55 76 telefonora dei dezakete.

## Erroldak herririk herri

HERRIA	ERROLDA	MAHAIK
Arrasate	18.162	33
Bergara	11.892	19
Oñati	8.768	16
Aretxabaleta	5.326	7
Eskoriatza	3.270	4
Antzuola	1.734	2
Aramaio	1.224	2
Elgeta	846	1
Leintz Gatzaga	207	1
<b>Guztira</b>	<b>51.429</b>	<b>85</b>

ITURRIA: DEBAGOIENEN UDALAK

## HAUTESKUNDEAK GOIENAKO HEDABIDEETAN

> **GOITB.** Domekan, 19:45etik aurrera saio berezia egingo dute GOITBn, zuzenean. Eguneko gorabeherak, ordezkaritza politikoen iritziaz, analisia eta balorazioak ezagutzeko aukera izango dugu. Gainera, Debagoieneko emaitzak zuzenean ezagutzeko aukera izango dugu. Goiatz Aranak eta Julen Iriondok aurkeztuko dute saioa.

> **ARRASATE IRRATIA.** GOITBk domekan egingo duen saioa irrati bidez entzuteko aukera izango dugu. Astelehen goizean analisia, iritziaz eta balorazioak egingo dituzte irratiaren.

> **ASTELEHENEN GOIENKARIA.** Asteleheneko Goienkarian ordezkaritza politikoen iritziaz, analisia eta balorazioak jasoko dituzte. Ibarreko herri guztietako emaitzak eta hautesleketan egondako gorabeherak irakur ahalko ditugu.

> **GOIENA.NET.** Domekan, egun osoan uneoroko informazioa jarriko dute *goiena.net* atarian. Gainera, emaitzak jaso ahala sarean jarriko dituzte. Era berean, iritziaz emateko aukera izango dugu Twitter eta Facebook bidez. Bideoak ere jarriko dituzte sarean.



MIREIA BIKUÑA

## "Astelehena ez da damutzeko eguna izan behar", dio Joseba Egibarrek

EAJko Gipuzkoako zerrendaburu Joseba Egibarrek eta Debagoieneko EAJko zinegotziak eta alkateak agerraldia egin zuten Oñatin eguaztenean. Egibarrek EAJren estrategia azaldu zuen: "PPK eta PSE-EEK gehiengo lor ez dezaten ahaleginu behar dugu; bestela, Lopez izango da lehendakari. Botoa ondo aukeratu behar dugu. Astelehena ez da izan behar damutzeko eguna". Gaineratu zuen Ibarretxek baduela krisi egoeratik irteteko modua. "Ziur gaude kritik irtengo garela", esan zuen.



GOIENKARIA

## Langabeziari aurre egiteko gai dela dio Alderdi Popularrak

PPK ekitaldia egin zuen eguaztenean Arrasaten. Agerraldian egon ziren, besteak beste, Gipuzkoako zerrendaburu Arantza Quiroga eta Arrasateko zinegotzi Itziar Lamarain. Arantza Quirogak esan zuen langabeziari aurre egiteko gai direla. Gainera, herritarren konfiantza eskatu zuten, "gai garelako halako egoeretatik irteteko".

ARALAR > ELGETAN

## Aralar pertsona guztien giza eskubideen alde agertu da

M.B. > ELGETA

Aralarren hautagai eta ordezkaritza Elgetan egon ziren martitzenean. Intxortako Atearen aurrean, pertsona guztien giza eskubideen defentsaren alde egin zuten. Aintzane Ezenarrok hau esan zuen: "Beharrezkoa da orainari eta etorkizunari begira indarkeriaren eta sufrimenduaren

zurrunbiloa etetea". Gainera, azpimarratu zuten biktima batzuen samina besteen gainetik jartzeko "baketik urruntzen" gaituela.

**BERGARAN EGON ZIREN**

Bestalde, Aralarko kideak Bergarako plazan egon ziren eguaztenean, herritarren artean informazioa banatzen.



Aralarko kideak Elgetan. GOIENKARIA

## Euskal Eskola Publikoa aldarrikatu zuen Ezker Batuak

Ezker Batuak Bergaran egindako agerraldian, Euskal Eskola Publikoaren aldeko konpromisoa hartu zuen. Hezkuntza sistemak bi hizkuntza ezagutzeko bermatu behar duela adierazi zuten. Ekitaldian egon ziren domekako hauteskundeetarako ibarreko hautagaiak.



MIREIA BIKUÑA



EIBARKO HIZKUNTZA  
ESKOLA OFIZIALA  
OFIZIALA  
Jardineta 3  
20600 Eibar

**EIBARKO HIZKUNTZA  
ESKOLA OFIZIALA  
2008/2009  
MATRIKULA LIBREA**  
Otsailaren 26tik martxoaren 18ra

**HIZKUNTZAK:  
ALEMANA, EUSKARA,  
FRANTSESA ETA INGELESA**

Matrikula egin nahi dutenek **Internetez bakarrik** egin ahal izango dute [www.eoieuskadi.net](http://www.eoieuskadi.net) webgunean. **Argibide gehiago:** [www.eoieibartheo.net](http://www.eoieibartheo.net) webgunean edo 943 20 06 18 telefonoan.





Mankomunitateko ordezkari Ana Heriz eta Oxel Erostarbe eta jatetxeetako ordezkari Gabino Iartza, Koldo Lasa eta Aitor Telleria izan ziren aurkezpenean.

A.E.

TURISMOA &gt; JARDUNALDI GASTRONOMIKOAK

## Zapoz betetako proposamena Debagoiena ezagutzera emateko

Gastronomia jardunaldiak aurkeztu dituzte: martxoaren 2tik apirilaren 30era izango dira

Menu bereziak eskainiko dituzte; eskualdeko odoloste, gazta eta pellak izango dituzte guztiek

ARANTZAZU EZKIBEL &gt; ARRASATE

Debagoieneko Mankomunitateak ibarreko ostalariekin elkarlanean Debagoieneko jardunaldi gastronomikoak antolatu ditu. Hain zuzen, martxoaren 2an hasiko dira jardunaldiak, eta apirilaren 30era arte iraungo dute.

Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Eskoriatza, Leintz Gatzaga eta Oñatiko jatetxeak dira jardunaldietan parte hartuko dutenak. Mankomunitateko Turismo Oxel Erostarbek eguazteneko aurkezpenean azaldu zuen dinamizazioan ezinbestekoa dela turismo arloko eragileen arteko koordinazioa, publikoa nahiz pribatua.

BERTAKO PRODUKTUAK

Esan behar da ez direla bakarrik jardunaldi gastronomikoak izango; hau da, produktuen jatorria,

DATUA

16

JATETXE

Baster-Alde, Aldapa, Erreka, Hilarion, Santa Ana, Lasa, Tartufo, Zabala, Zumelaga, Hotel Mendigoia, Gure Ametsa, Soran, Etxe-Aundi, Goiko Benta, Soraluze eta Zelai Zabal dira jatetxeak.

elaborazioa eta prozesua ezagutzeko aukera ere eskainiko da jardunaldiotan. "Bertako produktuak eta garaiko produktuak ezagutzera ematea izango da helburua", azaldu zuen Erostarbek. Hori horrela, jatetxeek eskainiko dituzten menu guztietan eskualdeko odoloste, gazta eta pellak dastatzeko aukera egongo da. "Jatetxe bakoitzak zehaztuko du eskainiko duen menua; guztiek, baina, izango dute menuan

ESANAK

"Jardunaldietan, menu guztietan eskualdeko odoloste, gazte eta pellak eskainiko dituzte"

Oxel Erostarbe &gt; Turismo burua

bi lehen plater, bi bigarren plater, denak arrazio erdikoak, postrea, kafea eta txakolina, sagardoa eta Errioxako ardo ondua", azpimarratu zuen Erostarbek.

JATETXEK ZEHAZTUTAKO EGUNAK

Lasa jatetxeko Koldo Lasa, Baster-Aldeko Aitor Telleria eta Hilarion jatetxeko Gabino Yartza izan ziren aurkezpen ekitaldian. Koldo Lasak azaldu zuen jatetxe bakoitzak erabakiko duela asteko zein egunetan eskainiko duen menua. Menuak 28 eta 40 euro artean jarri dituzte. Bestalde, erreserba egitea gomendatu dute.

Jardunaldi horien helburua Debagoieneko ondare artistiko, kultural eta naturala ezagutzera ematea da. Izan ere, gastronomiaz gainera, bestelako museo eta enpresak bisitatzeko aukera egongo da datozen egunetan. Informazio gehiago [www.turismodebagoiena.com](http://www.turismodebagoiena.com) edo 943 79 64 63 telefonoan eskura daiteke.

KONPOSTA &gt; ESPERIENTZIA AITZINDARIA

## Bigarren fasearekin hasiko dira Aretxabaletan

Aretxabaletan egiten dabilzan esperientzia aitzindariaren lehen faseko emaitzak onak dira

A.E. &gt; ARETXABALETA

Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketa Planaren helburuak betetzeko, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak, mankomunitateekin, udalekin eta Gipuz-

koako Foru Aldundiarekin elkarlanean, hiri hondakinen gai organiko aparta jasotzen hasteko esperientzia aitzindaria jarri zuen martxan; tartean, Aretxabaletan dabilza proiektua egiten.

Proba-esperientzia bi fasetan banatzen da: lehenengo fasean, landare jatorriko gai organikoak jaso dituzte. Aretxabaletan lehenengo fasea 2008ko irailean jarri zuten martxan. Fase horretan 333 familiak hartu dute parte; eta guztira, 2008ko irail erdialdetik 2009ko urtarrilera bitartean 20.910 kilo materia organiko jaso dituzte.

KALITATE ONA

Proba-esperientzia horretatik ahalik eta datu gehien jasotzeko asmoz, Aretxabaletan bildu eta Lapatzeko konposta plantara bidalitako *hondakinen* karakterizazioa egin da. Karakterizazio horien arabera esan daiteke jasotakoaren kalitatea oso ona izan dela.

BIGARREN FASEA

Orain, bigarren fasea jarriko da martxan. Proba-esperientzia martxan jarri den herrietan egin dituzte prestakuntza saioak; hortaz, aurrerantzean landare eta animalia jatorriko gai organikoak jasoko dituzte Aretxabaletan.

DATUA

346

FAMILIA

Bigarren fase honetan, aurreko faseko 333 familiei beste 13 familia gehituko zaizkie; hortaz, guztira 346 familiak parte hartuko dute proiektuan.

&gt; HIZKUNTZAK

### Eibarko Hizkuntza Eskolak matrikulazio epea zabaldu du

Eibarko Hizkuntza Eskola Ofizialak ireki du matrikulazioa egiteko epea. Otsailaren 26tik martxoaren 18ra bitartean egin ahal izango da matrikula, Internet bidez. Libretik matrikulatzen den ikasleak azterketa egin eta ziurtagiri ofiziala jasotzeko aukera izango du. Alemana, euskara, frantsesa eta ingelese dira aukeran dauden hizkuntzak, eta azterketak ekainean eta irailean izango dira. Azterketa horiek Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren arabera mailakaturik daude: A2, B1, B2 eta C1, hain zuzen. Gura duenak informazio gehiago izango du [www.eoieibarheo.net](http://www.eoieibarheo.net) webgunean.

&gt; ELKARTASUNA

### Sahararen aldeko banderak jarriko dituzte udaletxeetan

Gaur, otsailaren 27a, Saharar Errepublikar Arabiar Demokratikoa sortu zela 33 urte bete dira. Urteurren hori ospatzeko, Nubi eta Iesbaa elkarteek hainbat ekintza antolatu dituzte. Herri sahararrentzat eta haren lagunak direnentzat egun berezia da gaurkoa. Hori horrela, sahararrekiko atxikipena??? adierazteko, egun garrantzitsua ospatzeko eta herri sahararrentzat askatasuna aldarrikatzeko, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate eta Oñatiko udaletxeetan herri sahararrentzat bandera jarriko dute zintzilik egun osoan. Eta Bergarako Bubisher elkarteek baiezatu digute eurek ere jarriko dutela Saharako bandera Bergaran.

&gt; IKASTOLAK

### Udarako aisialdi eskaintza kaleratu du Ikastolen Elkartek

Ikastolen Elkartek 2009ko aisialdirako eskaintza kaleratu du. Dagoeneko martxan dago matrikulazioa. Hainbat proiektu antolatu dituzte udari begira: besteak beste, eskal udalekuak eta ingeles udalekuak. Horietan lan egiteko begiraleak behar dituzte. Izena emateko beharrezko baldintzak izango dira: euskalduna izatea, aisialdian esperientzia izatea eta ingelesez jakitea. Bestalde, kontuan hartuko da aisialdiko begirale edo zuzendari titulua izatea; sorosle, elikagaien erabiltzaile eta abarren titulua izatea; eta, formazioa eta gaitasun pertsonalak, hain justu. Izena emateko azken eguna apirilaren 5a da.



ZAHARREN EGOITZAK > LAN HITZARMENA

# Zaharren egoitzetan azpikontratutako langileekin akordio barik

Egoitzetan azpikontratutako langileek aurtengo lan hitzarmena patronalarekin negoziatzen dihardute urria ezkeror



Irudian, Bergarako Mizpirualde egoitza.

GOIENKARIA

EDU MENDIBIL > BERGARA

Egoitzetan azpikontratutako langileek aurtengo lan hitzarmena negoziatzen jarraitzen dute, eta, negoziazioak blokeatuta daudenez, hiru orduko geldialdia deituta zuen ELA sindikatuak gaur goizetarako. Bergarako eta Eskoriatzako egoitzetan deialdiarekin bat egitekoak ziren.

Urria ezkeror ari dira negoziazioetan ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuak batetik eta Adegia eta Lares bestetik. Azken aldiz martitzenean elkartu ziren patronaleko eta sindikatuak ordezkariek, baina ez zuten akordiorik lortu. ELAko iturrien arabera, "adar jotze galanta" izan da patronalaren partetik jaso duten azken eskaintza: Estatu mailako PKIren igoera (%1,4) eta erretiro aurreratua 64 urterekin eskatu ahal izatea. Horren aurrean, hau da sindikatuak eskatzen dutena: subrogazioa; langileen baldintzak Diputazioko hitzarmenarekin parekatzea; bajak %100ean ordaintzea; domeketan eta jaieguneetan plusak handitzea; urteko egutegia (hilabetez hilabete jasotzen dute orain) eta lan ordu murrizketa. Esan bezala, urritik hona ez dira konpon-

bide batera iritsi sindikatuak eta patronala.

#### GELDIALDIA GAUR

Eskoriatzako eta Bergarako zaharren egoitzetan geldialdia egitekoak ziren, patronalaren eskaintzak ez dielako inondik inora langileen aldarrikapenei erantzuten.

Debagoienean ezberdina da egoitza bakoitzeko lantalde osaketa. Bergaran, esaterako, %75 azpikontratuakoa da Samsic Iberia enpresaren bitartez eta Eskoriatzan 12 lagunak dihardute lanean Eclat enpresarekin. Beste hiru langile *etxeok* dira eta sukaldariak, Auzolagunekoak.

## etxeko leihotik



Monika Belastegi > 'mbelastegi@goiena.com'

## Nola edo hala aurrera egiten ari gara

Egoera ekonomikoa ez da batere ona eta ez dirudi hobera egingo duenik epe motzean, behintzat. Gurean ere oso nabaria da: geroago eta lantegi gehiago dira lan faltagatik hainbat egunez itxi egin behar izan dutenak eta baita langileak kanporatu behar izan dituztenak ere. Baina azken urteetan, oro har, egoera bestelakoa izan da. Lana ez da falta izan gureko lantegietan eta langabezia tasa oso baxua izan da; EAEko baxuenetakoa.

Urtebetean egoera zeharo aldatu da. Inem-eko bulegoak lan falta igartzen hasi dira. Familia askotan ERE hitza ohikoa egin da. Egoera larria den arren, nola edo hala aurrera egiten ari gara. Baina hala jarraitzen badu, ilun ikusten dut Debagoieneko familien etorkizuna.

Azken 15 urteetan lantegi ia gehienek ehuneko ehunetan egin dute lan. Horregatik, gezurra dirudi hainbeste lan egin eta hainbeste produzitu ondoren, orain horrela egotea. Non dago azken urteetan sortu den aberastasuna? Nork kontrolatzen du langile eta enpresariak sortutako etekinaren erabilera? Urrearen truke saldu diren etxebizitzaren dirutza ikaragarria non dago? Ez al da ordua legedia berri bat ezartzeko, ekonomia kontrolatzen duten benetako botereei nahi dutena egiten ez lagatzeko? Hori egin ezean berdin jarraituko dugu: irabaziak daudenean gutxi batzuen esku geratuko dira, baina galerei guztion artean egin beharko diegu aurre.

**"Irabaziak gutxi batzuen artean banatzen dira, baina galerak guztien artean"**

#### > Basoaren Astea

Zuhaitz Eguna izaten hasi zena Basoaren Aste bilakatu da urte gutxian Bergaran. Hor aurkeztuko dute herriko landare-tzaren gainean egindako azterketa sakona. Lagun batek dioen moduan: "Maitatzeko ezagutu egin behar da, lehenengo".

#### > Turismoa

Jardunaldi gastronomikoak antolatu dituzte Mankomunitateak eta ibarreko 16 jatetxek elkarlanean. Janariaren bitartez, Debagoieneko ondare artistiko, kultura eta naturala eman nahi dute ezagutzera. Ez da ideia txarra.



## Hauteskundeetako saio berezia GOITBn

Domekan, zuzenean, 19:45etatik aurrera

- > Emaizak
- > Eguneko gora beherak
- > Ordezkarik politikoaren iritziak
- > Analisi eta balorazioak
- > Debagoieneko datu guztiak

Goitz Aranek eta Julen Iriondok aurkeztua  
Elena Laka eta Mikel Lezamiz iritzi emailekin







zabalik

Rufina Olasagasti

## Krisiaren aurrean

Pixkana guztioi heltzen ari zaigu krisiaren eragina, lehenago edo geroago. Kapitalismoaren irabazi goseak bultzatu ditu egungo krisia eta baita gutako bakoitzaren kontsumorako joera ere: etxe handia edukitzeak, pertsonako auto bat izateak, urrutirako bidaiak, modan janzteak... zoriontsu egingo gaituen ustea. Hori bai: garbi gelditu da berriz ere gezurra dela bakoitzak bere ona bilatuz gero guztiontzat onena lortzen dela, hala ekonomian nola eguneroko bizitzan.

Krisi garaia gauzak hobeto aztertzeko garaia dela pentsa daiteke, epe motzeko irabaziak ez baizik garapen iraunkorra bideratzeko; ez dirudi, ordea, bide horretatik doanik, AHT eta beste azpiegitura handi batzuk planteatzen baitira: gure gizartearen orainean eta gerora dituzten eragin negatiboak kontuan hartu gabe eta gure bailararen kasuan inguruko herriekin komunikatzeko ditugun arazoei erantzun gabe.

Obra hauek guztiak egiteko, zergatik ez zaie herritarrei galdeetzen? Aldizkako galdeketa sistema da beste herrialde batzuetan erabiltzen dutena. Adibidez Suitzako Ginebran izan nintzenez ikusi nuen aldi bakoitzean 5-6 gaiei buruzko kontsulta egiten zitelako herritarrei: alokairu legea aldatzea, kultur ekipamendu bat eraikitzea, lakuan trafikorako zubi bat edo ur azpitik tunela egitea,...

Irabazi-gosez mundu guztiko ondasunak esplotatzen dituzten kapitalismoak, mugagabeak balira bezala, eta etorkizunean gizarteak behar dituen baliabide naturalak agortzen ditu. Hondamendira garamatzen bide hau zuzentzea dagokigu guri eta agintariei; honetaz gain, kapitalismoak jartzen dizkigun tentazioen aurrean, ez al genuke kontuan hartu beharko "Hoba da gitxi izan eta kito, ez asko izan eta zorrez ito", aurrekoan beste arrasatear batek esaten zidan bezala?

usteak uste

Mireia Bikuña


## Aratusteetatik garizumara

Dagoeneko garizuman gaude. Badakizue, Aratusteak bukatzen direnetik Aste Santura arte doan 40 eguneko tartea. Ilusioa, moztarokak eta ametsak alde batera utzi eta gurutz-bideari ekiteko ordua da berriro ere. Hauteskundeak ditugu etzi. Alderdi guztiek hartu dute krisiari aurre egiteko konpromisoa. Domekako emaitzen ondoren ikusiko dugu ze konpromiso diren onak. Orduan hasiko da alderdi askorendako (Ibarretxerendako edo Lopezendako) benetako gurutz-bidea.

**"Irabazi-gosez munduko ondasunak esplotatzen dituzten kapitalismoak"**

marrazkiz

Unai Busturia



blog-top

## De-formatua

Edorta Arana

www.goiena.net/blogak/hamaika

Hauteskundearen karira, EITBn antolatu dituzten saioetariko bat ikusi nuen atzo, euskarazko kanalean.

Ez dut errepikatuko, baina aitortu beharra daukat (aho txikiaz) hasieratik amaierara ikusi nuela.

Sei hautagai Jaime Ota mendiren esanetara. Bakoitza berera. Betikora. Aurkezleak Roten Meyer paperean, formatu hain estuaren gidaritza eramanez.

Ordu eta piku aritu ziren, minutu bateko hizketaldiak eginez. "Formatuaren diktaturapean" baten batek idatzi zuen bezala.

Hain laburrak izanik politiko bakoitzari emandako tartea, interesgarria suertatzen zen nola kudeatzen zuten bakoitzak urritasuna eta nola urduritzen zen errejentak ala aurkezleak denbora agortua zutela esatean. Aurpegiak oso adierazgarriak ziren.

Esandakoa, formatuak agindu zuen atzokoan.

Mezuak, hainbat alderdien arteko desberdintasunak (balizkoak) eta hizketarako gaitasunak ez ziren beharrezkoak. Denbora ondo menperatzean zegoen gakoa.

Teledendetan bezala!

## Kamioi gutxiago errepidean

Joxe Arantzabal

www.goiena.net/blogak/faroa

Gabonak ezkerre bai, goizetan fakultatera bidean noanean, askoz ere kamioi gutxiago aurkitzen ditut bidean, batez ere Kanpanzar mendatean gora.

Kostatu egin zitzaizkidan konturatzea, baina entzun nionean kamioi zale bati esaten eurretari asko lan barik daudela krisiak jota, orduan ohartu nintzen zergatik joaten naizen orain lasaia-goi lanera bidean.

Sentitzen dut lan barik dauden kamioi zaleengatik, baina eskertzen dut irabazita-kon patxada.

koplak

Julen Iriondo

## Aturritik Ebrora, Euskal Herri euskalduna

Segitu behar lanean  
Eta denbora luzean  
Euskarak jarraitzen duelako  
Hizkuntza ahulen artean.

Proposamenak kanpainan  
Entzun ta jarri naiz dudana  
Erremedioak gaitza baino  
Okerragoak ez diran.

Euskara denon ondare  
Museorako nahi dute  
Postuak sortuko dituztela  
Hizkuntza eskakizun gabe.

Euskararik gabe pobre  
Eskolan erderan alde  
etorkizun berdina nahi dute  
Seme-alabentzat ere.

Egiten digute burla  
Ez nuen uste sekula  
Entzuterikan euskarak euren  
Erdara zapaltzen dula.

Helduko al da eguna  
Sarri amestu duguna  
Aturrin hasi ta Ebroraino  
Euskal Herri euskalduna!

## Goienkaria

Argiraratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarte • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE  
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Monika Belastegi Saitetako arduradunak Edu Mendibil (Herriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) Oinarrizko diseinua Goia Arana Maketazioa Imanol Soriano, Kepa Oñel Arrieta Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Itxaso Berezibar, Aintzane Muruamendiarrak Testuen zuzenketa Sergio Azkarate Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

### EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12  
Posta-e: goienkaria@goiena.com

### ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00  
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09  
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 19.400 ale • Difusioa: 19.056 ale.



OID erakundeak  
ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko  
JaurlaritzaGipuzkoako  
Foru AldundiaArrasateko  
UdalaBergarako  
UdalaOñatiko  
UdalaAretxabaletako  
UdalaEskoriatzako  
UdalaAntzuolako  
UdalaAramaioko  
UdalaElgetako  
UdalaLeintz Gatzagako  
Udala

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria**



Nabarralde elkarteak erakusketak eta hitzaldi sorta antolatu du egunotan Bergaran, 'Euskaldu-

nak eta Nafarroa' izenarekin. Eguaztenean hasi ziren hitzaldiekin: Angel Rekalde izan zen

Bergaran. Datorren astean, martxoaren 4an, Mikel Sorauren egingo du hitzaldia, 19:00etan.

'Historia de Navarra; el Estado vasco' izango da Sorauren egingo duen hitzaldiaren gaia.

Mikel Sorauren > Historialaria

# "Estatu bat sortu zuen lur-eremua nazio bat izan zen, Euskal Nazioa"

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Mikel Sorauren (Iruñea, 1946) institutuko historia irakaslea izan da, eta, gaur egun erretiroa hartuta duen arren, buru-belarri jarraitzen du historia kontuekin. Nabarralde elkarteak kidea da eta 'Nafarroa, Euskal Estatu' liburua argitaratu zuen 1999. urtean, Pamielarekin.

**Laburbilduz, azal egiguzu zeren gainean berba egingo duzun datorren eguaztenean.**

Euskal Herriaren historia-aren ikuspegia ematea izango da helburua. Aurrehistoria eta lehenengo garai historikoetatik hasita, Iruñeko edo Nafarroako Erreina izenaz ezagutzen dena sortu arteko historia azalduko ditut.

Azpimarratuko dut nola estatu bat sortzea lortu zuen lur-eremua nazio bat izan zela, Euskal Nazioa. Hala, estatuak babestu egiten du identitate nazional hori. Gainera, estatu horren ezaugarri azpimarragarrienak azalduko ditut. Era berean, estatu horrek zituen ezaugarriak Erdi Aroan Europan sortu ziren gainerako estatuaren ezaugarriekin alderatuko ditut.

Esan behar da Euskal Estatu bertako biztanleriaren inizatibaz sortu zela; gainerako estatu gehienak, ostera, herri germaniarren inizatibaz sortu ziren.

Azpimarratuko dut, gainera, estatu hori kanpoko indarren aurka borrokan ibili izan dela hasieratik. Ondorioz, estatu izatera galduko du inguruan dituen estatuaren eraso hedatzaileak dela; batez ere, Frantzia eta Espainia dira estatu horiek.

**Gaur egungo Nafarroak ez dauka zerikusirik ordukoarekin.**

Ez, gaur egungo Nafarroa orduko Nafarroaren zati bat besterik ez da. Gainera, azpimarratu gura dut azkeneko lurralde independentea ez zela izan Pirinio hegoaldeko Nafarroa, baizik eta Pirinio iparraldeko Nafarroa. 1620. urtera arte estatu independente bezala onartua izan zen. Gainera, azalduko dut Euskal Estatuaren oinarri juridiko eta soziopolitikoak mantendu egin zirela Aro Garaikidera arte.

Hitzaldia amaitzeko, herriaren erresistentzia eta estatua berreskuratzeko egin diren ahaleginak azalduko ditut, gutxi gorabehera 1936. urtera arte.

**Esan daiteke Nafarroa Euskal Estatu izan zela defendatzen duzula?**



Mikel Sorauren historia irakaslea izan da orain dela gutxi arte; orain, Nabarraldeko kide da.

NABARRALDE

Nafarroa esaten dudanean ez dut esan gura gaur egun Nafarroa izenaz ezagutzen dugun eremua. Nire ustez, beste gauza bat da. Esaten dudana da euskal lurraldea Nafarroako Estatu zela. Oso ezberdina da. Nire ustez, gaur egun Nafarroa dena lehen zen estatuaren zati bat besterik ez da.

Euskal Estatu bateratua existitzen zen garaian sortutako ezaugarriak, besteak beste foruak, geratu egingo dira aurrerantzean. Hau da, Espainiako eta Frantziako estatuak menpean hartzen dituzten eremuetan ez dituzte ezaugarri horiek kenduko.

**Noiz egon zen Nafarroako erreina bere puntu gorenean?**

Esan daiteke Erdi Aroko azkeneko garaia izan zela puntu gorena, Antxo Handia eta Gimeno dinastiarekin. Garai hartan, Gaztelari aurre egiteko besteko erreina zen; eta baita orduan sortu barik zegoen Frantziari ere. Iru-

NAFARROA

**"Gaur egungo Nafarroa lehen izan zen Estatuaren zati bat besterik ez da"**

FOROAK

**"Espainiarren eta frantsesen aurkakoak zirelako ezabatu gura zituzten foroak"**

EUSKAL HERRIA / EUSKADI

**"Kontzientzia historikoaren desegituraketa dago izenaren kontuan"**

di indartsua izan zuen erreinuak XI. mende erdialdera arte; gero, beherakada etorri zen.

Esan daiteke XI. mendeko krisi haren ondorioz galdu egin zela erreina, baina berriro berreskuratu zen XII. mendean. Baina orduko estatuak oso indartsuak ziren eta Nafarroak ez zuen garai bateko indarririk. Gainera, estatu haiek Nafarroa hartu gura zuten.

Hala ere, azpimarratu behar da, beherakada jasan arren, Aro Garaikidean instituzio modelokotzat jo zutela Nafarroako Erreina, tartean, Cadizko Gorteek. Baina orduko, batez ere oinarri militar ahula zuen erreinuak eta zaila izan zen independente mantentzea. Oinarri juridiko berak jartzearen ondorioz iritsi ziren Karlistaldiak.

**Esan daiteke karlisten porrotaren ondorioz desagertu zela Euskal Estatu?**

Esan genezake ordura arte juridikoki bi estatu ezberdinen errekonozimendua zegoela: Estatu Nafarra eta Estatu Espainiarrak. Gaur egun onartuta dago Karlistaldia euskaldunen altxamendua izan zela, Espainiaren aurkako altxamendua. Izan ere, haiek euskaldunen identitate soziopolitikoak ezabatzeko helburua zuten.

**Foruak ezabatzeko zuten asmoa argi geratu da.**

Duda barik. Izan ere, foroak espainiarren eta frantsesen interesen aurkakoak ziren. Frantsek samur ezabatu zituzten foroak 1789. urtean; baina hegoaldeko herrialdeetan zailagoa izan zen. Hala, XIX. mende hasierako I. Karlistaldia etorri zen; eta ondoren bigarrena.

Gerra haietan, biztanleriak foroak mantentzea zuen helburua, eta gainera, independentzia jorak agerian geratu ziren. Azkeneko Karlistaldian, Canovas del Castilloren gidaritzapean, foro sistema guztiz suntsituta geratu zen. Hala, geratzen den bakarra borroka da: herritarron borroka gurea dena berreskuratzeko, batez ere sistema instituzionalean. Baina baita euskara edo bestelako nortasunak ere.

**Hitzaldiok Nafarroa Herriaren historia ezagutzera eman gura duzue. Entzuleengan zer hautematen duzue?**

Guk adierazten duguna eta jendeak duen irudia askotan kontrajarriak izaten dira. Ez bakarrik hemendik kanpora, baita Euskal Herrian ere. Kultura menderatzaileak bere ikuspegia ezarri duen ondorioa da hori.

Historia kontzientzia elementua da, eta ondorioz subjektiboa da, hori ezin daiteke ukatu. Azken finean, historiaren helburua gizatalde baten nortasunaren berrestea da.

**Oraintsu ikusi dugu futbol selekzioari izena jartzeko ez dela adostasunik egon. Informazio falta dago?**

Ez bakarrik informazio falta; are gehiago, gure kontzientzia historikoaren desegituraketa dagoela esango nuke. Koherenteak ez diren planteamenduetara eramaten gaitu horrek. Batzuek diote izenak ez duela axola; baina nik esaten dut axola duela. Besta gauza bat da nola sartu eta egituratu izen horiek errealtate nazionala ondo azaltzeko.



## Autobus geltokia

Rafa Altuna  
Oñati

Oñatiko estazio zaharreko inguruak berregituratzeko proiektuaren berri izan ondoren, hainbat alderdi desegokiak eta inprobisazioan oinarrituak iruditzen zaizkigu. Hona hamen gure argudioak:

1. Gaur egun, autobus geltokia leku lasaian dago kokatuta, autobusa itxaroten dauden arazorik gabe egon daitezke bertan, nahikoa leku daukate eta trafikotik babestuak daude. Taldeak (jubilatua, gaztetxoak, kirolariak eta beste hainbat) herrira etorri edo joan behar direnean autobusez, hori izaten da euren bilgunea eta nahiz eta kopuru handiak izan, horrez ez du inolako arazorik sortzen; alderantziz, eroso egoteko aukera dago kokagunea aproposa, trafikotik gabea eta zabal delako. Autoan bertaratu beharra izanez gero ere (adinekoak, mailetak badituzu) enbarazurik gabe heldu eta bertan egon zaitezke. Orain, berriz, proiektu berriaren arabera postetxearen aurrean kokatuko omen da. Ez al zarete konturatzen bertan ez dagoela nahiko tokirik? Espaloi estu bat besterik ez dela eta bertatik oinezkoak ere pasatzen direla? (Cegasako langileak, auzoko biztanleak, postetxera doazena, MUko Enpresa Fakultateko ikasleak etorkizunean...). Aldaketak traba, arazo, kotxe eta jende pilaketa baino ez du ekarriko. Denontzat kaltea baino ez: erabiltzaileentzat, auzokoentzat eta oinezkoentzat orokorrean.

2. Horrez gain, komunak ere kokatu nahi dituzte tokirik ez dagoen lekuan. Espaloi estuegia denez, komunak egiteko aldameneko parkea ere kaltetuta eta desitxuratua geldituko da. Irtenbidea argia da: gaur egungo autobus geltokiaren aldamenean ezartzea komunak. Nahiko leku dago bertan itxurazko komunak ipintzeko; premiazkoak direnak, bestalde.

3. Jolasleku bat ere aurreikusten da gaur egungo autobus geltokian. Baina ez da kontuan hartzen 100 metrora beste bat dagoela eta auzogune hori ez dela inondik ere ume askokoa. Bestalde, aita-amek ere ez dute oso gogoko zonalde hori, elkartzeko nahiago dute plaza ingurua, Bidebarrieta auzoa eta horrelakoak; taberna, jendea eta giroa dauden tokiak, alegia.

4. Azkenik, berdegune bat aurreikusten da. Hau da, alde batetik, dagoena kaltetuta gelditzen da eta, bestetik,

## OPE eta EPE

Dorleta Sologaistoa Agiriano > Arrasate

**O**sakidetzako 2009ko oposaketan atarian, amorrarazten nauen gai bat dabilkit buruan. Izena ematerako orduan, norberak aukera dezake oposaketa hauek zein hizkuntzetan egin. Ez nuen dudarik izan aukeratzeko orduan, are eta gehiago kontuan izanda erizaintzako diplomatura guztia euskaraz egin nuela EHU-n.

Badirudi, ordea, hizkuntzaren aukeraketa kontu formal huts batean geratzen dela. Izan ere, oposaketa hauek prestatzeko galdera sortak eta kolegioak ateratako erantzunak gaztelania hutsean bakarrik eman baitzizkigute. Aurtengoan, erizaintzan behintzat, aldaketa batzuk egon dira azterketaren formatuan. Mila galdera banatu dizkigute (Interneten zintzilikatu eta liburuxketan etxera bidali dizkigute) txukuntxukun. Baina hori bai: gaztelaniaz soilik.

Telefonoz deitu nuen nire kezka agertzeko. Emaitza: aitzakiak eta informazio argirik ez. Hasiara batean, euskarara itzulitako liburuak aurreko asterako banatuko zituztela esan zidaten (gaztelaniazkoa orain bi aste jaso genuela aipatuz) eta, azkenik, hona hemen posta elektronikoz aurreko astean jaso nuen mezua: Egun hauetan zehar, behin euskarara itzulita eta formatua emanda, internet-en eskegitzen eta liburuak prestatzen ari dira.

Lotsagarria! askotan gertatu oi den moduan, administrazio publikoan euskara bigarren mailako eta euskal hiztunen eskubideak atzetik. Oposaketetako azterketa datak martxoan eta apirileko lehenengo asteburuan izango direla aintzat hartuz, nire kezka agertu nahi izan dut: oposaketak euskaraz egitea erabaki dugun pertsonok ez baitugu zertan egoera zentzugabeko hau jasan.

kuartelaren parez pare beste bat egitea nahi da. Begira, nik uste, jendea hobeto egongo dela dagoen parkera joaten bada eta ez kuartel ondoan egingo omen den berri horretan. Ez dut uste hori denik leku egokiena berdegunea egiteko, ezta herritarrentzat leku erakargarria denik ere, are gutxiago berdegunea egiteko ganorazko autobus geltokia izateko aukera desagertu behar baldin bada.

Ene ustez, ondorioa argia da: autobus geltokia ez da lekuz aldatu behar, bertan jarraitu behar du; beharrezkoak eta premiazkoak diren hobekuntzak egin, hori bai, geltoki egoki eta erabilgarri bat izan dezagun. Horretarako, besteak beste, beharrezkoak izango lirake: markesina egokiak eta babes handiagoko ematen dutenak bi norabideetan ipini, jarleku erosoak, informazio panelak autobus ordutegi eta herriko premiazko informazio gaurkotuarekin, komunak, paperontziak, argiztapen egokia, kafe makinak eta beharrezkoan den mobiliario urbanoa autobusaren zain daudenak gustura egon daitezkeen eta ondorioz garraio publiko gero eta gehiago erabiltzeko.

Itxaropena dut Udalak honetaz guztiaz hausnartu eta bere egitasmoa berriro aztertu duela, betiere herritarren gaitasun eta guztien mesederako.

## Okerrera

Miren Karmele Exposito  
Oñati

Lehen ginekologoa gazteendako zen bi urtero eta gero jarri zuten hiru urtero. Hori ulergaitza bat zen niretako, behintzat, Oñatin; ez dakit Gipuzkoan orokorrean horrela izaten zen edo ez. Orain dela bi aste joan nintzen Oñatiko anbulatoriora emaginarengana, ordua hartzeko ginekologiarako. Harrituta geratu nintzen haren erantzunarekin.

Esan zidan orain gauzak aldatu direla. Zitologiak hark egingo zituela hiru urtero eta ginekologoaren kontsulta kendu egin dutela.

Problemarik edota moles-tiarik edukitzen baduzu, lehenengo joan behar zara medikuarengana edo emaginarengana, eta haiek baloratu behar dute ea ginekologoaren gaitasuna joan behar zaren ala ez. Gero, beti esaten dute egin behar dugula urtero ikustaldiak. Zertarako? Gero ez daukagu eskubiderik ginekologoarengana joateko. Hor ez zen geratu kontua. Eman zidan Osakidetzako orri bat eta hor jartzen zuen Osakidetzak ez daukala idatzita ze maiztasunez joan behar garen ginekologoarengana. Gure inguruan datu gutxi daude bularreko minbiziarenak eta utero-lepoko minbiziarenak, eta horregatik kendu dutela ginekologoa.

Pozten naiz gure inguruan emakume gutxi egotea gaitz horiekin, baina gutxiago egoteko prebentzioa behar da.

Horretarako, azkenean joan beharko gara pribatura eta pagatu beharko dugu 60-80 inguru urtero eta kito. Denek ez dute urtero diru hori pagatzeko adina, eta gaur egun gauzak zelan dauden ikusita, bada, gutxiago.

Irten nintzenean emaginarekin egotetik, kexa bat jarri nuen Oñatiko anbulatorioan, harreran, esaten ez zaidala iruditzen erabaki hori ondo; guk pagatzen ditugu gure zergak eta azkenean ez dakit zertarako. Horregatik eskatzen dut Oñatiko emakume denek kexak ipintzea eta ea egin ahal dugun zerbait.

## "Zorra"

Leire Lardizabal  
Arrasate

Azeriz mozarrotuta joan izan banintz, tira... baina sukaldariz nindoan jantzita eta orduan, ezin ulertu zergatik deitu zidan hala. Seberora bidean gindoazela esan ziguten ertzain mordo bat zirela han eta nik, nire karnabal umore horretan murgilduta, saltxitxoi porradunak izango zirela pentsatu... Inozoa halakoa! Portaloirra heldu orduko ikusi nuen panoramak grazia egingo zidan, furgoneta inguratuz zeuden haien peloteroak egiazkoak izango ez balira.

Plaza jendez lepo, espexetik irten berria zen arrasatear bati festa giroan harrera egiteko gogoz eta haien aurrean kuku-marru beltzez osatutako barrera bat, edozein momentutan gainera oldartzeko prest. Aurrez ere erakutsia digute umorea ez dela beraien ezaugarrietako bat eta aurpegia estalita agertu baziren ere, bistan zen haien anonimotasunaren atzean zer asmo zegoen ezkutatuta: giroa berotzea zetozen, baina beraien estilo propioan...

Zer pintatzen zuten han, inork ez bazituen ikusi ere egin nahi? Bakarren batzuk gertatu ziren beraiengana -agian kasu egingo zieten esperantzaz-mesedez joan zitezten eskatuz, han umeak, zaharrak eta denetarik zegoela azpimarratuz. Kasu? Bai, zera! Ekitaldia eragozteko aginduak zituzten eta puntu.

Soberan zekiten jokoak kanpo zeudela, eta beren ezinegona jendeari bultzakadak emanez erakutsi zuten lehendabizi. Jendea "alde hemendik" eta "Amaia, ongi etorri" oihukatuz hasi zenean, kargatzeko keinutan hasi ziren. Ordura arteko umore giroa ertzainen trajea bezain

beltz bihurtu zen. Broma gutxi.

"Tienen 5 minutos para desalojar la zona", bota ziguten furgonetako megafoniatik, inongo lotsa barik. Momentu hartan Seberon ez zeuden bakezaleren batzuek emandako aginduak zorrotz ari ziren betetzen eta jendeak azkenean utzi egin zuen plaza, kaosa saihestu nahian. Ez zuen, baina, askorako balio izan... handik minutu eskasetara "herri zain"-en irainak, pilota-kadak eta mehatxuak nagusitu baitziren kalean.

"Vete a tu puta casa, zorra". Ertzainetako batek argumentu horixe eman zidan, bere aurrekoari euren jarreraren zergatia kuestionatu nionean. Hiitz goxo horiek entzunda hobeto sentitu nintzen, diru publikoarekin benetan errespetatu eta babesten gaituen polizia bat dugunaz konbentzitu. Datorren urterako ere igo ditzatela Barne Ministerioko aurrekontuak... ertzainek herritarrok egurtzen jarrai dezaten.

## Historiak esango du

Edorta Mendieta Arregi  
(Eusko Alkartasuna)  
Aretxabaleta

Badira 22 urte Eusko Alkartasunak Aretxabaletan bere ibilbidea hasi zuela. Urteotan, eta bereziki Alkatetzaren ardura izan genuen bi agintaldietan, Eusko Alkartasunak herrian utzi duen aztarna agerikoa da, agerikoa den bezala kudeaketarako daukagun gaitasuna, hala nola gauzak egiteko daukagun estilo zabala eta parte-hartzailea. Gobernuaren ardura izan genuenean, erabat aldatu genuen udaletxean gauzak egiteko modua. Ordura arteko eta baita geroko estilo presidentzialistaren ordean, arduren delegaziari bide eman genion, erantzukizuna eta erabaki ahalmena partekatuz eta Gobernu Batzordea taldekako erabakitze organo bilakatu. Gobernuaren ardura izan ez dugunean, saiatu gara estilo horren ontasuna transmititzen, nahiz eta ez den berriz praktikatu, interes faltagatik batzuetan eta boterea emateko ezgaitasunagatik besteetan.

Eusko Alkartasunaren ardurapean, baita, eman zen Aretxabaletan lehendabiziko koalizio gobernu, HBekin. Gure erantzukizunak eta kapazitateak posible egin zuen orduan HBkoak kudeaketarako beharrezko den pragmatismo-rantz erakartzea, planteamendu maximalista eta erradikalak alde batera utziz eta legegaldia

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33  
20570 BERGARA



Telefonoa:  
943 25 05 05



Faxa:  
943 25 05 12



Posta elektronikoa:  
goienkaria@goiena.com



elkar ulertze maila altu batekin bukatzea lortuz. Ez tentsiorik gabe, hala ere.

Ze alde nabarmena Aralarrekin gertatu zaigunarekin. Datu bat: bere historia laburrean Aralarrek dagoeneko bi aldiz utzi ditu ezerezean bere legealdi paktuak: PNVrekin lehenengo eta EArekin gero. Bakoitzak atera ditzala kontuak.

Eta egiteko nahiari buruz zer esan. Ez dago Aretxabaletan zehar buelta bat ematea baino Eusko Alkartasunaren gobernuek utzitako ondarea ikusteko.

Esaterako, Industrialdearen promozioa eta abiaraztea. Edo etxebizitza arloa garatzeko erakunde lokalarena. Biak Euskadi mailan iniziatiba aitzindariak. Edo ekintzailegoaren bultzadatik sortutako enpresa berrien integrazioa Industrialdean (Lantek, AZK, Diara, Mondragon Assenbly, e.a.), nahiz eta pixkanaka guztiak alde egiten ari diren gerora erantzukizuna izan dutenen arduragabekeriagatik. Edo Kurtzebarri Eskolaren modernizazioa eta handitzea. Edo Basotxoren egoitza. Edo Ibarrako kirol instalazioen birmoldaketa. Edo Markole inguruan kooperatiba erregimenean etxebizitza libreen sustapena, etxebizitzaren prezioa eustearen helburua lortu zelarik, nahiz eta zenbaitzuk ez zuten horren interesik eta biziki saiatu ziren berau boikotatzen. Ea zer etxebizitza kudeaketa egin den Aretxabaletan harrezkero. Edo, askok dagoeneko gogoratuko ez duzuen arren, Aretxabaleta izan zen ia herri osoa Gas Naturalarekin kanalizatu zen lehen herria. Edo PEASekin ura eta saneamenduaren kudeaketarako politika martxan jarri genueneko —ogoratu ordura arte uraren %50a banaketa sarean galtzen zela—, oraindik indarrean jarraitzen duena, Eusko Alkartasunaren etorkizun-senaren eta planifikazio gaitasunaren adierazgarri. Honela jarraitu nezake beste mila adibide emanaz, hala nola Pausokaren bultzada, Musika Eskola, ondarearen eta elizate-etako intereseko eraikinen eraberritzea eta mantentzea...

Horregatik, ezin dut onartu Aralarrek darabilen jarrera, inongo argumenturik eman gabe iraindu, gezurrak esan eta usteen juizioak baino egiten ez dituenean, Eusko Alkartasunari erantzukizunik eza, lan egiteko gogorik eza eta trabak jartzea leporatuz. Azkeneko ateraldia, Gobernu Akordioan ziren zenbait proiektu gureganatu nahia leporatzea. Narrua behar da horrelakorik esateko, ustez sinatutako akordio haren edukiaren %90a Eusko Alkartasunak eman zuenean. Eta ustez sinatu zela diot hilabete gutxira ohartu ginelako Aralarren asmoa ez zela akordio hura betetzea. Helburu bakarra dute aurreko legealditik zetozen gauzak amaitzea.

Gainontzean, dekorazio pixka bat han eta hemen, ezerezean ari direnaren itxura ez emateko. Ezer gehiago. Hori da aldaketa goiburuaren benetako esanahia.

Baina Eusko Alkartasunarekin erratu ziren, gure helburua ez delako erakundeetan aulkiak berotzea. Baldin bgaude, gauzak egiteko izango da, auzokideen bizitza kalitatean eragingo duten proiektuak aurrera eramateko. Horregatik, norabidea eta egiteko moduak aldatzeko aldarrikatzen aspertu ginenean, beraien pantomimarekin bakarrean jarraitzen utzi genituen.

22 urte daramatzagu Aretxabaletan eta beste horrenbestez hemen jarraitzeko asmoa dugu. Etorkizun-sena daukagulako; Aretxabaletarako proiektu bat daukagulako; eta gure herriaren garapena, bizitza kalitatea eta kohesio mailak mantendu bakarrik ez baizik eta hurrengo nibelera igo nahi ditugulako eta horretarako kapaz garelako.

Historia egoskorra da eta bakoitza bere lekuan jarri ohi du. Gureak argi eta garbi hitz egiten du gugatik.

## Erabaki dezagun

**Jon Otxandategi**

Aretxabaleta

Abesti batek dio: "Herri hau salduko duen seme-alabarik herri honetan ez da jaino". Ni ez nago horren ziur. Guztiak omen du prezio bat eta kopuruak merezi badu, dena da zilegi. Hori pentsatuko dute PNV eta bere orbitan dauden enpresariek AHT izena entzuten dutenean. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan hauteskunde eguna gerturatzen ari zaigun honetan, asko dira krisi ekonomikoari aurre egiteko kudeaketa egokiena egingo dutela dioten politikariak. Ez da ekonomilaria ez eta pentsalaria izan behar AHT egiteko milaka milioiek langabetu zein benetako krisia pairatzen duten herritarrei nola lagunduko lieken jakiteko. Herritarren gehiengoari inongo mesederik ekarriko ez dion proiektu honek gastu soziala are ikusezinago utziko du, ingurumenak jasoko duen kaltea ez aipatzearren.

Herritarren parte hartzea eta galdeketa hain gustuko dituzten hego Euskal Herriko alderdiak gor, itsu eta mutu gelditzen dira herritar talde zabal batek AHTren inguruan galdeketa edo eztabaida eskatzen duenean. Eta, are gehiago, modu *zibil*, baketsu eta politikoan kolpatuz erantzuten diete herritarrei. Urbinakoa azken adibide garbia.

PSOEek eta PNVek kanpainen zehar behin eta berriz iragartzen digute Euskal Herriarentzako aldaketa. Bakoitzak bere bidea duela agertu arren, guztiok ohartzen gara antzeptutako konfrontazio

horren atzean elkarren artean adostutako erreforma "berria" dagoela; aldaketa txikiez apainduta egon arren, oinarri berdinak izango dituen eredu autonomista. Herri mugimenduaren ahotsari eta parte hartzeari bizkarra emanez.

Duela 30 urte diseinatutako ereduak ez dio herri honi bere etorkizunaz erabakitzeko aukerarik eskaini. Garbi ikusten da hori herri batentzat estrategikoak diren proiektuak mahai gainean jartzen direnean modu *demokratikoan* isilaraziak izaten direla. Bada garaia herri honen ahotsa entzuten hasteko, beharrezkoak ditugun azpiegituretatik hasi eta eraiki nahi dugun herriaren izaera politikoa erabaki arte.

Aldaketa ezin da etorri ibilbide luze honetan erakutsi diguten *borondatearen* ondotik. Bi asteko kanpainak ez du herri honek jasaten duen *Ynposaketa* eta ukazioa ezabatzen.

*Ynposaketaren* aurkako bozka emateko garaia da. Iruzzurraren aurkako bozka. Benetako aldaketaren aldeko bozka. Aukera guztien bozka. Herri honetako 3 milioi biztanleentzako demokraziaren aldeko bozka.

## Sinesgarritasun gutxi

**Felis Beltran de Heredia** (Aretxabaletako Aralarren izenean) Aretxabaleta

Ez dakigu ez-jakintasunak bultzatuta, irakurleak engainatu nahi izanagatik edo, izaeraz, halako jarrera lotsagabea duelako, baina beste behin irakurri ahal izan genuen joan zen ostiraleko GOIENKARIAN, Bergarako alkate den Agurne Barruso demokratak Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen inguruan iritzia emanez, hainbat alderdik Alderdien Legearekin azaltzen duten jarrera salagarria dela. Eta adibide gisa, Aretxabaletan herriak aukeratu ez duen alkatea dagoela gaineratu zuen.

Luze bezain zabal geratuko zen halako barrabaskeria bota ondoren, askatasunaren eta demokraziaren izenean, seguru. Barruso eta beste hainbati, beste behin, gogorazi behar zaie 2007ko Udalhauteskundeetan Aretxabaletan ANVk atera zituela boto gehien, zoritxarrez Alderdien Legeak legez kanpo eta hauteskundeetatik kanpo utziz. Datuak datu dira, eta horiek ukaezinak dira. Hori, hedabideetan hainbatetan adierazi dugu, eta garbi onartu eta baloratu dugu.

Baina tira, hortik Aretxabaletak aukeratu ez duen alkatea duela esatera, gezurra eta batere etikarik ez duen jauzi handia dago. Eta herriari eta herritarrei ziria sartzeko, Inauterien sasoikoa den gezurraren mozorroa jantzi du.

Izan ere, udalbatza osatu zen egunean, Aralarreko ordezkaria den Inaxio Garrok gehiengo absolutua lortu zuen, eta horrek esan nahi du gehiengo batek babesa eman ziola. Eta horren ondorioz, edozein ikuspegitik ikusita ere, alkate legitimoa dago Aretxabaletan, Agurne Barrusok berak hainbestetan erabiltzen duen demokraziaren bidetik, eta alkatearen izendapenak eta Alderdien Legeak ez dute batere loturarik. Betiko diskurtso ahula eta faltsukeriaz betea!

Adibide bat jartzearren, horrek zer esan nahi du, gutxi arte Azpeitiko alkate izan den Iñaki Errazkin ez zuela bere herriak aukeratu, hauteskundeetan berez boto gehien beste alderdi batek lortu zituelako? Nola esan liteke hori!

Eta bukatzeko, kopeta behar da Alderdien Legea aipatu eta Aralarren jarrera salatzera etortzeko. Agurneri berari nork eman bio babesa eta azaldu dio atxikimendua hamaika aldiz Bergarako udalean? Hori da hori sektore independentista eta progresistak batzeko ahalegina! A ze sinesgarritasun gutxi...

## 'Noiz arte?'

**Pedro Mendieta**

Aretxabaleta

Jose Ramon Elortzak joan zen egubakoitzean GOIENKARIAN idatzitako iritzi zutabean galdetzen zuen: *Noiz arte?* Eta hainbat eta hainbat abertzaleren ahotan jartzen zuen galdera hori. Gaur egungo abertzalatasunaren zatiketaren arrazoiak ulertzen ez duten abertzale askoren ahotan hain justu ere.

Baina, galdera hori, dagokion analisi eta diagnostikoarekin lagunduta ez doanez, sakontzen da abertzale sentitzen diren hititarren itxaropenik eza, kezka eta etsipena.

Etika eta balioak aintzat hartuta, egiten duan analisiak ondorio honetara eraman nau: Frankismotik gaur egunera arte sortu dugu, denon artean, gure aurrekoen nortasun ikurrengandik urrun dagoen euskal jendartea, zeinetan ETAren indarka sartzeak, bere estrategia hauskor eta bortitzarekin, ekarri dituen, minaz, etsipenaz eta gure-gureak diren balioen galeraz gain, ondorengo ondorio hauek ere:

Batetik, saihestu du abertztaletasunaren egituraketa, bi oinarrizko ildotan: kontserbadorea eta aurrerakoia, non alternantzia politikoa finkatuko den, estatuari sor zaion obedientziaren espazioa gutxituz.

Bestetik, Estatu Espainolarekiko akzio-erreakzio dinamikarekin, ETAk lortuko du entregatzea Euskal Autonomia Erkidegoko parlamentua estatuari, edo hori ezean, EAJ/PSOE itunerako inboluzioa bultzatu.

Badaki Joxe Ramon Elortzak Espainiako auzitegien botere abusuen aurka nagoela, Alderdien Legearen aurka nagoela, errepresioaren aurka..., eta EAko militante garenok behin eta berriro erakutsi dugula jarrera hori.

Era berean, badaki, gure posizio etikoa aintzat hartuta, gure konbokatze ahalmenak sekula ez duela bat egingo, behin betikoz bide politikoen alde bakarrik konprometitzen ez direnekin, Euskal Estatu burujabearen defentsa eta eraikitze lanetan. Uste dugu hor dagoela abertztaletasunaren zatitzearen ernamuina.

Euskal Herriarendako hain zoritxarreko izan den traba hori desagertzen denean, ziur nago lehenak izango garela batera jarduteko urratsak ematerakoan, hori delako abertzale aurrerakoi gehienek nahi dutena.

Bitartean, gure esfortzua bideratu nahi dugu abertzaletasuna berrilusionatzera eta ahalik eta babes handiena lortzera hauteskundeetan, benetako urrezko boto erabilgarria.

Helburua da baldintzatzea Legebiltzarretik gaur egun Sabin Etxean, EAJren botere gunean, agintzean duen ildo foralista, eta saihestea antzinako errezetara itzul daitezela. Izan ere, erreza horrek bakarrik balio du gatazkak bere horretan segi dezan eta batzuen botere kuotei eusteko, Euskal Herria burujabe izatetik, eta aurrerapen ekonomiko eta sozialetik urrunduz..

## Zineklubera!

**Roberto Merino**

Bergara

Aspaldixan ez nebala holako presaik eukitzen ostegunetan lanetik urtezteko. Betiko errosarixua atzaldeko zortzirak aldera: "Ez daixela iñor etorri azkeneko momentuan..., ez daixela iñor arrimau...". Hau dana zortziretan puntuan ixteko eta *echando piruletas* zineklubera juteko!

Ba, bueno, aurreko ostegunian kunplidu zan eskatzen nebana ta antxintxika batian arrimau nitzan Zabalotegira *El violin* pelixa ikusteko arnasesutu batian. Eta, derrepente, aspaldiko zenzaziño politxak agertu zian. Lasaitxasuna. Deskonektauta asteko rollo danetatik. Enfin, trankilidadia.

Pelixa earra. Ona. Zinekluba Bergaran berriro estrenatzeko politxa. Gomendagarrixa (ideia zabaldu). Baña, oiñ astero osteguna irixten danian barriro errosarixo iguala. Aguantau ein bihar. Pena merezi dau. Animau zaitxezte ta hurbildu ostegunetan Bergarako zineklubera Zabalotegiko aretuan. Errezauta ero errezau barik. Ezate bape damutuko. Benebenetan.





## Baster-Alde

Galartza auzoa / ARETXABALETA  
943 79 24 58 [www.baster-aldejatetxea.com](http://www.baster-aldejatetxea.com)

### Eskaintza

- Karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Enpresa bazkariak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

Igandeetan itxita



## Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE  
943 53 32 72  
[www.errekajatetxea.eu](http://www.errekajatetxea.eu)

### Eskaintza

- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

Igande gauean eta astelehenetan itxita



## Etxe-Aundi

Torre auzo 9 / OÑATI  
943 78 19 56  
[www.etxeaundi.com](http://www.etxeaundi.com)

### Eskaintza

- Ezkontzak
- Karta
- Asteburueterako menu bereziak
- Eguneko menua
- Enpresentzako harrera gelak
- Aparkalekua

Egunero zabalik



## Santa Ana

Uribarri 37 (Udala bidean) / ARRASATE  
Tel.: 943 79 49 39  
[www.santaanamondragon.com](http://www.santaanamondragon.com)

### Eskaintza

- Terraza eta barra
- Menu bereziak
- Karta
- Errazioak, pintxoak, bokatak eta gozoak enkarguz norberak etxera eramateko.
- Ezkontza, despedida eta kintoen bazkariak

Igande gauean itxita.



## Zumelaga jatetxea

San Antonio 3 / BERGARA  
Tel.: 943 76 20 21  
[www.zumelaga.com](http://www.zumelaga.com)

### Eskaintza

- Karta
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Despedidak-kintadak
- Enpresa bazkariak
- Menu bereziak taldeentzat



## Unzueta sagardotegia

Zabola z/g /ARAMAIO  
945 44 50 95

### Eskaintza

- Sagardoa txotxetik urte osoan
- Sagardotegiko menua
- Karta
- Eguneko menua
- Parking eta terraza
- 70 lagunendako tokia
- Bataio, jaunartzeak eta kintadak

Egunero zabalik



# Herriak

Arrasate > 14-18 Bergara > 19-22 Aretxabaleta > 24-26 Oñati > 27  
Eskoriatza > 28-29 Antzuola > 30 Elgeta > 31 Aramaio > 32 Gatzaga > 33



> **BERGARA**  
Txakurrendako komunak jarriko dituzte herriko sei lekutan > 20



> **ARETXABALETA**  
Emakumearen gaineko ekitaldiak Arkupen martxoan zehar > 24



> **ANTZUOLA**  
Herriko mugarriak ezagutzeko mendi ibilaldia egingo dute domekan > 30



> **ARAMAIO**  
Osteta kalean egin nahi du Udalak osasun etxe berria > 32



Enpresa Zientzien Fakultate berria eta MIK Kudeaketako Ikerketa Zentroa hartuko ditu campusak, Oñatiko Unibertsitate eta Teknologia Hirian.

MU

**OÑATI** > MONDRAGON UNIBERTSITATEA

## Prestakuntza eta ikerketa izango dira MUko campus berriaren ardatzak

**HIRU ESPARRU** Azpiegitura berriak hiru esparru izango ditu: enpresa-kudeaketaren prestakuntza, etengabeko prestakuntza eta gradu-ondokoak

**MIK TEKNOLOGIA ZENTROA** Ikerketa-unitate berriak 50 ikertzaile inguru izango ditu lau urteko epean

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

"Lehiakorrak eta erakargarriak izan nahi dugu, ez bakarrik hemen, baita atzerrian ere. Horretarako, egungo azpiegiturak ez dira nahikoa. Mondragon Unibertsitatearen eta MIKen sendotze eta zabal-kundearen oinarrietako bat da campus berria", adierazi zuen MUko errektore Josu Zabalak astelehenean, Donostian. Lander Beloki Enpresa Zientzien Fakultateko dekanoarekin batera, campus berriaren nondik norakoak azaldu zituzten komunikabide aurrean.

Campusak, esan bezala, Enpresa Zientzien Fakultate berria eta MIK Kudeaketako Ikerketa Zentroa hartuko ditu Oñatiko Unibertsitate eta Teknologia Hirian. Azpiegitura berriak hiru esparru hartuko ditu: enpresa-kudeaketaren esparruko prestakuntza, bate-tik; etengabeko prestakuntza eta gradu-ondokoak, bestetik; eta hiru-

garrenik, ikerketa esparrua MIKen bitartez. Lander Belokiren hitzetan, helburua zera da: "Prestakuntza eta ikerketa uztartzea enpresen beharretara zuzentzea".

**MIK TEKNOLOGIA ZENTROA**

Mondragon Unibertsitatearen Enpresa Zientzien Fakultateko ikerketa-unitatearen eta MIK Ikerketa Zentroaren orain arteko jarduera ikertzailea bateratzearen emaitza izango da MIK Teknologia Zentroa. Ikerketa-unitate berriak 50 ikertzaile inguru izango ditu lau urteko epean. Proiektua Estatuko Administrazioaren I+G+B planaren esparru barruan kokatzen da, baita Gobernuak 2010erako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean eginiko planteamendu barruan ere. "Ezagutza berriak sortu eta garatzea izango luke helburu eta, orain

arte bezala, alor horretan beste unibertsitateekin eta enprekin dugun elkarlanari eutsiko diogu, azpimarratu zuen Belokik astelehenean. MIK Ikerketa Zentroak lau ikerketa-lerro nagusi izango ditu: antolakuntza-kudeaketan garatze bidean dauden dinamikak; kooperatiba eta gizarte-ekonomiako erakundeen kudeaketa; negozio berriak; antolakuntza eta gizarte berrikuntza.

**BI TITULAZIO BERRI**

Prestakuntza eta ikerkuntza uztartuko dituzte beraz campus berrian. Enpresa Zientzien Fakultateak bi titulazio berri

eskainiko ditu 2009/10 ikasturtean, Goi Mailako Irakaskuntzaren Europako esparrura egokituta eta kudeaketaren esparruarekin lotuta: International Management Assistant gradua eta Lidergo Ekintzaileko eta Berrikuntzako gradua. Lander Beloki dekanorearen hitzetan, "eskaintza lehiakorra egiten ahalegintzen gara, lan munduan dauden behar-ak aintzat hartuz". Etengabeko prestakuntzari eta graduatu ondokoei ere eutsiko dietela adierazi zuen Belokik. Fakultateak 500 ikaslelik gora ditu eta campus berrian 1.000 ikasle izatera heltzea da helburua.



Abenduan hasi ziren campus berriko lanak Ibarra.

JOSETXO ARANTZABAL

### Campus berria Oñatiko Unibertsitate eta Teknologia Hirian martxan, datorren urtetik

Campus berria Oñatiko Ibarra kirol-esparruko lurretan eraikitzen dihardute joan den abendua ezker. Oñatiko Udalak Ibarra partzela 1,5 milioi euroren truke saldu zion MUri. 10.000 m<sup>2</sup>ko azalera izango du campus berriak eta azalera eraikia 8.752 m<sup>2</sup>koa izango da. Eraikinak hiru solairu eta sotoa izango ditu, eta honako hauek hartuko ditu barne: hogei bat gela prestakuntzarako; zazpi gela etengabeko prestakuntzarako eta masterretarako; laborategiak ikerketa-jardueretarako; informatikako gelak; hizkuntza-laborategiak. Era berean, ekitaldi-areto handi bat, kudeaketa- eta administrazio-gunea, sailak, liburutegia, bilera-gelak eta 200 ibilgailurendako aparkalekua izango ditu campusak. Aurrekontua 11 milioi euro ingurukoa da eta 2010eko irailean abian izango da campusa, Enpresa Zientzien Fakultatearen urrezko ezteiekin bat eginez hain zuzen. 50 urte bete eta etapa berriari eta erronka berriei eusteko ordua.





Maite Barreña, Oihana Aranburu, Yolanda Perez de Arenatza eta Eli Roncero, aurkezpenean.

ANABEL DOMINGUEZ

EMAKUME TXOKOA &gt; MARTXOAK 8

# Emakumeak kalean korrika ikusi guran

Emakumeen parte hartzea indartu gura dute Emakume Txokotik Takarraran lasterketarekin; herri bazkaria ere egongo da martxoaren 8an

JON BEREZIBAR &gt; ARRASATE

Kirola egitera bultzatu gura dituzte Emakumetxokotik martxoaren 8an. "Zure ahotsa zabaldu, martxan jarri" da aurtengo leloa -Marta Elia nafarrarena da esaldia eta dagokion kartela- eta emakumeen autoestimua indartzea da helburua. Takarraran ipini diote izena lasterketari eta hala azaldu zuen Yolanda Perez de Arenatza Aukeako zinegotziak: "Kirolak autoestimua jaso eta nor bere gorputzarekin hobeto

sentiarazten du" eta horregatik bultzatu gura dituzte Arrasateko zein inguruetakoa emakume guztiak parte hartzera. Lasterketa "zabala" izatea gura dute eta 15 urtetik gorako emakumeei luzatzen diete proposamena, goiko muga barik. Hain justu 3 kilometroko ibilbide "erraza" egokitu dute erdialdetik zehar.

Hortaz, lehengo hamarrak sarituko dituzte eta partehartzailer guztiei kamiseta bana eman-godiote. Emakume Txokoak eta

Aukeak elkarrekin antolatu dute ekimena. Dagoeneko eman dai-teke izena Emakume Txokoa zein kiroldegian baina egunean bertan ere egin ahalko da.

BAZKARI HERRIKOIA

Kale-lasterketarekin batera, martxoaren 8an, bazkari herrikoia ere antolatu dute berrietasun moduan. Emakume baserritarren azokak ere ez du huts egingo aurten eta, ohi moduan, iluntzean manifestazioa egingo dute 19:00etan. Horrez gain, martxoaren 7an *Lilas* dantza ikuskizuna egongo da eta hilaren 12an Aho-tsak taldearekin batera bake prozesuetan inplikaturiko emakumeekin hitzaldia egongo da.

## Ia 100 txorizoren artean Arrasaten egindakoa aukeratu dute

Jose Mari Salegi harakinak eskuratu du XIII. Bilbo Hiria etxeko txorizoen lehiaketako lehen saria. 96 txorizoren artean aukeratu dute Otarako obradorean egindakoa onena moduan. Gainera, bigarren urtez eskuratu dute lehen saria, Bilboko lehiaketan inork egin ez duen moduan. Datorren urtean ere ahalginduko direla diote salegitarrek.



U.M.

POLITIKA &gt; PRESOEN ALDEKO SINADURA BILKETA

## Astelehenean etxerik etxe hasiko dira sinadura eske, preso en eskubideen alde

Kartzeletako egoera "inoiz baino larriagoa" dela salatu gura du Portaloira Topaguneak

U.M. &gt; ARRASATE

Preso dauden hiru herritarren egoera azpimarratuta, astelehenean, martxoaren 2an hasi eta maiatzaren 3ra bitartean, preso en eskubideen aldeko sinadura batuko ditu Portaloira Topaguneak. Ohi den moduan sinadurok kalean batu barik, baina, etxerik etxe joango dira, ahalik eta herritar gehiagoren babesa lortu gura dute-eta, kartzeletako egoera "inoiz baino larriagoa" delako. Hori azaldu du Gaizka Azkaratek, Portaloira Topaguneko ordezkariak.

JON AGIRRE, 28 URTE KARTZELAN

"Jon Agirreren kasua oso argia da: 28 urte kartzelan, gaixotasun larriak ditu eta hala eta guztiz ere ez dute askatzen", azpimarratu du Azkaratek. Salatu du 92. artikulua "behin eta berriro" ukatzen diotela Agirreri eta 2006an zigor osoa beteta izan arren, "beste bost urtez" luzatu diotela zigorra.

GILTZURRUN BAKARRAREKIN

Josu Uribetxeberriaren egoera ere salatuko du Portaloira Topaguneak. Kontatu dute giltzurruneko minbizia izan eta giltzurrunetako bat kendu ostean, bakarrarekin bizi dela orain. "Eguneroko jarraipen medikua behar du, kartzelan jasotzea ezinezkoa dena. 92. artikulua ukatu egin zaio etengabe".

GAZTAÑAGA, 2018RA ARTE

Azkenik, Jose Inazio Gaztañagari ere "bizi arteko espetxe zigorra ezarri" diotela salatu dute, 2006an zigor osoa beteta izan arren, 2018. urte arte luzatu diotelako zigorra.

MAIATZEAN, MOZIOA

Herritarren zein eragileen sinadurak batuta, mozioa aurkeztuko dute, "sakabanaketa bukatu, gaixo larriak askatu, bizi arteko espetxe zigorra indargabetu eta Agirre, Uribe eta Gaztañaga aska dezaten eskatzeko".

### oharrak

ETXEBIZITZAK

&gt; Martxoaren 4an, zozketa

Aurreratu egin dute Zabalguneko (Gelma) eta Uribarriko babes ofizialeko etxebizitzaren zozketa. Martxoaren 12an egin beharrekoa zena martxoaren 4an egingo dute, Uarkapen. 175 etxebizitza zozkatuko dituzte, Zabalguneko 131 etxebizitza eta Uribarriko 44 etxebizitza. 12:00etarako egin dute hitzordua. Zozketa publikoa da.

DEIALDIA

&gt; Juan Jose Guridiren oroimenez

Juan Jose Guridi zenari oroimen ekitaldia antolatu diote lagunek. Bihar izango da, zapatua, Gesalibar auzoko Jentilola elkartearen, 11:00etan.

UMEAK

&gt; Ludoteka ibiltaria Musakolan

Bihar, zapatua, 11:00etatik 13:30era ludoteka ibiltaria izango da San Antolingo eskolan.

&gt; GAZTEAK

### Sexologia eta bizikleta irteera, gazte txokoetan

Datorren astean hasita, hainbat ekitaldi egingo dituzte Arrasateko gazte txokoetan. Batetik, martxoaren 5ean, 12an eta 13an, 12 eta 16 urte bitartekoendako sexologia tailerrak izango dira Musakola, San Andres eta Erguingo gazte txokoetan, hurrenez hurren. Mirari Arandok, Udala Sexologia Zerbitzuko arduradunak gidatuko ditu.

Bestetik, martxoaren 7an bizikleta irteera egingo dute. Autobusean Garaiora joan eta inguru hartan ibiliko dira bizikletan. Izena emateko jo behar da Arrasateko edozein gazte txokotara.





SUDC elkartekoak sardinaren hiletan.

JON BEREZIBAR



Arratsaldeko desfileko printzesak.

J. B.



Beira garbitzaile koadrila.

J. B.



Ilunkara alaitzeaz Egan taldekoak arduratu ziren.

SERGIO AZKARATE

**ARATUSTEAK** > HAUR ETA GURASOEK EUTSI EGIN DIOTE ARATUSTE EGUN OFIZIALARI AURTEN

# Martitzena etxeko txikienentzat geratu da

**JON BEREZIBAR** > ARRASATE  
Zapatuan festa lehertu zen, baina martitzenerako ere geratu zen trakarik herrian. Inauteri egun ofizialerako gogoari, baina, etxeko txikienek eta guraso koadri-  
lek eutsi zioten. Herriko Plaza izan zen festaren gunea martitzenean. Lehenik, arratsalderako

Txatxilipurdi elkartekoek antolatatu zuten desfilea. Modelorik onenaren plantekin, printzesek, zirkuko kideek eta banpiroek egin zuten erakustaldia. Ostean, pailazoak etorri ziren, eta Egan taldekoek berotu zuten giroa iluntze aldera. Ez da ohikoena izaten Arrasaten Herriko Plaza erro-

meria batekin betetzea, baina martitzenekoa salbuespen polita izan zen neska-mutikoekin.

**GARIZUMARI ONGIETORRIA**  
Gauerdian, SUDCeok urteroko segizioa egin zioten sardinari. Heriotza martxarekin eta kandelaren artean esan zieten agur jaiei.

**JAIK** > ARATUSTE JAIETAKO ZABORRA

## Tona bat zabor pasa batu du Cespak Aratuste jai ostean

Guztira 1.020 kilo zabor batu dituzte: 660 kilo kalean utzitako karrozetatik eta beste 360 kalean utzitako karrotxoekin

**UBANE MADERA** > ARRASATE  
1.000 kilo zabor pasa, edo bestela esanda, tona bat zabor. Horixe da domeka eta eguazten goiza bitartean Cespa garbiketa enpresak Arrasateko kaleetan batu duen zabor kopurua. Gainera, batu dutena ez da ohiko zabor mota izan; hau da, plastikozko edalontzi eta hala-koak, baizik eta karroza osoak eta supermerkatuko karrotxoak dira, batez ere, jaizaleek kalean utzi dituztenak. "Bakarrrik karrozak desmuntatzen hiru ordu eman behar izan genituen bi langilek eta kamioi gidariak. Oso-oso ondo lotuta zeuden karrozak. Hori domeka eta astelehenean izan zen. Baina martitzenean oraindik ere Eroskiko karrotxoak batzen ibili behar izan ginen; guztira, 360 kilo txatarra batu dugu karrotxo eran".

**KALEAN "EZIN IBILI"**  
Hain justu ere, zabor horrek guztiak herritarren artean zeresana eta kexuak eragin ditu. "Umearen karrotxoarekin ezin

zitekeen kalean ere ibili", kontatu du herritar batek. "Datorren urteko mozorroa kalean botatako osagarriekin egin ahal zen", kontatu du beste batek.

Are gehiago, Aratuste jaien antolaketa taldekoek ere salatu dute asteon izandako egoera; batetik, jaien ibili direnek erakutsi duten jarrerarengatik; eta bestetik, Udalak berak aurreikusitako ez duelako urtetik urtera indartzen joan den Aratuste jaiaren ondorena.

**ESKOBATZEA, NORMAL**  
Kontuak kontu, Cespa enpresa Bergara eta Eskoriatzako garbiketaz ere arduratzen da. Bada bi herriekin konparatzen, Arrasate dezente zikinagoa egon dela aitortu arren, Cespatik aditza eman dute hori "normal" samarra ere badela jaietan. "Herri bakoitzak bere jai bereziak izaten ditu. Adibidez, Errege egunean Arrasaten ez da ia ezer egoten, eta berriz Bergaran izugarritzko jendetza ibiltzen da. Aratuste jaietara dagokienez, berriz, Arrasaten dute gaur egun indar handien. Kontua da guk ez dugula objektu handiak jasotzeko agindurik; baina guri Arrasateko Udalak esaten badigu horiek ere jaso behar ditugula, ez litzateke ia ezer igarriko". Adibide moduan, azpimarratu dute herriko kaleen eskobatzea "normaltasunaren barruan" egon dela.

### UDALAREN AZALPENA

#### Datorren urtean Aratuste-zapatuko garbiketa Cesparen kontratu barruan

Domekakoa ikusita, Udalak onartu egin du aurreikuspen falta izan dutela. Zerbitzu Sailetik diotenez, "hausnarketa derrigor egin behar da". Diote euren buruak "gaindituta" ikusi dituztela. Eta diote, baita ere, Cespakoek egin zutela "euren zerbitzua", baina Udalarekin duten kontratuan ez dutela "domeka egun berezi moduan kontenplatuta". Hala, datorren urterako "brigada indartsuagoaren" beharra azpimarratu dute, Maritxu Kajoi edo Santamasetan moduan. Dena den, jaietan dabiltzan hezkuntza kontua ere badela azpimarratu dute: "Garbitu, garbitu egin behar dugu. Gure obligazioa da herria garbi mantentzea, baina ahalik eta gutxien zikintzea denon obligazioa ere bada".



**Berezitasunak  
Kazuelatxoak  
Ogitarteko  
hotz eta beroak**

Arrasate pasealekua 33  
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76





## bote prontuen

Eider Zabala &gt; Oinesku zentroko arduraduna

**"Bizkarreko arazoekin etortzen da jendea"**

J.ZABALA - M.BITERI &gt; ARRASATE

Eider Zabala fisioterapeuta eta osteopatak Oinesku zentroa zabaldu zuen urtarrilean, Idurre Osa podologoarekin batera. Harekin egon gara.

**Zergatik zabaldu zenuten zentro berria?**

Azken sei urteetan Donostia inguruan bizi eta lan egin dut; gogoan nuen Arrasatera bueltatu eta nire kontsulta irekitzeko. Idurrerekin zabalteko aukera sortu zitzaidan eta aurrera egin genuen.

**Nondik dator zentroaren izena?**

Oin, podologia zerbitzuagatik eta esku, nire tratamenduetan eskuekin lan egiteko erak duen garrantziagatik. Hitz joko polita iruditu zitzaigun.

**Eskaintzen dituzun zerbitzuetatik zein da jendeak gehien eskatzen duena?**

Normalean ez dute gauza konkretu bat eskatzen; min edo arazo batekin etortzen dira eta erabakitzen dut adin, min mota eta lesioaren arabera ze terapia egin: osteopatia, masajea, RPGa, elektroterapia, *kinesio-taping*-a, terapia kraneo-sakrala...



Egun bizi garen estres garai honetan fisioterapia-osteopatia saio bat garrantzitsua izan daiteke? Zein arazoekin joaten da jendea?

Bai, hala da. Egun, nahiko kalte egiten diogu gorputzari, postura txarrekin, hartzen ditugun pisuekin edo egiten ditugun mugimendu errepikakorrek. Horri estresa gehitzen badiogu, kaltea eta, beraz, mina sentitzeko posibilitatea handitu egiten da, eta, ondorioz, tratamenduak garrantzi handiagoa hartzen du.

Bereziki bizkarreko arazoekin etortzen da jendea, lesio bat dutelako, baina baita lesiorik izan gabe kontraktura muskularrak dituztelako ere.

**Zer da zure lanak duen gauzarik onena eta txarrena?**

Oinena, jendearekin sortzen den hartu-eman eta lanarekin mina kendu eta pertsona horri bizi kalitatea hobetzen diozula ikustea. Txarrena, mina erabat kentzea lortzen ez duzunean; nahi izanda ere ez baita beti asmatzen, eta gauza batzuk ez daude gure esku egoten.

## bere ustez



Oihan Zubizarreta

**Mozorroak, zomorroak eta kanpai(n)ak**

**K**arnabalak igarota, mozorroak armairuetan sartzeko ordua iritsi da. Baina errealitateak fikzioa gainditzen du gurean, haragia bezain gordin, benetan karnala gure karnabala! Askotan mozorroekin estali edo disimulatu ezin dena.

Egiak gezurrez mozorrotzeko abilezia galanta politikari hauena! Pasa den larunbatekoa horren lekuko. Herriarrek "Ongi etorri, Amaia (eta Amaiaur)!" zioten bitartean, zomorroak batu zitzaizkien mozorroei. *Hay solución.*

**"Baina kanpaina igandean ere ez da amaituko. Aldaketa badator, 'haz que suceda'"**

Bitartean mozorroak zomorroen konponbide. Independetez beteriko menpeko Herri bat salgai. Eta herritarrek mozorro gabe, politikariak haienak noiz kenduko zain. *Yes we can.* Saldu beharrekoa saldu dute.

Baina kanpaina igandean ere ez da amaituko. Aldaketa badator, *haz que suceda.* Drama honen kapitulu berriak idatzita baitaude. *No pasa nada*, orain inoiz baino gehiago. Betiko zomorroak eta haien mozorroak. Demokraziaren aratustelari kiratsa dario... Kanpai(n)a joaz ari dira, herritarroki adarra joaz... Eta inor ez dadila engaina, igandean ere mozorroekin segiko baitute... herritarrek urrezko kanpai(n)ak entzunarazi arte.

## txutxu-mutxua

**Krisi garaian gaudela kontuan hartuta, krisialdia amaitu arte denda itxita Arrasaten**

*Denbora bat itxita. Krisiaren osterarte.* Horixe irakurri dugu Arrasateko Badabil dendan zintzilikatu duten ondoko irudiko kartel horretan. Dendako pertsiara itxita aurkitu dugu, eta hala egongo da denboraldi batean, behintzat. Ekonomia-krisiaren aurrean askotariko neurriak hartzen dabilta han eta hemen. Bada, ikusten duzuen moduan, tardean izan da egoera hau gainditu arte atea ixtea hobe izango dela pentsatu duenik ere. Denda ondotik pasatzen diren oinezkoek harriduraz begiratu diote kartelari, broma bat balitz bezala, baina egiaztatu egin dute egia dela kartelak dioena.




JASONE ZABALA

**db** KONTRATAK  
**IRYROK S.L.**  
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa  
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14  
ARRASATE

**PUB  
HAIZEA**



*Lore*

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10  
Tel.: 943 79 52 50





Foxy Boxxi talde arrasatearra jo eta ke dabil azkenaldian. Biharko Fox Pelin izena hartu dute, eta Led Zeppelin bertsioak joko dituzte.

GOIENKARIA

MUSIKA GIDA

## Anarik joko du gaur aurkezpen ekitaldian

2009ko musika gida Kulturaten, BAZen eta Gazte bulegoan eskura daiteke

J.B. > ARRASATE

Herritarrei musika gomendatzea eta talde berriak ezagutaraztea helburu duen aurten go musika gida kalean dago dagoeneko. Nahi duenak gida Kulturaten, BAZen eta Gazte Bulegoan eskura dezakeen arren, gaur izango da aurkezpen ekitaldia, Kulturateko areto nagusian, 20:00etan.

ANARIREN EMANALDIA

Zer hobeto musika gida zuzeneko musikaz aurkeztea baino. Hala, gidaren xehetasun guztiak ezagutu aurretik gerturaten denak Anariren kontzertuaz gozatzeko aukera izango du. Rocka eta folka uztartzen ditu batez ere, eta musika munduan esperientzia handia duen emakumea da -12 urte daroa musika egiten-, ahots sakona duena. Gainera, atzean izango duen taldearekin goi mailako emanaldia izango dela bermatuta dago.

> MUSIKA

### Kontzertuak Gure Leku eta Ekaitz tabernetan

Aste bukaera honetan protagonismo berezia izango du musikak Arrasaten: zuzeneko musika izango da gaztetxean, 3. 60 aretoan eta Kulturaten. Hori gutxi balitz, herriko tabernetan ere izango da musika eskaintza berezia. Hala, gaur Oñatiko Ez taldeak Ekaitz tabernan joko du, 18:00etan. Eta domekan, emanaldi akustikoa izango da Gure Leku tabernan, Nerea eta Beñat musikarien eskutik.

MUSIKA > BERTSIOEN JAIA

# Estilo askotariko kanturik onenak 'etxeko' erara, gaztetxean

Bertsioen jaia izango da bihar gaztetxean, 17:30ean hasita; 12 talde eta lau DJk hartuko dute parte

Herriko musikari eta musikazaleek antolatuko dute 'Aurrera begira, bertsioz bertsio' jaia

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Arrasateko gaztetxeak beste musika maratoni bat biziko du aste bukaeran. Otsailaren 13an eta 14an *Holidays in Bardulia* punk-oi! jaialdiak Gipuzkoako 13 talde ekarri zituen, eta bihar, bertsioen jaia dela-eta, Arrasateko eta inguruetako 12 talde igozko dira gaztetxeke agertokira.

Herriko hainbat musikari eta musikazalek antolatuko dute jaialdia. *Aurrera begira, bertsioz bertsio* izenarekin bataiatu dute eta,

beraz, ez da nahastu behar orain dela urte batzuk herrian hain arrakastatsua izan ziren *70eko hamarkadako jaia* izeneko festaren bi edizioekin.

HAMARKADA 'MUGARIK' EZ

Jaialdi hartan herriko hainbat taldek 1970eko hamarkada ezin emankorragoak eman dituen musika taldeen bertsioak jotzen zituzten. Bihar, ordea, ez da hamarkada *mugarik* izango, eta lehengo zein oraingo talde handien kantu onenak entzun ahaliko dira gaztetxean. Zuzenean, eta talde bakoitzaren ukituekin; hau da, *etxeko* erara.

Hori bai, antolatzailuek gogora ekarri dute *70eko hamarkadako jaia*, eta festa haren "arima berreskuratutako" antolatuko dute biharko bertsioen jaia.

BERTSIOEN MARATOIA

Maratoia 17:30ean hasiko da eta ez da goizeko ordu txikiak arte amaituko: talde bakoitzak 45 minutuko emanaldia eskainiko du. 21:30ean atsedendaldia egingo da afaltzeko, eta 22:30ean Deef-

Covers-ek (Des-kontrol) joko du. Gero, 12 taldeen emanaldiak amaitu ostean -ordurako goizeko lauak izango dira gutxienez-, DJen arteko lehia izango da: *DJ Moe* eta *DJ Pottoko* punk-oi! one-

na jartzeko *borrokatuko* dira eta *DJ Goro-k* eta *DJ Zaba-k*, ordea, rock-and-rolla jarriko dute. Ia gustu guztiak asetzeko moduko maratonia, hortaz. Sarreraren prezioa, sinbolikoa: bost euro.

PARTE HARTUKO DUTEN 12 TALDEAK

> DIRTY ACOUSTIC COVERS Sala, Alkorta eta Aginak distorsio bako punk-oi! musika eskainiko dute.

> INTERPRETE DESCONOCIDO Talde gaztea eta hasiberria.

> RABONES Ramonesen bertsioak, Arrasate eta Aretxabaletatik.

> FOX PELIN Foxy Boxxiren omenaldia Led Zeppelin taldeari.

> LOS CHULOPUTAS 1970eko hamarkadako punka eta rock-and-rolla, Oñatitik.

> XASTA AGAINST THE MACHINE Gasteizko Xasta taldeak Rage Against the Machine taldearen abestiak joko ditu.

> JUKE-CIFER Egun geldi dagoen Jukebox taldeak Gluecifer talde ezaguna gogoratuko du.

> ANGER SURRENDER Aspalditik lagunak diren Anger eta Never Surrenderen arteko fusio berezia.

> METAL SEX MACHINE Heavyaren ereserkiak ere entzun ahaliko dira.

> PSICOSONICOS The 5 Twisters eta Last Rebelseko musikariek The Sonicsen kantuak joko dituzte.

> LOS SEDUCTORES Kalitatezko rock lasaia, Cretinos taldearen eta zenbait lagunaren eskutik.

> DEEF-COVERS Des-kontrol ere izango da biharko bertsioen jaian.

**Monte**  
taberna

Maalako errabala 2  
Tel.: 943 79 20 56

UGARAN  
Jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK

**AGR**  
García Ripa

ZAHARBERRITZEAK  
PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta biltegia:  
Kale txiki 3 behe (Musakola)  
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

**IAMAIA** ANTZOKIA  
ARRASATE

Gaur otsailak 27  
00:00etatik aurrera

Carlitos  
Umirezko saio musikala



## ESKUBALOIA

## Ford Mugarrik Learen bisita bihar

Arrasatekoek garaipen bat behar dute liga lasai amaitzeko

A.B. &gt;ARAMAIO

Ford Mugarri Arrasatek Lea Corazonistas taldearen kontra jokatuko du bihar, zapatua, Iturripen (17:00). Orgazen mutilei ez zaie askorik gertzen kategoriari eusteko beharrezkoak diren 18-20 puntuak lortzeko -16 dituzte-, baina ez da komeni azken bost jardunaldietan lo geratzea: "Liga amaierak arraro samarrak izaten dira, atzean egoten diren taldeek erdian daudenean baino puntu gehiago eskuratzen dituztelako", adierazi du Orgazek.

Etxekoei, baina, luzea egin behar zaie liga, hamar-hamaika jokalarirekin jokatutako urte osoan.

## &gt; FUTBOLA

### Mondrak Bergara hartuko du erregional mailako derbian

Mondrak (16) eta Bergarak (49) erregional mailako derbia jokatuko dute asteburuan Mojategin. David Zaitegiren mutilak puntu beharrean daude, sailkapeneko azken lekuan daudelako Elgoibarraren 2-1 galdutako gero.

Manu Diazek zuzentzen duen Bergara, berriz, lider da, 14 puntuko aldearekin. Mahoneroek geroago eta gertuago dute helburua: preferentea.



Urtzi Amiano taldekideak animatzen, orain dela hamabost egun Zaragozan jokatutako kanporaketan.

ARIZMENDI

## SASKIBALOIA &gt; SERIES COLEGIALES

# Arizmendi Dragons gaur, ipar zonako finalean

Arizmendiko 'dragoiek' Iturripen jokatuko dute 17:30ean Loiolako San Inazioaren kontra

XABIER URTZELAI &gt; ARRASATE

Gaur, egubakoitza, Arizmendi Dragons eta Loiolako San Inazio taldeek Series Colegiales txapelketako ipar zonako finala jokatuko dute Iturripen (17:30). Horraino iristeko bi talde horiek bide luzea egin dute, eta kanporaketa asko gainditu. Hala, gaur nagusitzen den taldea apirileko lehen asteburuan Madrilen jokatuko duten Lauko Final handirako sailkatuko da.

Arizmendiko mutilek bide luzea egin dute gaurko finalera sailkatu ahal izateko. Hasteko, Series Colegiales barruan TAU Baskoniak antolatutako txapel-

ketan nagusitu ziren, eta ondoren Zaragozaraino joan ziren -orain dela bi aste-, hango ordezkari Escolapiosen kontra jokatzen (71-72). Zaragozan final estua jokatuko zuten, eta, harmailetako zaleak Escolapiosen alde bazeuden ere, presioa gaindituta Amianoren eta Gabilondoren mutilek -Aitor Rebalo, Martxel Balantzategi, Julen Kortabarria, Ander Atxa, Iker Barbero, Gorka Arejxolaleiba, Iñigo Merino eta Jon Altube- ipar zonako finalerako sailkatzea lortu zuten.

Oraingoan, baina, Arizmendikoek etxeko zaleen aurrean jokatuko dute; izan ere, Ariz-

mendikoen asmoa da gaur Iturripenko harmailak jendez betetzea: "Zaragozan 700 zale izan ziren harmailetan, eta gure asmoa da kopuru hori handitzea. Horretarako, ipar zonako finalaren aurretik LH eta DBH mailako ikasleendako saskibaloia partiduak antolatuko ditugu, motorrak berotzen joateko", adierazi du taldeko entrenatzaile Urtzi Amianok.

## OINTXE!-REKIN ELKARLANEAN

Arizmendikook Madrilen finalerako sailkatzea "sari galanta" izango litzateke: "Alde horretatik, eskerrak eman behar dizkiegu Ointxe! klubekoei, gazte hauek saskibaloian ondo egiten badute neurri handian Ointxe!-koek egin duten lanagatik delako".

## Zaldibar

## EMAITZAK

Betrayer-Paulaner Dribling	5-6
Cipris-Lasagabaster	1-0
Iritz Taberna-Iluntz	8-4
Equs-McAwenDauen	3-6
Dublin Irish Pub-Abokajarro	5-4
Bar Aldapa-HLB 108	3-4
Urza-Ekaitz Taberna	0-6
Iturriotz Taberna-Total Disaster	14-3
Saukelu Kabia-AT Celaya	2-4

## PARTIDUAK

Otsailak 28, zapatua	EPAILAK
10:00 Iturriotz Tab.-Saukelu Kabia	Dribling
11:00 Iluntz-Paulaner Drib.	Iturriotz
12:00 Urza-AT Celaya	Iluntz
13:00 Iritz Tab.-Abokajarro	AT Celaya
16:00 Bar Aldapa-Total Disaster	Equs
17:00 Equs-HLB 108	Bar Aldapa


Otsailak 29, domeka	EPAILAK
12:00 Betrayer-Lasagabaster	Cipris
13:00 Cipris-McAwenDauen	Lasagabaster

## SAILKAPENA

	P	J
1. McAwenDauen	33	12
2. AT Celaya	27	12
3. Paulaner Dribling	26	12
4. Lasagabaster	22	12
5. Cipris	22	12
6. Iritz Taberna	21	12
7. Saukelu Kabia	21	12
8. Ekaitz Taberna	21	12
9. Abokajarro	20	12
10. Dublin Irish Pub	20	12
11. Betrayer	18	12
12. HLB 108	17	12
13. Iluntz	17	12
14. Iturriotz Taberna	10	12
15. Equs	8	12
16. Bar Aldapa	7	12
17. Urza	6	12
18. Total Disaster	0	12

### Erdialdean daudenen borroka

Aurrean dauden taldeek ez dute arazorik izango hurrengo faserako sailkatzeko, eta, oraindik hainbat jardunaldi geratzen badira ere, erdialdean daudenen arteko lehiak erabakiko dute zeintzuk geratuko diren kanpoan. Bihar, lehia horretan dabiltzan Iritz eta Abokajarro izango dira aurrez aurre (13:00).



# URONDO

Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismok
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76



INGURUMENA > BASOAREN ASTEA

# Basoaren Astean pagadiari egingo diote arretoa berezia aurten

Domekan hasi eta martxoaren 7ra arte Zuhaitz Eguna eta hitzaldiak egongo dira

Herriko landaretzaren gaineko azterketa egin dute EHUKo ikerlariek: 866 espezie daude

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Udaleko Ingurumen batzordeak Basoaren Astea antolatu du. Etzi, domeka, hasi eta martxoaren 7ra arte askotariko ekitaldiak egongo dira. Hain justu, prentsaurrekoan aurkeztu dituzte asteon ekitaldiok Mikel Etxaniz Ingurumen zinegotziak, Naiara Corcuera Ingurumen teknikariak eta Maitane Arizabaletak, Usondo parkeko zuhaitziari buruzko liburuxkaren egileak.

Basoaren Asteak urteroko hitzorduak eta berrikuntzak ere izango ditu, guztiak ideia beraren bueltan antolatutakoak: "Ingurumenarekiko sentsibilizazioa bultzatzea", Mikel Etxaniz Ingurumen zinegotziaren esanetan. Urteroko hitzorduei dagokienez, martxoaren 7an, zapatua, egingo dira Zuhaitz Egunaren barruan feria eta landaketa. Eta egun berean zuhaitz azoka ere egongo da. San Martin plazan 15 bat saltzaille batuko dira.

## PAGO LANDAKETA

Pagoa da aurten landatuko den espeziea. Gorlan egingo da landaketa, Askagainen. 17.000 metro koadroko lursailean 1.400 pago eta pagadia osatzen duten beste 350 landare -gorostia, erratza, hagina...- landatuko dituzte. Hain justu, martxoaren 7an egingo da landaketa sinbolikoa. 09:30ean abiatuko da autobusa Ibargarai-ko geltokitik eta bertaratzen diren guztiek ogitartekoa izango dute hamarretakoa egiteko. 80 bat zuhaitz landatuko dituzte.



Naiara Corcuera, Mikel Etxaniz eta Maitane Arizabaleta aurkezpenean.

MONIKA BELASTEGI

## Ekitaldien egitaraua

### Martxoak 1, domeka

18:00: Gazteendako Ni basatia naiz bideo emanaldia Zabalotegin.

### Martxoak 3, martitzena

19:00: Javier Loidi EHUKo katedradunak egingo du Bergarako landaretza eta paisaiaren ikerketaren ondorioak delako hitzaldia, kultura etxean.

### Martxoak 5, eguena

Usondo parkeko zuhaitzia ezagutzeko bisita gidatuak.

### Martxoak 7, zapatua

09:00: Ordu horretan hasita zuhaitz feria egongo da San Martin plazan. Landare erakusketa eta salmenta izango dira.  
09:30: Zuhaitz Egunaren barruan, Gorlan pagoak landatuko dituzte. Ibargarai-ko geltokitik abiatuko da autobusa.

Pagadiaren balio ekologikoari dagokionez, berriz, handia da; ez bakarrik landaretzaren aldetik, baita animalien aldetik ere.

## LANDARETZAREN IKERKETA

### Herriko landaretzari buruzko diagnostikoa egin dute

Landaretzaren eta paisaiaren azterlana egin du Euskoiker Fundazioak (EHU), Bergarako Udalak hala eskatuta. Hain justu, zortzi ikerlarik osatu dituzte lanak; besteak beste, Javier Loidi bergararrak.

Azterketa hori egiteko informazio iturri ugari erabili dute; esaterako, herritarrek egindako landare bildumak eta, noski, *in situ* egindako 2.962 behaketatan jasotako informazioa. Horrekin guztiarekin lanak deskribatzen du herrian aurkitutako 866 espezieta-ko bakoitza -111 familia-. Horieta-rik bederatzia babestuta daude eta lau interes berezidunak dira; nartzisioa, esaterako. Landaretzaren diagnostiko sakona egiteaz gain, kontserbaziorako proposamenak ere batzen ditu.

## USONDO PARKEA

Berrikuntza gisa, Usondoko parkeko zuhaitz eta zuhaixkak delako liburuxka kaleratu du Ingurumen batzordeak. Maitane Ari-

zabaleta bergararrak egindako lana da, eta, egileak aurkezpenean azaldu zuen moduan, 34 espezie batu ditu, bakoitzaren azalpen, irudi, erabilpen eta hainbat bitxikeriarekin, guztia oso modu didaktikoan. Arizabaletak haxe gehitu zuen: "Bergara oso herri aberatsa da eta daukagun hori mantentzeko ezagutu egin behar da lehenengo, gero maitatzera iristeko". Liburuxka eskuratu ahal izango da Turismo Bulegoan eta ikastetxeetan ere banatuko dute. Bestalde, Usondon bisita gidatuak ere egingo dituzte.

## LANDARETZAREN AZTERKETA

Bergarako landaretza eta paisaiaren ikerketaren ondorioak delako lana jaso berri du Udalak. Euskal Herriko Unibertsitateko Euskoiker Fundazioak egin du, eta, herriko landaretzaren gaineko azterketa sakona egiteaz gain, kontserbaziorako proposamenak ere ematen ditu, Naiara Corcuera Ingurumen teknikariak azalduetako moduan. Gehitu zuenez, herriko landaretza "oso aberatsa baina ezezaguna ere bada. Lan horrekin sentsibilizazioa jorrateaz gain, balioko digu kontserbaziorako; esaterako, herriko gune baten lanak egin behar direnean, jakingo dugu nola jokatu".

## bere ustez



Jose Angel Mikeo

## Munduaren harridura handia

Krisia aipu bakarra izan daitekeen kanpaina honetan dagoeneko ez dakit non geratu diren burujabetasuna berreskuratzeko planak. Gai horretaz ezer esaterik ere gaizki ikusita dagoen susmoa daukat, gainera.

Ahalegin hutsak urte hauetakoak, ezerezean geratu direnak, aurrez jakinean gain inora ez zihoztenak zirela, ilusio ahitzale, beti tope berbera aurkituko baitute eta. Legealdi berri honen hirugarren urtean beteko dira bostehun urte azken Nafa-

## "500 urte, zifra borobila besterik ez da. 500 ahalegin hutsen adierazle"

rroa hura menperatu zutenetik. Egia esan, etxean jaso dudana nafartasunetik, mutikotan, 2012rako Nafarroa berreraikia aske irudikatzen nuen. 500 urte, zifra borobila besterik ez da. 500 ahalegin hutsen adierazle.

Mendeurrena helduko da eta menperatzaileen ospakizun oparora biziko dugu, azken urteetako dinamika azken mendeetako berdina baitira, menperatzaileak eta eraginkorak. Alabaina, munduaren harridura izateko zerbait benetakoa sortuko bada Euskal Herri honentzat, nazio ikuspegiarekin, Iruñetik sortuko da. Beste bideak ezereza eroango gaituenak izango dira. Krisi ekonomikoa pasako da 2012rako. Krisi politikoa gaintzeko ez litzateke urte muga txarra.

**DRAGON ORIENTAL**  
**Ja-retxea**

**Etxera eramaten dugu**  
Edaria, postrea eta tabakoa eramaten dugu

Zerbitzua Bergaran + 1,80 €  
Inguruetara + 2 €

943 25 06 77

Fraiskozuri plaza 7 (Frontoi parean)  
BERGARA

trinmer telecomunicaciones

**Bergaran ere badago Lurreko Telebista Digitala!**

Kontsulta iezaguzu eta soluzio onena eskainiko dizugu, ez itxaron gehiago eta alda zaitez TB digitalera.

**TRINMER 20 urte antenetan**  
LTDerako aurrekontuak. Protokoloa eta Boletina barne

TRINMER Telekomunikazioen instalatzaile ofiziala 1305 Egogain Kalea 2-Bac 20600 EIBAR  
Tel.: 943 12 73 50 - 943 10 89 43 | Faxe: 943 20 73 60  
antenas@trinmer.com | www.trinmer.com

**Kabutzia**

**ARRAINDEGIA**

Fraiskozuri 6  
BERGARA  
Tel.: 943 76 56 62



JENDARTEA &gt; KANPAINA

# Txakurrendako komunak jarriko dituzte herriko sei lekutan

Txakurrak eremu berdeetan ibiltzea debekatu egingo dute, "baina jabeei alternatibak emanda"



Horrelakoxeak izango dira jarriko dituzten gunek. 25 bat metro koadro eta itxiak izango dira.

GOIENKARIA

MONIKA BELASTEGI &gt; BERGARA

Txakurrek eginbeharrak egiteko gune bereziak jarriko ditu Udalak herriko sei lekutan: Magdalena plazan; Bolun (Azpeitxi jate-txe ostean); San Lorentzon; Boni Laskurainen (hilerri ondoan); Kataibia ondoko bidegorrian eta Artzamendin. Aurrerago Labegaraian –Amilotx aurreko berdegunean– eta Martokon –berdegune berrian– ere jarriko dituzte.

Enara Minguez zinegotziaren esanetan, "Txakurrek eremu berdeetan kaka egitea higie arazoa bilakatu da. Horregatik, debekatu egingo dugu txakurra sartzea lorategietan eta parkeetan: Errotalden, Errekalden, Usondon eta Arrizurin". Debekuarekin baera alternatiba ere eman nahi izan die txakur jabeei. "Horregatik, hain zuzen, jarriko ditugu gune horiek", gehitu du Minguezek.

EREMU ITXIAK

Guneok 25 bat metro karratuko eremu itxiak izango dira eta harez beteak. Txakurrek eginbeharrak egin eta gero, jabeek batu egin beharko dute eta ondoan egongo den zakarrontzi berezi batera bota. Usainik botatzen ez duten zakarrontzi bereziak dira eta poltsak ere izango dituzte.

Horrez gain, guneon ondoan erabileraren gaineko informazio

panelak ere egongo dira. Bestalde, garbitzaileak ere handik pasako dira gunea garbi egon dadin.

Guneok egokitze lanen baldintza-zerrenda onartu zuen udalbatzak astelehenean, aho batez, eta aurrekontua 29.400 eurokoa da.

KANPAINA ZABALAGOA

Txakurrendako gune horiek egokitzeaz gain, txakur kaken arazoaz jabeazteko sentsibiliza-

zio kanpaina zabalagoa abiaraziko du Udala: gaur egun errol-datuta dauden 1.900 txakurren jabeei gutuna bidaliko zaie etxera, lorategi eta parkeetan debeku seinaleak jarriko dituzte eta udaltzainek zaintza lanak ere egingo dituzte, txakurren gaineko arautegia bete dadin. Horrekin lotuta, Udaletik jakinarazi dute beharrezkoa denean isunak ere jarriko dituztela.

**MUSIKA EKITALDIAK**

**MUSIKA ESKOLA-ren KALEJIRA**

- Banda Gaztea: 11.30-13.00.
- Beste talde bat: 18.00-19.00h.

• San Martin Plazan. • 17.00-19.00.

AZOKA TXIKIA  
KALEAN

BEDELKAR-eko  
merkatariak KALEAN

larunbata,  
**martxoak**

7

AZKEN  
AUKERA  
BEHERAPENAZ  
gozatzeko

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA SAILA  
Hikuntza Politikako Salburuzdeta

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística

EUSKARA &gt; UDAL EUSKALTEGIA

## Dendariendako ikastaroan eman daiteke izena oraindik

M.B. &gt; BERGARA

Udal Euskaltegian ikastaro bi hasi dira otsailaren: dendariendako ikastaroa eta Bergarako euskararen gainekoa, hain justu ere. Bada, Udal Euskaltegitik jakinarazi dutenez, bietan ala bietan izena emateko aukera dago oraindik.

Dendari eta ostalariei zuzendutako ikastaroa otsailaren 12an hasi zen eta ekainaren 5ean bukatuko da. Eskolak izaten dira martitzen, eguen eta egubakoitzetan,

15:00-16:30 ordutegian. Prezioari dagokionez, 30 euro dira.

HERRIKO EUSKARA, DOAN

Begarako euskarari dagokionez, otsailaren 20an hasi zen ikastaroa eta hamar ordukoa izango da, doan. Eskolak dira egubakoitzetan, 17:30-19:30 ordutegian. *Gehixago eta hobeto* programaren barruan antolatu dute eta helburua da herriko euskalkian egiten diren ohiko akatsak zuzentzea eta euskalkia aberastea.

### oharrak

UDAL ZERGA

> **Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko epea zabalik dago**

Zergaren 2009ko errolda onartu du Udalak. Zerga ordaintzeko borondatezko epea hasiko da martxoaren 2an eta bukatuko da maiatzaren 29an. Egun horretatik aurrera errekararekin eskatuko dute.

DEIALDIA

> **Erramu-zapatuan Seminarioko talo postua hartzeko deialdia egin du Udalak**

Begarako irabazi asmorik gabeko entitate edo elkarteek egin dezakete apirilaren 4an Seminarioko talo txosna hartzeko eskaria. Mugaeguna da martxoaren 11, 13:30ean. Eskaera eta baldintza orriak idazkaritzan har daitezke.

LOKALEN ZOZKETA

> **Etxebizitza erabilera izango duten lokalak zozkatuko ditu Udalak**

Interesatuta dagoenak izena eman beharko du Bulego Teknikoan (2. solairuan). Hala, dagoneko badagoen interesdunen zerrendara atxikiko dute. Betiere, gutxienez azkeneko urtebetean Bergaran erroldatua egon beharko du interesdunak eta ez du etxebizitzarik jabetzan izan behar.

KINTADA

> **1974koek kinto bazkaria egingo dute martxoaren 7an**

Agorrosinen egingo dute. Joan nahi duenak 30 euro sartu beharko ditu Euskadiko Kutxan: 30350009170090083732. Izena emateko azken eguna da martxoaren 2a. Bazkari egunerako hitzordua egin dute 12:30ean, Pol-Polen.



ANTZERKI-IPUINA > ZABALOTEGIN

# Irla batean aurkitutako 1.728 animalia ezberdinen kontuak bihar Zabalotegin

Gorringo taldeak aurkeztutako antzerki-ipuinen bi emanaldi egingo dituzte: 16:30ean eta 18:30ean; sarrerak 3 eurotan daude salgai

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA  
Bihar izango da emanaldia, otsailak 28, Zabalotegi aretoan. Sarre-  
ra 3 euro kostako da eta bi eman-  
aldi emango dituzte: 16:30ean eta  
18:30ean. Gorringo taldeak aur-  
keztuta, *1.728 animalia kontu*  
antzerki-ipuina kontaketa saioa  
izango da etxeko txikienentzat.



Isabel Agirresarobe eta Iñaki Agirrezabal dira antzezlaneko aktoreak.

GORRINGO TALDEA

## IRLA BATEKO ANIMALIAK

Bittori maistra eta Revillod jaunak elkarrekin egindako bidaia baten aurkitutakoak erakutsiko dituzte Zabalotegin. 12 animalia omen zeuden irla batera joan ziren; baina han 1.728 aurkitu zituzten, denak desberdinak. Animalia horietako bakoitzaren isto-

ria jaso, eta herririk herri dabil-tza kontatzen. Umore, asmakeria eta irudimenez betetako kontaketa izango da Gorringo taldeak aurkeztuko duena. Esan daiteke egiak gezur, eta gezurrak egi bihurtzen dituen antzerki horietakoa dela.

## AKTOREAK

Isabel Agirresarobe eta Iñaki Agirrezabal dira antzezlaneko aktoreak. Agirresarobek, bakarkako saioez gain, Gorringo taldearen kontaketa gehienetan parte hartu du. Mattin ilustratzailearekin batera *Irudipuinak* egin zuen,

zuzeneko marrazkigintza eta narrazioak lotzen dituen saioa. Agirrezabal, ostera, Gorringo taldearen ipuin kontaketa emanaldiak prestatzen dabil 1999a ezke-ro. Gainera, antzerkirako aktore eta eszenografia lanak ere egin ditu Agirrezabalek.

IPUINAK > HELDUENTZAKO

# Antton Irustak helduak esnatuko ditu ipuinen bitartez

A.E. > BERGARA

Antton Irusta ipuin kontalaria *Lau haizetara kontalari* helduentzako ipuin kontaketa saioa egingo du datorren egunean, martxoak 5, Zabalotegi aretoan. 19:00etan izango da Zabalotegi aretoko saioa.

## NAGUSIAK IRATZARRI

Ipuinak umeak lokartzeko eta helduak esnatzeko direla diote. Bada, hori izango da Irustaren lana datorren egunean Zabalotegi aretoan.

*Eguzkiaren semea, Iasaren istorioa, Berberea eta arrotza,*

*Katxinen ibilerak, Luki Barrabasa...* izango dira entzungai egunean. Munduko ipuinak izango dira.

"Euskal Herrian bizi zen gure laguna, berbalapiko kuttuna" dela esaten du Irustak. Hala, behin mundua ezagutu behar

zuela eta Euskal Herriatik alde egin zigun mutikoaren istorioak kontatuko dizkigu. Nondik nora ibili zen eta bidaian zehar ikusitakoak azalduko dizkigu ipuin eta abenturaren bitartez.

## IPUIN KONTALARIA

Antton Irusta ipuin kontalaria dugu. Horrekin batera, irakasle eta idazle ere bai, baina beti ipuingintzaren inguruan. Ipuinetan mundua ikusteko modu bat dago, herri baten kultura eta hizkuntzari lotuta, eta gaur egun herri-tradizioko *corpus* hori eskola umeengana eroraten dauka ardurarik handiena Anttonek. Hainbat mintegi eta eskola eman ditu, ikerketa lagun, eskolan hori sustertzeko metodologia lantzeko. Egun, ipuin kontalariez eta kontaktaz doktoretza tesia egiten dabil Irusta. 2000. urtean argitaratu zuen *Lau haizetara kontari*, Desclee de Brouwer etxearekin.

> ERAKUSKETA

## 'Nafarroa, euskal Estatu' erakusketa udaletxean

Eguaztenean zabaldu zuten udaletxeko osoko bilkuren aretoan Nabarralde elkarteak antolatutako *Nafarroa, euskal Estatu* erakusketa. Erakusketaren helburua Euskal Herriko historia ezagutzera ematea da. Estatu, Subiranotasuna eta independentzia landuko ditu erakusketak, besteak beste. Osoko bilkuren aretoan egongo da ikusgai martxoaren 15era arte. Gainera, hainbat hitzaldi antolatutako ditu Nabarralde.

> LEHIAKETA

## Berrituta dator aurtengo Koldo Eleizalde lehiaketa

Udaleko Euskara batzordeak Koldo Eleizalde lehiaketaren XIV. edizioa antolatuko du. Aurten, gainera, ohikoez gain genero berria gehitu dute: txiste eta pasadizo generoa, hain zuzen. Koldo Eleizalde lehiaketan parte hartu ahal izango dute Bergaran jaio, bizi edo lan egiten duen edozeinek, eta lanek orijinalak izan beharko dute. Lanak aurkezteko azken eguna apirilaren 22a izango da.

> JAM ARETOA

## Domeka arratsaldean kontzertua izango da Jam aretoan

Domekan, martxoaren leian, kontzertua egingo dute Jam aretoan Deathstars, Sonic Syndicate eta Waldheim taldeek. Kontzertua 20:30ean hasiko da eta sarrerak salgai daude dagoeneko 20 eurotan. Egunean bertan 23 eurotan egongo dira salgai leihatilan.

*Night electric* lana aurkeztuko du Bergaran Deathstars taldeak. Esan beharra dago Bartzelonan, Madrilan eta Alacanten joko duela Deathstars taldeak.

> IKASTAROK

## Ikastaro berrietarako izen ematea dagoeneko zabalik

Udaleko Kultura Sailak *Break dance, Eskulanak larrua, Zeruko izarrak* ezagutzen eta *Sendabelarrak* ikastaroak antolatutako apiril, maiatz eta ekainerako. Bergaran errodatuta daudeneko 15 euro ordaindu beharko dituzte eta gainontzekoek 20 euro. Kultura etxean eman behar da izena martxoaren 28a baino lehen. Izena ematen dutenen artean zozketa egingo da, eta lehentasuna izango dute bergarrek.

## HURBIL belar-dendak eta NOVA LINE metodoak

dietistarekin elkarrizketa batera gonbidatzen zaituzte.

TXARTEL HAU ERAMANEZ GERO, portzentajeen analisisia DOAN egingo dizute.

Zure beharretara egokitzen den **nutrizio PLANA** eskaintzen dizugu. Zure **koipe, ur eta masa muskularraren** portzentajeak neurtzea ahalbidetzen digun teknologia aurreratuena erabiliko dugu, **nutrizio pauta pertsonalizatua** lortzeko.

Hemen aurkituko gaituzu:

**HURBIL**  
Domingo Irla z/g • BERGARA  
☎ 943 76 30 08

Pisua eta bolumena soberan badituzu...



falta zaizu

Pisuaren kontrolean arrakasta ziurtatuta duzu!



**BERGARA**  
**MARMOLERIA**  
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA  
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47  
Faxa: 943 76 04 77



FUTBOLA &gt; LEHENENGO ERREGIONALA

# Bergarak hirugarren partidua jarraian irabazi nahi du domekan

Manu Diazen taldeak Mondraren aurka jokatu du Mojategi futbol zelaian domekan, 16:30ean

Orain arteko maila mantenduz gero, igoera lortuko dutela dio Bergarako entrenatzaileak

MIREIA BIKUÑA &gt; BERGARA

Bolada onean dago Bergara futbol taldea. Jokaturako azken bi partidua (Aretxabaleta eta Tolosa) irabazi dituzte eta domekan hiru puntu gehiago batu nahi dituzte. "Oier Loliola izan ezik -min hartu zuen Tolosaren aurka-, jokalariek guztiak daude jokatze moduan. Domekarako dugun helburua hiru puntuak lortzea da", dio Manu Diaz entrenatzaileak.

Mojategiko partiduen gainean dio "gogorra" izango dela: "Mondra sailkapeneko zuloan dago eta puntuak beharrezkoak ditu. Guretzat ere puntu inportanteak dira. Horregatik guztiatik, partidua gogorra izango da". Gaineratu du liga bukatzeko falta diren norgehiagoka guztiak

izango direla parekatuak: "Taldea guztiok helburuak bete barik ditugu, batzuk igotzeko eta beste batzuk mantentzeko. Partidu guztietan dago zerbait jokoan, eta horrek bizitasuna ematen dio mailari. Ikusi, bestela, Espanyolek Bartzelona nola menderatu zuen...".

#### ALDEARI EUTSI

Denboraldi bukaerako helburuari kasu egin barik, partiduz partidu antolatu dute urtea: "Mutrikurekin eta Lagun Onakekin dugun aldeari eutsi behar diogu. Azpeitiko taldeak bi partidua gutxiago jokatu ditu. Bi irabazten badituzte, bederatzita puntura jarriko dira sailkapenean. Alde hori mantendu behar dugu aurrerantz".



Bergarako Nafarrate jokalaria baloiarekin, Otero begira duela.

GOIENKARIA

Aldagelan *preferente* hitza erabiltzen duten galdetu diogu: "Ez gara horretan pentsatzen hasi. Orain arteko maila mantentzen

badugu, helburua lortuko dugu. Baina ez gara kontuak egiten hasi, egin dugun bakoitzean galdetu dugu eta".

ESKUBALOIA &gt; GIPUZKOAKO TXAPELKETA

## Igoera jokoan duen Usurbili egingo dio bisita Bergarak

Josetxo Muniategiren taldea kopa txapelketa prestatzen hasiko da hurrengo lau partiduetan

M.B. &gt; BERGARA

Gipuzkoako eskubaloia txapelketa azken fasean sartu da. Goiko postuetan dauden taldeek igoera postuetan sartu gura dute, eta behekoek maila mantendu. Hurrengo urtean lehen mailan jokatu gura duen Usurbilen aurka jokatu dute Soraluze BKE taldeko mutilek domekan. "Ez dugu ezer galtzeko. Euren partidua irabazten badute, igoera jokatze txartela eskuratuko dute.

Partidu gogorra izango da, baina gure jokoa egiten ahalegindu behar dugu", dio Muniategi.

#### KOPA TXAPELKETARI BEGIRA

Aurreko aste bukaeran partidu eroso jokatu ondoren, geratzen diren lau partiduetarako helburu bakarra dute mahoneroek: "Kopa txapelketarako gure jokoa berreskuratu behar dugu, sei hilabetean oso irregularrak izan gara eta".

&gt; ZIKLOTURISMOA

### Zikloturistek urteko lehen irteera egingo dute domekan

Bergarako zikloturista taldeak denboraldia hasiko du domekan. Hain zuzen, lehen irteera egingo dute. Herriko plazan elkartuko dira 09:00etan, eta tropelean joango dira Dorletaraino. "Denboraldia ondo hasiteko, urtero egiten dugun moduan lore sorta eroango diogu Dorletako Amari", esan digu antolaketa taldeko Jesus Mari Olabarriak.

Eskaintza egin ondoren, tropelean berriro ere Bergarara itzuliko dira. Eguna borobiltzeko hamaiketako egingo dute guztiak Domingo Irala kaleko Zuloa elkartearen zikloturista guztiak daude gonbidatuta.

&gt; SASKIBALOIA

### Atsedenen ondoren, saskibaloia taldeak berriro lehiara

Aratusteen aitzakian talde askok atsedeen hartu zuten aurreko aste bukaeran, tartean Bergarako saskibaloia taldeak. Opor egunak bukatuta, baina, aste bukaeran hasiko dituzte berriro txapelketak. Bergarako senior mailako saskibaloia taldeak etxean jokatu du zapatuan, 19:00etan. Labe-garaietan jokatu den norgehiagokan, Oiartzungo Saskilagunak taldearen bisita jasoko dute bergarrek.

Unai Iñarraren taldeak indartsu jokatu du partidua irabazteko. Harmailetan zaleen animuak beharko dituzte Bergarako jokalariek.

## labegaraieta

### PARTIDUAK

Martxoak 1, domeka	Epaileak
09:30 Niu Tim-Errotagain	Diego Valor
10:30 Diego Valor-Niu Tim	Errotagain
11:30 Belengua-Irish Pub	Niu Tim
12:30 Irubide-Los Latinos	Belengua
16:00 Los Blus-Akabaok	Komando Pip.
17:00 Komando Pip.-Monte	Akabaok
18:00 Carboneros-Diego Valor	Monte
19:00 Internacional-Zigalikatis	Carboneros

### SAILKAPENA

	P	J
1. UD Akabaok	51	18
2. Carboneros	49	18
3. Errotagain	45	18
4. Zigalikatis	40	18
5. Los Latinos	32	18
6. Komando Piperrak	28	18
7. Niu Tim	22	17
8. Los Blus	22	18
9. Internacional	17	18
10. Belengua	17	18
11. Diego Valor	15	17
12. Irish Pub	14	18
13. Monte Taberna	7	18
14. Irubide Taberna	4	18

### GOLEGILEAK

	GOLAK
1. Asier Iturbe (Akabaok)	39
2. Aitor Garrido (Zigalikatis)	39
3. Alexander Pardo (Internacio.)	39
4. Jeronimo Barros (Los Latinos)	36
5. Gorka Olmedo (Carboneros)	34

### ATEZAIN ONENAK

	GOLAK
1. Mikel Varona (Carboneros)	35
2. J. Miguel Calle (Akabaok)	38
3. Igor Maniega (Errotagain)	39

### Atzeratutako partidua jokatu dituzte domekan

Niu Tim eta Diego Valor taldeek bina partidu jokatu dituzte domekan: aste bukaerako jardunaldiari dagokiona eta atzeratutako jardunaldiko. Domekako partidua bukatu ondoren, talde guztiak izango dituzte sailkapenean 19 partidu.

Ez dago aldaketarik sailkapenean. Akabaok, Carboneros eta Errotagain dira indartsuenak. Akabaok taldeak bi puntuko abantaila du Carboneros taldearekin. Txapelketa bukatzeko sei partidu falta dira, eta txapelketa edonor izan daiteke.



Gosari bereziak

09:00etatik zabalik!

Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

- Afariak
- Plater konbinatuak
- Ogitarkeak
- Hanburgesak
- Sandwichak
- Entsaladak

# BERGARA

## Margoak



Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara@bergaramargoak.com



nire bidaia hura

Pilar Iztueta

Namibia, Botswana eta Zimbabwe > 2006ko udan

# "Namibian Himba izeneko tribua dago eta artzaintzatik bizi dira"

JASONE ZABALA > BERGARA

Pilar Iztueta eta beste lau lagunek 2006ko udan *La ruta del Ocabango* deituriko ibilbidea egin zuten hiru astetan zehar; Namibia, Botswana eta Zimbabwe bisitatu zituzten 21 egunetan zehar eta bertako kulturak, paisaia..., ikusteko aukera ere izan zuten. Iztuetaekin egon gara bidaiaiko gorabeheren gainean hitz egiteko.



Pilar Iztueta.

Londresetik hasi zuten bidaia eta lehenik eta behin Namibiara joan ziren, Windhoek-era. Bertan prestatutako kamioi bat zain zeukaten: "Hainbat herrialdetako 16 pertsonen egin genuen bidaia; horretarako, prestatutako kamioi bat geneukan, sukaldari, gidari, laguntzaile eta itzultzaileekin", adierazi digu Iztuetak.

Kanpadendan egin zituzten hiru egun eta besteak hotelean; "oso ondo prestatuta daude eta antolaketa oso ona daukate turistendako". Namibian, Kalahari basamortuko dunak ikusi zituzten, "benetan izugarriak ziren; kolore gorrixkarekin; tenperatu-

rari dagokionez, gauez eguraldia asko jaisten zen eta zero azpitik ere egoten ginen askotan; egunez, berriz, 40-50 gradu inguru izaten genituen", aitortu digu Iztuetak. Janaria ere oso ona zela kontatu digu, Hego Afrikatik ekartzen zutelako: "Batez ere okela jaten genuen; Namibian Afrikako leku askotan bezala, ur gutxi dago eta jende gutxi bizi da."

**BERTAKO TRIBUA: HIMBA**

"Namibia lurralde zabala izanda ez da jende asko bizi, eta oraindik badaude bertan tribu batzuk; horien artean himba izeneko bat; artzaintzatik bizi dira, eta harritu egin gintuzten, inoiz ikusi gabe geundelako; supermerkatu erostetako egitera beraien jantziekin joaten dira eta goitik behera margotuta", esan digu.

Ondoren, Botswanara joan ziren. "Hemen krokodiloen abeletxe bat ikusi genuen". Egund gutxi egon ziren bertan. Bidaia Zimbawen amaitu zuten. Bertan ikusi zuten gauzarik ikusgarriena Victoria ur-jauzia izan zen: "Ur



Namibian ateratako argazkia; Kaprikornio tropikoan.



Himba tribuko emakume batekin.

jauzia ikusteko helikopteroan egin genuen bidaia". Bitxia zen jantziak saltzen zituzten tokietan ez zutela edari alkoholdukin saltzen: "Baina Errioxako ardoa topatu genuen bertan". Beste gauza bitxi bat Namibian zeuden *Ciudad de*

*espera* izeneko herrixkatxoak. "Txaboletan bizi ziren eta txabola bakoitzak zenbaki bat zeukan; ahal zenean txabolako zenbakia- ren ordena mantenduz etxe berri batzuk egiten zizkieten bertan bizi zirenei; horregatik izen hori".

**"Namibian, Kalahari basamortuko dunak izugarriak ziren, kolore gorrixkarekin"**

**"Zimbawen Victoria ur-jauzia ikusi genuen, benetan ikusgarria; helikopteroan ikusi genuen"**

Euskal Herriak behar duen  
**ALDAKETA**  
**BOZKATU**  
**EZKER**  
**ABERTZALEA**  
**URREZKO BOTOAK**





Metidas en harina antzezlan eskainiko du La Resistens taldeak martxoaren 11n.

GOIENKARIA

KULTURA &gt; ARKUPEKO MARTXOKO EGITARAUA

# Emakumea izango dute gogoan Arkupen

'Emakumearen hilabetea' izendatu dute martxoko egitaraua; erakusketa, ikus-entzunezkoak eta antzerkia emakumei eskainiko dizkiete

MIRARI ALTUBE &gt; ARETXABALETA

Emakumeen Nazioarteko Eguna martxoaren 8an ospatuko dela kontuan hartuta antolatuko dute Arkupeko egitaraua. *Emakumeak aniztasunean* erakusketak emango dio hasiera hilabeteari eta martxoaren 22a bitartean izango dira ikusgai emakumearen gaineko argazkiak. Ikus-

entzunezkoei dagokienez, *Kalean uso etxean* otso emango dute martxoaren 10ean eta *Mujeres en la diversidad* 17an. Eta martxoaren 11n, *Metidas en harina* antzerkia eskainiko du La Resistens antzerki taldeak.

Zineklubean botako dituzten hiru filmak ere emakumeen gainekoak izango dira: *Las mujeres de verdad tienen curvas*, martxoaren 5ean; *La boda de Tuya*, 12an; eta *¿Por qué las mujeres siempre queremos más?*, 26an.

KORRIKARI ESKAINITAKO TARTEAK

Martxoan, baina, emakumea ez da izango protagonista bakarra: Korrikak ere bere lekutxo izango du. Tuteran hasiko du ibilbidea 16. Korrikak martxoaren 25ean eta lekukoaren etorrera girotzen joateko hainbat ekital-

di izango dira gurean: Kukubiltxo taldearen eskutik *Dir Dir* emanaldia izango dute umeek, martxoaren 21ean eta Korrikaren gaineko ikus-entzunezkoa emango dute 25ean.

MUSIKA ETA IPUIN KONTAKETAK

Musikak ere izango du tartetxo Arkupe kultura etxean: martxoaren 18an txistu emanaldia eskainiko dute Leizarra musika eskolako kideek eta 24an, Urko Menaia kantautorea izango da.

Umeek, gainera, ipuin kontaketa bi izango dituzte: Maite Franco kontalariak eskainitakoak martxoaren 14an eta Vanessa Gonzalezek egingo duena, 28an.

Eta martxoaren 22tik aurrera Manolo Urtubi aretxabaletarraren argazkiak izango dira ikusgai erakusketa aretoan.

EUSKARA &gt; PLAZALAGUNA EGITASMOA

## Gurasoek euskaraz egiteko egitasmoa

Umeak plazan edo parkean jolasean dabiltzan bitartean, astean orubete euskaraz jardutea gurasoen artean da egitasmoaren helburua

M.A. &gt; ARETXABALETA

Plazalagun, parkelagun, guraso mintzalagun... mila izen emanda ere helburua bakarra da: euskaraz berba egiteko ohiturarik ez duten gurasoek -euskaldun berriak direlako, kosta egiten zaielako...- euskaraz egitea astean orubete beste guraso baten laguntzarekin.

Udalak eta euskaltegiak jarri dute abian egitasmoa. Hona eman dituzten hainbat arrazoi: ikasten dabiltzanek praktikatzeko aukera izan dezaten, euskaraz egiteko ohitura bultzatzeko, plazako eta parke-

ko gurasoen giroa euskalduntzeko, euskaraz ezer ez dakitena ikastera animatzeko, umeentzat eredu izateko...

Egitasmoa abian jartzeko euskaraz berba egin gura duten gurasoak behar dituzte, baina ohituraz euskaraz egiten dutenak ere bai, aurrekoekin egiteko. Argibide gehiago gura izanez gero edo egitasmoan parte hartzeko izena emateko, euskaltegira deitu behar da (943 79 21 68) edo mezu bat bidali helbide honetara: [guru@leintz.euskalnet.net](mailto:guru@leintz.euskalnet.net). Azken eguna martxoaren 11 da.



Hainbat guraso, parkean umeak jolasean dabiltzan bitartean.

M.A.

&gt; IPUIN KONTAKETA

### Oihulari Klown taldeak ipuin kontaketa saioa eskainiko die umei bihar, zapatua, liburutegian

Ipuinak kontatuko dituzte Oihulari Klown taldeko kideek umeendako bihar goizean (11:30) Arkupe kultura etxeko liburutegian. Debalde da saioa.

Zinemari dagokionez, *Crepúsculo* filma emango dute gaur (22:00) eta bihar (22:00). Stephenie Meyer idazlearen eleberrian oinarritutako filmak banpiroak ditu protagonista. Ume eta gazteek, ostera, *Una amistad inolvidable* izango dute domekan (17:00). Neska baten eta azeri baten arteko adiskidetasuna du gai filmak.

txaloak eta txistuak



JASONE ZABALA

## Bidegorriko hesi zatiak errekarra



Aretxabaletatik Arrasatera bidean dagoen bidegorriko hesi zatiak apurtuta agertu ziren Aratuste-domeka eta astelehena bitartean. Euskarri lanak egiten dituzten enborrak kendu zizkioten hesiari eta gero Deba ibaira bota; 12 bat enbor dira ibaira botatakoak. Etxera bidean oraindik jolaserako gogoia izango zuen Aretxabaletan parrandan ibilitako baten batek.

Jou Díaz  
Harakina  
Loramendi 1  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETA

Mobiliario  
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA





MIRARI ALTUBE

INTERNET > KZGUNEA

# Haizea Odria da orain KZguneko begiralea

Otsaileko azken egunotan hasi da lanean eta martxoko egitaraua dagoeneko gertu dauka: gura beste ikastaro eta hainbat azterketa

**MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA**  
Azken urteotan Soraluzeko Aitor Madrid izan da Markole auzoko KZgunean dinamizatzaile lanean ibili dena, baina orain beste zeregin batzuetara joatea erabaki du. Hala, Azpeitiko Haizea Odria etorri da Interneten gaineko kontuak erakustera aretxabaletarrei. Martxoan goizez egongo da zabalik KZgunea (09:00-13:00).

**IKASTAROAK ETA AZTERKETAK**  
Hainbat ikastaro antolatu ditu Odriak martxoan egiteko. Interneten gainekoa eta administrazioarekin zelan egin lan ikasteko aukera bi egongo dira: 3tik 13ra eta 23tik apirilaren 3ra. Irudi



Haizea Odria begiralea Markole auzoko KZgunean.

M.A.

digitalak zelan landu ikasteko bi eguneko ikastaroa egingo dute martxoaren 16an eta 17an. Eta sinadura digitala zelan erabili jakiteko egun bateko hainbat saio antolatu dituzte: 4an, 9an, 18an, 27an eta 31n.

Horiez gain IT txartela eskuratzeko azterketak egingo dituzte: martxoaren 2an, 10ean, 12an,

26an eta 30ean. Ikastaroak eta azterketak egiteko izena aurrez eman behar da KZgunera deituta (943 79 94 44).

Gainera, Ona txartela eskuratzeko aukera dago Aretxabaletan. Osasun Txartel Elektronikoa zenbat erabileratu dituen eta zelan erabili erakutsiko die Haizea Odriak interesa duten guztiei.

## Kolore jaia Aratuste-martitzenean

Kolorez bete zuten Herriko plaza 2 eta 14 urte arteko neska-mutikoei martitzenean -500 inguru-: piratak, sorginak, iratxoak eta eskal mitologiarekin zerikusia duten hainbat pertsonaia agertu ziren.

Arratsaldea, oster, buruhandiek eta musikak girotu zuten. Eta aurtengo Aratusteei Txin erretea esan zieten agur aretxabaletarrek.

## Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK

### ABOKATUAK

#### BERNARDINO MAIZTEGI

Bergara / Irizar 5  
T: 943 76 10 81

#### JUAN ANTONIO SIERRA

Bergara / Irizar 2  
T: 943 76 03 35

#### LIA ALTUNA / BEGOÑA LASAGABASTER

Arrasate / Iturriotz 15, 1 A  
T: 943 79 98 86  
F: 943 77 01 08  
altu-lasa@conet.es

#### RAFAEL ARANBURU

Bergara / Irizar 5  
T: 943 76 10 81

#### ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL

Aretxabaleta / Basabe ind. f-0-10-pab.  
T: 943 71 21 12  
zenbaki@zenbaki.es

### AHOLKULARITZAK

#### AIERDI AHOLKULARITZA

Bergara / Artekale 1  
T: 943 76 03 50

#### ANDRA MARI AHOLKULARITZA

aretxabaleta / Andra Mari auzunea 3  
T/F: 943 79 29 26  
andrama@arrakis.es

#### ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4  
T: 943 71 25 49  
F: 943 71 17 79  
asegi@asegim.com

#### TBG AHOLKULARITZA

BERGARA / Matxiategi 36  
T: 943 76 90 83

#### ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.  
T: 943 71 21 12  
F: 943 71 22 68  
zenbaki@zenbaki.es

### ARKITEKTO TEKNIKOAK

#### JESUS LASKURAIN PEREZ

BERGARA / Zurradero 4  
T: 943 76 53 53

### EKONOMISTAK

#### ARROBI / ANDONI URIBE ETXEBARRIA

ESKORIATZA / Hidalga kalea 22, behea  
T: 943 533 888  
F: 943 533 865  
uribe.arrobi@euskalnet.net

### ETXE ADMINISTRAZIOAK

#### URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.  
T: 943 79 51 25  
F: 943 71 19 85  
uribesalgo@telefonica.net

### GESTORIAK

#### EGUREN

BERGARA / Irala 3  
T: 943 76 21 65

### PROKURADOREAK

#### JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA

DONOSTIA / Easo 57-3 eskuma  
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49



Iker Urkia &gt; Loramendi EEko presidentea

# "Kultura erreferente izaten jarraitu nahi dugu"

MIRARI ALTUBE &gt; ARETXABALETA

Loramendi Euskara Elkartek mingegia egingo du bihar eta martxoaren 14an, etorkizunean nondik jo hausnartzeko. Bazkideei laguntza eskatu diete guztien artean hartzeko erabakiak. Elkarteko presidente Iker Urkiak mingegiaren gaineko argibideak eman dizkigu.

**Mingegia antolatu duzue etorkizunean nondik jo erabakitze-ko. Galduta dabil elkarte-ko?**

Ez, baina egia da urte asko daramagula antzeko gauzak egiten eta noizean behin hausnartu beharra dago, nondik nora jo eta nahi eta beharrak aztertze-ko. Lehen ere horrelako hausnarketak eginda gaude eta osasuntsuak direla uste dugu edozein elkarte edo lantalde tarako, inobilismoan jausteko joera saihesteko.

**Garaiak aldatu egin direla diozue; non igartzen da aldaketa?**

Alor guztietan etorri dira aldaketak: gizartean, herri ekimenean (militantzian), kultura eskaera eta eskaintzan, euskararen behararen pertzepzioan, jendearen nahietan... Eta garai horietara egokitu beharra dago,

edo ez, hori da hausnarketaren gakoetako bat.

**Bazkideen laguntza eskatu duzue, baina elkartekook edukiko duzue proposamene-ko bat.**

Egia esanda, ez; eztabaidatu-ko denaren oinarria eramateko asmoa daukagu, lanean nondik hasi jakin dezagun eta denborarik gal ez dezagun mingegiaren iparra aurkitu nahian. Baina guztia eztabaidatzeko asmoarekin goaz eta inola ere ez jendea bideratzeko asmoz.

**Eta bazkideek zelako erantzuna eman diote Loramendiren laguntza deiarri?**

Ez dugu jaso nahiko genukeen erantzuna, baina lehen aipatu ditugun gizarte aldaketaren beste ezaugarri bat bezala ulertu nahi dugu; gero eta gehiago kostatzen zaigu konprometitzea eta euskara ez da salbuespena. Dena den, nahi duena oraindik garaz dago mingegian parte-hartzeko, besoak zabalik hartuko dugu.

**Bidea erabakitze-ko izan arren, euskararen alde jarraituko du lanean Loramendik?**



Iker Urkia, Loramendi Euskara Elkarteko presidentea.

M.A.

**"Gero eta gehiago kostatzen zaigu konpromisoak hartzea, eta euskara ez da salbuespena"**

Loramendi inguruan lanean gabiltzanon asmoa hori da inongo zalantzarik gabe, baina zein ildo berri ukitu edo zein zahar berreskuratu aztertu nahi dugu.

Azken urteetan egin ditugunak egiteak ez du esan nahi egin behar dena egiten gaudenik eta guk ekingiza eta balio "zuzen" horiek aurkitu nahi ditugu.

**Mila kontu antolatu dituzue azken urteotan, eta oraindik ere mordo bat dituzue egiteko, ezta?**

Asmoa hori da. Euskara elkarte bat izateaz gain, kultura erreferente izan da Loramendi azken urteotan Aretxabaletan eta era xume baten, erreferente izaten jarraitu nahi dugu herrian.

HEZKUNTZA &gt; ARATUSTEAK LANTZEN

## Piraten gaineko proiektua egin dute Pausokako umee-ko

Aratuste eta garizuma sasoiko ohiturak ezagutzen dabilta umee-ko: torradak egin eta jan dituzte eta orain karapaixoa ezagutuko dute

M.A. &gt; ARETXABALETA

Otsailean usadio zaharrek eta ospakizun berriek bat egiten dute eta Pausoka Haur Eskolako umee-ko horietako gehienak ezagutu dituzte egunotan.

Aratusteak aitzakia hartuta piraten gaineko kontuak landu dituzte hilabete guztian, eta makinatxo bat lan egin ere bai. Gaia girotu eta benetako pirata sentitzeko, hona egindakoak: itsasontzi erraldoia kartoiarekin, eskulantxoak, abestiak ikasi... Eta *Altxorraren bila* jolasean jardun

dute mapari jarraituta eta pertsonaia misterioetsuek emandako pisten laguntzarekin. Pausokako piraten egun handia, baina, Aratuste-martitzena izan zen. Herriko plazara joan ziren itsasontzi eta guzti, gainerako ikastetxetako umee-ko elkarte eta Aratuste-ko ospatzera.

**TORRADAK ETA KARAPAIXOA**

Ospakizun berriak bakarrik ez, usadio zaharren berri ere izan dute umee-ko: Santa Ageda mutilak zeintzuk diren jakin dute eta



Pausokako umee-ko piraten itsasontzi barruan.

M.A.

Aratuste inguruan jaten diren jakiak dastatu dituzte: torradak, hain zuzen ere. Euren egin zituzten, ogi eta esnearekin, eta, behin erreta, azukrea eta txokolatea gaintik bota eta gustura baino gusturago jan ere bai.

Eguaztena ezker garizuman sartuta gaude eta gurean ohitura da aita-ama pontekoek karapaixoa oparitzea besoetakoari. Karapaixoa zer den eta zelan egiten den jakin eta dastatzeko aukera izango dute Pausokako umee-ko.

OSPAKIZUNA

## Aingeru Guarda eguna bihar erretiratuek

Meza entzungo dute komentuan (12:30) eta bazkaria dute gero Baster-Alden

M.A. &gt; ARETXABALETA

Basotxo erretiratuen elkarteak zaindariaren eguna ospatuko du bihar, zapatua. Salda beroa izango dute lehenengo Basotxon bertan (11:30) eta meza entzungo dute gero agustindarren komentuan (12:30). Ospakizuna borobiltzeko bazkaltzera joango dira Baster-Alde jatetxera. Autobusa antolatu du elkarteak hara joateko, eta parrokiaren albotik irtengo da (13:45). Bazkalostean, dantzan jardun eta gero, bukatuko dute ospakizuna erretiratuek eta autobusean jaitsiko dira (18:30).

**105 BAZKIDE ETA GONBIDATUAK**

Aingeru Guarda eguna martxoaren 1ean da eta egunean bertan ospatu izan dute erretiratuek. Aurten, baina, aurreratzea erabaki dute, hauteskundeak direla-eta. 105 bat bazkidek eman dute izena eta horiekin batera egongo dira Inaxio Garro alkatea, Araceli Herran zinegotzia, Jesus Ortiz de Urbina parrokoa eta herriko zazpi gastro- nomia elkartetako ordezkariak, guztiak gonbidatuta.

## oharrak

GAZTEAK

**> Paint-ball egitera irteera**

Atxagazte gaztelekuak irteera egingo du Bedoñako paint-ball parkera otsailaren 28an. Izena gaztelekuan eman behar da. 20 euro da.

GAZTEAK

**> Izotz pistara irteera**

Gazteria Sailak izotz pistara irteera antolatu du martxoaren 1erako (15:30-19:45). 7 eta 12 urte arteko gazteendako da eta izena ludotekan eman behar dute; 6 euro da.

IKASTAROA

**> Txalaparta ikastaroa**

Loramendi EEk txalaparta ikastaroa antolatu du -debalde-. Hona egunak: martxoak 3, 10, 17 eta 24. Interesatuek deitu Loramendira.

DANTZA

**> Dantza libre saioa**

Jaiki elkarteak dantza libre saioa egingo du martxoaren 12an (18:00-20:30), kuartel zaharrean. 8 euro da.



Interesatuak  
martxoaren 13ra arte  
eman dezakete izena  
udal bulegoetan

Besteak beste,  
webmaster lanak egin  
eta artxibategiko  
dokumentuak eta udal  
webguneko edukia  
antolatu beharko ditu

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Udal langilerian hutsik dagoen webmaster-artxibozain-dokumentalista lanpostua bete gura dute. Oinarriak Gipuzkoako

UDALA > LANPOSTURAKO DEIALDIA

# Artxibozain lanposturako izenematea zabalik dago

Aldizkarian kaleratu zituzten otsailaren 9an, eta Estatuko Aldizkarian hilaren 21ean. Orain zabalik dago izenemate epea. Hain zuzen ere, martxoaren 13ra arte eman dezakete izena interesatuak udal bulegoan.

BALDINTZAK

Artxibozain diplomatura edo pareko tituluren bat duten guztiak aurkez daitezke deialdira.

Gainera, laugarren hizkuntza-eskakizuna gaudituta dutela egiaztatu beharko dute.

Lanpostua eskuratzen duen pertsonak izango dituen betebeharren artean daude, besteak beste, udal artxibategiko dokumentazioa jaso, antolatu, zaindu eta zabaldu; webguneko dokumentazioaren edukia antolatu; webmaster lanak egin; udal langileen eta herritarren kontsultei

erantzun; artxibategiko txosten administratiboak egin; erakusketak publikoetarako artxiboko materiala prestatu; eta urteko txostena egin.

ESPERIENTZIA BALORATUKO DUTE

Hautagai egokiena aukeratzeko lau azterketa egingo dituzte. Lehenengo bi azterketak idatzizkoak izango dira. Hirugarrenean lanpostuarekin zerikusia

duten galderei erantzun beharko diete. Laugarrenean hainbat proba praktikoko egin beharko dituzte, eta horietako bat elkarriketa izan daiteke. Azken proban, laugarren hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko azterketak egingo dituzte.

Azken puntuaketa egiteko, hautagaiek duten esperientzia, formazioa eta ikasketak baloratuko dituzte.



MIREIA BIKUÑA

## Herriko plaza mozorroz bete zen martitzenean Aratusteak agurtzeko

Eguneroko jantziak kendu eta mozorroak jartzeko eguna izan zen martitzena. Aratusteetako azken egunean kolorea izan zen nagusi herriko plazan eta kiroldegiko pilotalekuan. Txikiak Zubikoako frontoian elkartu ziren Kuko, Truko eta Bolenwaider pailazoan emanaldia ikusteko. Ondoren, Parrokiako Misio

Taldeak egindako txokolatea jatekoa aukera izan zuten plazara hurbildutako guztiek. Txorimaloak eta buruhandiak ibili ziren kalerik kale txistularien laguntzarekin. Afaltzera joan aurretik disko festa egon zen plazako kioskoan. Gauean helduak irten ziren kalera, eta tabernak girotu zituzten.

> SALMENTA

### 'Secando charcos' antzezlanerako sarrerak salgai, kultura etxean

Nazioarteko Emakumearen egunean, martxoaren 8an, Agerre Teatroa taldeak *Secando charcos* antzezlan eskainiko du Santa Ana antzokian, 19:30ean.

Sarrerak asteon jarri dituzte salgai kultura etxean 10 eurotan: astelehenetik egubakoitzera 10:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 20:30era; eta zapatuetan 10:00etatik 13:30era. Era berean, emanaldi egunean leihatilan jarriko dituzte salgai sarrerak.

> DEIALDIA

### Martxoaren 11n egingo dute liburutegiko lanpostuko lehen proba

Liburutegiko laguntzaile plaza betetzeko lehen proba martxoaren 11n egingo dute, kultura etxean 10:00etan. Azterketa teorikoa izango da eta hautagaiek test erako galderak erantzun beharko dituzte. Lanpostua betetzeko deialdira aurkeztu ziren 33 hautagaiek egin beharko dute azterketa. Gutxieneko puntuaketa lortzen dutenek bigarren proba egingo dute eta besteak baztertu egingo dituzte.

> DEIALDIA

### Arrantzako federatu txartela eska daitezke Pago Uso elkartearen

Arrantzaren egin gura dutenek bi modutara eska ditzakete txartelak: alde batetik, eguaztenetan Pago Uso elkartearen, 20:00etatik 21:00etara; eta beste alde batetik, Nikolas Ugarte ile-apaindegian. Ordainketa izena ematerakoan egin beharko dute. Bi maila daude adinaren arabera: infantil mailakoak dira 2009. urtean 14 urte betetzen dutenak, eta gainerako guztiek helduen mailako txartela egin beharko dute.

> TURISMO

### Oñatiri buruzko DVD berria salgai jarri dute Turismo Bulegoan

Oñatiko Turismo eta Garapen Agentziak herriko historia eta arteari buruzko DVD berria argitaratu du. Orain arte salgai zegoenarekin alderatuta berrikuntzak ditu; hain zuzen ere, Arrikutzeko irudiak sartu dituzte. Dagoeneko salgai jarri dute DVDA Turismo Bulegoan hamar eurotan: astelehenetik barikura 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara; eta zapatuetan, 11:00etatik 14:00etara.

## oharrak

HITZALDIA

### > DBH bukatuta egin daitezken ikasketei buruzko hitzaldia Elkar Hezin

Elkar Hezi ikastetxeko orientatzaile Ana Sanzek egingo du hitzaldia martxoaren 3an, 19:00etan. Bigarren Hezkuntzako eraikineko mediatekan egingo dute.

HITZALDIA

### > Goi mailako hezkuntza ziklo-en gaineko hitzaldia ikastolan

Arizmendi Ikastolaren, ETEOren eta Mondragon Goi Eskola Politeknikoaren eskaintzari buruz egingo dute berba, martxoaren 3an. Hitzaldia ikastolako aretoan egingo dute, 18:30ean.

ERAKUSKETA

### > Frankismoak eragindako biktimen gaineko erakusketa

*Izen guztiak, aurpegi guztiak* delako erakusketa dago kultura etxean martxoaren 18ra arte.

Bestalde, Intxorta 1.937 Kultur Elkarteak antolatuta *II. Errepublikak, Gerra Zibila eta errepresioa Oñatin* hitzaldia egingo du Juan Ramon Garaik martxoaren 4an kultura etxean, 19:00etan.

DEIALDIA

### > Erromeria Lizargaraten

Miren, Agurtzane eta Maite trikitilariak erromeria egingo dute Lizargaraten domekan, 11:00etan.

Bestalde, trikiti bazkaria egingo dute martxoaren 14an Larrain Gain elkartearen Laja eta Narbaiza trikitilariekin. Txartelak Urbia eta Umerez tabernatan eros daitezke.

INFORMATIKA

### > Ikastaroak KZgunean

Martxoan hainbat ikastaro egingo dituzte KZgunean. Informazio gehiago gura duenak 943 71 83 20 telefonora deizake edo [www.kzgunea.net](http://www.kzgunea.net) helbidean begira dezake.





Joan den eguazten ilunkaran egindako osoko bilkuran, aurtengo aurrekontuari hasierako onarpema eman zion berriro udalbatzak.

MIRIAN BITERI

UDALA > AURREKONTUA

# Prozedura-akatsa dela eta, aurrekontua berriro onartu behar izan dute

Eako taldeak alegazioa aurkeztu zuen eta Diputazioak prozesuak hasieratik hasi behar duela ondorioztatu du

Gerran desagertutako herritarren gaineko prozesu judizialak laguntzeko partida sartzea adostu dute

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Eako udal taldeak jarritako alegazioa dela eta, udalbatzak 2009ko Aurrekontu Orokorren hasierako onarpema bertan behera utzi zuen joan den eguaztenean egindako osoko bilkuran. Jarraian, aurkeztatuko zuzenketetaz eztabaidatu ostean, kontu berriak behin-behineko onartu zituen.

Udalbatzak urtarrilaren 19an egindako osoko bilkuran, hasierako onarpema eman zion aurtengo Aurrekontu Orokorriari. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ostean, interesatuek aztertu eta bidezko iritzitako alegazioak aurkez zituzten, proiektua jendaurrean jarrita egon zen

otsailaren 17ra arte. Egun hartan, Eako taldeak alegazioa aurkeztu zuen, jarraitutako prozeduran akatsa izan zela azalduz.

**NAHITAEZKO TXOSTENA**

Aurkeztutako idatzian arrazoitu du, besteak beste, bilkura hartara ez zela urtarrilaren 15eko Ogasun batzordeko nahitaezko txostena eraman. EAren arabera: "Batzordean ez zelako bozketa egin, aktan jasotzen denez". EAK eta EAJk txostena ez zegoela ohar-tarazi zuten bilkuran; baina aholkularitza juridikoa jarraitutako bidea zuzena zela eta aurrekontuak bozkatu eta onartu zituzten.

Gipuzkoako Diputazioak ale-

gazio hori aztertu eta ondorioztatu du prozesua hasieratik hasi behar dela. Hortaz, eguaztenean berri onartu ziren: Udal Gobernuak daudenek alde bozkatu zuten eta EAK eta EAJk, kontra. PSE-EE eta EB-Berdeak taldekoak abstenitu egin ziren; azken horretako zinegotzi Jose Luis Merinoren esanetan: "Lehen kontra bozkatu banuen ere, orain abstenitu egingo naiz, herria ezin delako aurrekontu barik egon. Gogor salatzen dut EAren jarrera".

**FUSILATUEN GAINEKO PARTIDA**

Aurrekontuaren eztabaidan EA eta EAJ udal taldeek 26 zuzenketak aurkeztu bazituzten ere, atze-

ra bota zituzten guztiak. Aurrekontu berri aldaketa bakarra sartzea adostu zuten, EB-Berdeak hala eskatuta: gerran desagertutako herriko zazpi zibilen gaineko salaketak eta epaiketak egin ahal izateko euro bateko partida sortzea; kopurua aldatu egingo da, eskaririk egiten bada.

Pedro Lasagabaster alkateak "lotsagarritzat" jo zuen EAren jarrera. Aipatu zuen Ogasun batzordean bozketa egin zela eta aktetan ez dela inoiz horrelakorik jaso. Eako Karmelo Lezetari "txo-txongilo lanak uzteko" gomendatu zion. Horren harira, dio esleituta dauden proiektuak bi hilabetez atzeratuko direla horregatik.

EA ETA EAJ UDAL TALDEEN MOZIOA

## Axtrokiko ontziena batzordera eraman dute

Eguazten ilunkaran egindako bilkuran, EA eta EAJ udal taldeek Axtrokiko ontzien gaineko mozioa aurkeztu zuten. Ontzi horiek Madrilgo museo arkeologikotik Eusko Jaurlaritzaren Material Arkeologiko eta Paleontologikoen Biltegira ekartzeko eskaera egiten dute horretan. Mozioak Udalaren konpromisoa bilatzen duen, Jaurlaritzako eta Diputazioiko Kultura sailei ontziak ekarri ahal izateko neurriak har ditzaten eskatzeko eta esandako bi erakundeei ahal den neurrian laguntzeko. Gainontzeko udal taldeak gaia mahai gainean utzi eta Kultura batzordean horren gainean eztabaidatzearen alde azaldu ziren.

## Datorren urtera arte mozarroak armairuan gorde dituzte

Urtero bezala, umeak izan ziren Aratuste-martitzeneko protagonistak. Azken asteotan ikastetxeetan egindako mozarroak pozik jantzi zituzten goizean plazan egindako jaialdirako. Arratsaldean, ohiturari jarraituz, kukumarroak irten eta herrian ibili ziren; jarraian, dantzaldia egon zen plazan. Irudian, goizeko jaialdian parte hartu zuten umeak.



ESKORIATZAKO UDALA

> ERRETIRATUAK

## Olazarko zuzendaritza berriari izandako aldaketak

Orain dela bi aste Olazar erretiratuen elkartearen zuzendaritzan aldaketak egon direla jakinarazi genuen. Baina elkarte horretan bakoitzak hartutako karguaren berri ematean, idazkariarena sartu barik utzi genuen.

Hona hemen elkartearen zuzendaritza barruan bakoitzak duen kargua: Maximo Iñurrategi, presidentea; Roberto Kortazar, presidenteordea; Emilita Gartzia, idazkaria; Humphrey Charles Martina, diruzaina; eta Marisa Isasmendi, Ignacio Oion, Anita Serrano eta Isabel Hernangomez, bokalak.



ANTZERKIA &gt; UMOREA

# Txalo konpainiak 'Ate joka' komedia aurkeztuko du gaur unibertsitatean

Iker Galartzak, Joseba Usabiagak eta Sara Cozarrek egindako antzezlanaren 22:30ean hasiko da Huhezinean; ikuskizunerako sarrera doan izango da



Joseba Usabiaga, Iker Galartza eta Sara Cozar, antzezlaneko protagonistak.

GOIENKARIA

MIRIAN BITERI &gt; ESKORIATZA

Umorea nagusituko da gaur, egubakoitzan, Huhezinean. Txalo konpainiak *Ate joka* izeneko umorezko komedia aurkeztuko du gauean. Eskoriatzako Udalak antolatuta eta Kutzak babestu eta ordaindutako ekitaldia 22:30ean hasiko da eta sarrera librea izango da.

Gaur eskainiko duten antzezlanaren Gene Sacksen *La extraña pareja* izeneko komedia ezagunaren oinarrituta dago. Begoña Bilbao zuzendutako eta Ritxi Lizartxak itzulitako umorezko ikuskizun horretan bi lagunaren arteko

elkarbizitza kontatzen da. Joxemari, dibortziatua eta bizitzako bizio guztien zalea, etxean bakarrik bizi da.

EGOERA KOMIKOAK

Andrex, Joxemariren lagun mina, ezkontuta dago, baina dibortziatzekotan. Maniatikoa

eta obsesiboa izateaz gain, garbizalea ere bada. Elkarbizitzak egoera komiko eta dibertigarriak eragingo ditu; baina, aldi bere-

an, bizipen tristeak eta mingarriak azalaraziko ditu. Antzezlan horren bidez, bikoteen arteko elkarbizitza ez dela batere samurra azalduko dute, modu dibertigarrian.

AKTOREAK

Hiru lagun dira antzezlan horretako protagonistak. Alde batek, Iker Galartza eta Joseba Usabiaga aktoreak daude. Biak *Goenkale* telesailan ibili dira; Galartzak, gainera, *Vaya semana* saioan ere jarduten du gaur egun. Aurretik ere hainbat antzezlanetan aritu dira elkarrekin lanean: *Erreleboa* eta *Bote patsa* lanetan, besteak beste.

Bestetik, Andrexen emaztea eta guztia nahasten duen bizilagunaren papera Sara Cozarrek egiten du. Aurpegi ezaguna da hura ere: *Goenkale*-n ibiltzeaz gain, *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* filmean ere lan egin du, esaterako.

Esan bezala, antzerkizaleek Txaloren *Ate joka* antzezlanaren doan ikusteko aukera izango dute gaur, 22:30ean, unibertsitatean.

AISIALDIA &gt; DASTATZEA

## Bizkaiko txakolin berria dastatu ahal izango da bihar

Mikel Garaizabal enologoak 2008ko uzta aurkeztuko du Azkoaga Enea hotelean, 18:30ean

M.B. &gt; ESKORIATZA

Eskoriatzako Azkoaga Enea hotelean Bizkaiko Txakolina jatorri izeneko 2008ko uzta aurkeztuko da bihar, zapatua, ilunkaran. Ekitaldiari 18:30ean emango diote hasiera, Elorrioko Mikel Garaizabal enologoaren eskutik. Uzta berria aurkeztuko du eta jarraian, 21:00ak bitartean, sei upelategitako ardoak dastatzeko aukera izango dute hara joa-

ten direnek: Itsasmendi, Doniene Gorronzona, Magalarte, Erdiokoetxe eta Mendraka, hain zuzen.

SEI EURO

Azkoaga Eneko arduradun Valen Gomezek azaldu duenez, sei euro balio duen txartela eskuratu behar da. Jendeak txakolina dastatzen duten bitartean, upelategi bakoitzaren gaineko azalpenak emango ditu Garaizabalek.

KIROLA &gt; IRTEERA

## Asteburuko eski irteerarako 22 lagunek eman dute izena

Alokatutako furgoneta batean eta autoetan joango dira Luz Ardidenera

M.B. &gt; ESKORIATZA

Aurrera doa aste bukaera honetako eski irteera. Azkenean, 22 lagun abiatuko dira zapatu goizaldean Luz Ardiden estazio-rantz. Baina, autobusean joan beharrean, bederatzik lagunendako alokatutako furgonetan eta autoetan egingo dute bidaia.

Eskoriatzako kirol elkartereko mendi sailetik azaldu digutenez, gainontzeko aurreikuspen guztiak mantendu egiten dira. Zapatuan 05:00etan irtengo dira herrietik eta domeka gauean itzuliko dira, 21:00 aldean.

MATERIALA ALOKAIRUAN

Soulom herrian hartuko dute ostatu. Antolatzaileek gogorazi dute bakoitzaren esku geratuko dela zapatuko gosaria eta bazkaria eta domekako bazkaria, eta materiala behar izanez gero, han alokatzeko aukera egingo dela.

oharrak

UMEAK ETA GAZTEAK

> Ludotekan eta gaztelekuetan tailerrak daude asteburuan

Gaur, egubakoitzan, umeek eskulanak egingo dituzte Tortolis ludotekan, 18:00etan. Gaztelekuetan, berriz, domekan sukaldaritza tailerra egingo dute domekan. Gazteak sukaldean trebatuko dira, 18:00etan.

ARETO FUTBOLA

> Gazte eta ohorezko partidua bana daude bihar kiroldegian

Bihar, areto futboleko bi partidua daude kiroldegian. Gazte ligan, Eskoriatza eta Donosala arteko norgehiagoka dago, 16:00etan. Ohorezko ligan, Eskoriatza-Udapa partidua dago, 18:00etan.

LENIZ  
ESKORIATZA

SUZUKI

- Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika
- Bigarren eskuko autoen salerosketa, inyektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa

Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxa: 943 71 31 45



INGURUMENA &gt; 'ANTZUOLA EZAGUTZEN'

# Herriko mugarrak ezagutzeko hiru mendi ibilaldi egingo dituzte

Martxoaren 1ean izango da lehena eta besteak martxoaren 29an eta maiatzaren 10ean

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA  
Iaz udazkenean hasitako *Antzuola ezagutzen* programarekin asteburu honetan jarraituko dute. Lehen saiorako Jose Mari Iturbek herri inguruko iturrien gaineko ikus-entzunezkoa gertatu zuen eta arrakasta izan zuen gaiak: 45 lagun inguru azaldu ziren emanaldira.

Ondoren, urrian, Pagape, Otain eta Irular inguruetan ibilaldia egin zuten 70 lagunek. Herriarrendako hain ezaguna ez den Irimoegibarrenean zehar ibili ziren, hain zuzen ere, hango iturriak eta parajeak ezagutzen.

## DESKARGATIK ILUNPERA

Ikus-entzunezkoak eta ibilaldiak izandako arrakasta ikusita, martxoan hasita mugarrak ibilbidea egitea pentsatu zuten Udaletik, betiere herria hobeto ezagutzeko asmoz.

Herriko hainbat txokotan dauden mugarrak ezagutzeko hiru irteera antolatu dituzte, guztira: lehenengoa martxoaren 1erako, Deskarga eta Ilunpe artekoa; bigarrena martxoaren 29rako, Ilunpe eta Aizpurutxo arteko mugarrietan barrena; eta azkena maiatzaren 10ean, Aizpurutxo eta Deskarga arteko ibilaldia eginez.

Lehenengo irteeran parte hartu nahi dutenak 08:30ean plaza elkartuko dira eta autoz joango dira Deskargara. Handik abiatuta, lau pabost ordu inguruko ibilaldia egingo dute, eta, antolatzaileen esanetan, umeak ere joateko moduko irteera da domekakoa.

Ibilbidean barrena ikusiko dituzte Deskargako mugarrak, Antzuola, Legazpi eta Urretxu arteko muga, hiru gurutze dituen; Lakiola gaina eta iturria; Arrola eta Irikorta iturria, Arrolako gune megalitikoak; Arranoaitz, non Antzuolak, Legazpirekin eta Oñatirekin muga egiten duen; Koroso iturria eta alberga; Korosomuino; Landarraitz; Irumugarrieta, Antzuola, Oñati eta Bergara elkartzen dituen; Antzuolan altuen zegoen Astoaga baserriaren aztarnak; Trukarritxa iturria; Ranchoalegre; Mixo baserria; Burubiko; eta Aldabe iturria.



Lakiolako mugarrak da domekan ikusiko dutenetako bat.

GOIENKARIA

Jose Mari Iturbe > Nekazaritza zinegotzia

## "Makina bat haserre sortu izan da mugarrak kontura"

**I. A.** > ANTZUOLA  
**Iturriak, karobiak, mugarrak... herriko txoko mordea aztertu du Jose Mari Iturbek, Nekazaritza zinegotzia delako ez ezik gustuko duelako ere bai.**

**Zein garrantzi dute mugarrak herriarendako?**

Gaur egun teknologia berriak, GPSak... direla medio, garrantzia galtzen dihardute, baina makina bat iskanbila eta haserre sortu izan da mugarrak kontura. Gaur egun ere erreferentzia izaten jarraitzen dute eta zaindu beharrekoak dira.

**Antzuolarrek badaukate mugarrak horien berri?**

Badago ezagutzen dituen jendea, baina beste askok ez ditu ezagutzen. Batzuk bereziak dira; esaterako, Deskargakoa. Nahiz eta errepidetik ikusteko moduan egon, ez dugu ezagutzen. Batzuk falta dira eta beste zenbait sasi artean ezkutatu daude, eta ez da samurra izango aurkitzea.

**Zein berezitasun dute?**

Deskargakoa, esaterako, lehena da, Urretxu Legazpi eta Antzuola banatzen ditu, eta gainean hiru gurutze ditu. Mugarrak

saso desberdinetakoak dira, batzuk oso zaharrak, eta zenbakia irakurtzea gaitza egiten da, baina denak zenbatuta daude.

**Nola aztertu dituzu?**

Antzuolako mapa erabiliz, profilak eta erliebeak ezagutzeko eta hainbat lagunek emandako informazioa erabiliz mendian banaka mugarrak lokalizatuz. Denak ez ditut aurkitu, eta espero dut domekan berriak ezagutzeko.

**Merezi du ibilaldia egitea?**

Bai, mugarrak gure herriaren ezaugarri dira eta herriari hiru zatitan buelta



GOIENKARIA

emango diogunez, hainbat ikuspuntutatik ezagutuko dugu. Gainera, osogutxiezagutzen ditugun baso, erreka eta inguru bereziak ikusteko aukera izango da.

## Inauteri jaia egin zuten erretiratuek Landatxopen

Martitzenean izan zuten Inauteri ospakizuna erretiratuek Landatxopen. Txokolatea, ogitartekoak eta Torradak jan zituzten elkartera joandako 80 lagunek. Horietako batzuk moztortuta joan ziren, gainera, eta hiruk saria jaso zuten: Antonia Egañak, Isabel Castrok eta Geronimo Zabalok (argazkian, sari emaille Isidoro Quintanarekin). Ondoren, kina joko egin zuten.



IRATI AGIRREAZALDEGI

## PILOTA

### Azken bi kanporaketa saioak

Bihar, zapatua, otsailak 28, eta hurrengo zapatuan, martxoaren 7an, jokatuko dituzte herriko pilota txapelketako azken bi kanporaketa saioak. Partiduak 09:30ean hasiko dira eta hurrenez hurren jokatuko dira gainontzekoak. Kanporaketa saioen ostean, sailkapenean aurreko postuetan dauden final-laurdetan jardungo dute.

## Partiduak

### Otsailak 28

Untzarri - Galardi  
Patri - Palomo  
Jongu - Iñurriagarro  
Balerdi - Bidaurre  
Zubi - Ota  
Santxo - Irimo  
Azkarate - Aitzol  
Txarli - Idiakez

### Martxoak 7

Zubi - Irimo  
Santxo - Aitzol  
Endika - Idiakez  
Azkarate - Txarli  
Untzarri - Palomo  
Patri - Iñurriagarro  
Torre - Bidaurre  
Jongu - Balerdi

## oharrak

### IKUS-ENTZUNEZKOA

#### > Kangchenjunga 2007

Gaur, otsailak 27, gaztetxean egitekoak ziren Kangchenjunga 2007 ikus-entzunezko emanaldia bertan behera geratu da. Julen Reketa mendizale arabarrak etorri ezin duenez, martxoan egingo dute saioa gaztetxetik jakinarazi digutenez.

### MENDIA

#### > Ibilaldi neurtua

Martxoaren 8ko Aretxabaleko umeen ibilaldi neurtuan parte hartzeko martitzenean 19:00etatik 20:00etara Olaraneko hirugarren gelan eman behar zaie izena Arrolakoei.

## MUJKA HARATEGIA



**Berezitasunak:  
Etxean hazitako  
zekorrak eta oilaskoak**

Kalebarren, 1.  
ANTZUOLA  
Tf. 943 76 64 34



UDALA > POLITIKA

# Aralar: "Udal zorraren %84,04 aurreko agintaldietatik dator"

Hauteskundeak direla-eta EAJ-EAk azken asteotan giroa nahastu gura izan duela esan du Aralarrek

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Aralarrek asteon kaleratu du otsaileko buletin. Bertan, besteak beste, azken egunotan udal gobernuaren eta oposizioaren artean horrenbesteko eztabaida sortu duen Udalaren zorraren gaineko datuak kaleratu ditu. "Udalak 1.197.418 euroko zorra

du", irakur daiteke buletin. "Aurreko agintaldietatik datorren zorra 1.006.315 euro da, zoroaren %84,04. Datu horiekin, EAJ-EAko zinegotziak bakoitzaren ardura zein den jabetzea espero dugu". Hauteskundeak direla-eta EAJ-EAk giroa nahastu gura izan duela salatu dute Aralartik.

Beste datu baten berri ere eman dute buletinean: "Aralarrek alkatetzaren duenetik Udalak 191.165,83 euroko zorra egin du".

**DIRU SARRERA POLITIKA BERRIA**

Aralarrek dio Udalak zuen diru sarrera politika zuzendu egin duela. "Diru sarrerak ezin dira eraikuntzan oinarritu", adierazi du Oxel Erostarbe alkateak. "Gestio onari esker gu baino han-

diagoak diren erakundeetatik -Foru Aldunditik eta Eusko Jaur-laritzatik- 955.173,73 euroko diru-laguntza lortu dugu".

**UDALA, UEMA ERAKUNDEAN**

Atzoko osoko bilkuran, bestetik, Udala UEMAn (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea) sartzea onartu zuten. Udaletxe barruko euskara plana egitea da orain lehenengo helburua.

bere ustez



Sebastian Arantzabal

## Politikoak ere inauteri giroan

**B**atzuek gogoan dugu "demokraziaren" lehen urteetan bizi genuen ilusioa. 1980ko autonomikoetan, adibidez, ezkertiarrok bagenuen non aukeratu (EMK, ORT, ESEI, LKI, EE, HB, UC, PCE), baina herritarren babesa galtzearen ondorioz alderdi gehienak desageritzen joan ziren. Beste batzuk (HB, EH, ANV, EHAK, AUB, HZ, AG, D3M) nahiz herritarren babesa izan, Espainiako legedi "demokratiko"-tik kanpo hutsi dituzte.

Apartheid politikoak,

## "Kartelak gauez, mitinak moztortuta eta papeletak urrea balira leku seguruan gordetzen"

agintarien "txantxulloek" eta estrategia batzuekiko desadostasunek, garai haietako ilusioak pikutara bidali dituzte, abertzaleen artean gehienbat. 1980ko emaitzak begiratzera nahikoa dugu: euskal eremuko alderdiek 42 aulki lortu zituzten eta espainolistek 18. Denok dugu ibilbide horretatik zer ikasi. Egindako akatsak onartuz has gaitzen mapa politikoa irauliko duen ezkerreko indar independenteista sendo bat eraikitzen.

Bitartean, inauteri giroan batzuk aurpegi irribarretsuz kanpaina jarraitzen dute beste batzuk kartelak gauez eta korrika, mitinak moztortuta eta papeletak urrea balira leku seguruan gordetzen dituzten bitartean.

oharrak

BIODANTZA

## > Biodantza saio irekia egingo dute martxoaren 5ean

Ana Mari Sousa psikologo eta biodantza irakasleak gidatuko du aurrerantzean Elgetako ikastaroa.

Interesatu guztiendako doako saio irekia egingo du martxoaren 5ean, eguena, herri eskolan. Saioa 19:00etatik 21:00etara egingo dutela jakinarazi du.

Alizia Gartzia > Argazkilaria

## "Erakusketa egingo dugu Elgetako emakumeen argazkiekin"

L. Z. > ELGETA

Emakumeen Nazioarteko Egun dela-eta argazki erakusketa zabalduko du Udalak Espainian. Bertan, Elgetako 20 emakume agertuko dira, lanean. Alizia Gartzia ateratu ditu argazki horiek guztiak. Erakusketa martxoaren 8an aurkeztuko dute.

## Zergatik 20 emakume?

Gehiago agertzea nahi genuen, baina argazkien neurriak ez dira txikiak eta kalkulatu dugu aretoan 20 sartzen direla. Aukeraketan, sektore ezberdinak agertzearen aldeko apustua egin dugu. Askok merezi dute erakusketa agertzea, baina aukeraketa egin behar izan dugu.

## Ze lanbide agertuko dira?

Askotarikoak. Udaletxean, laborategi batean, telebistan, baserrian, tailerretan, sukaldean, ile-apaindegian, eskolako jangelan, eguneko zentroan... lanean diharduten Elgetako emakumeak agertuko dira erakusketan.

## Eta nola hartu dute herriko emakume horiek erakusketa batean parte hartzeko proposamena?

Ondo. Hasierako erreakzioa beti da berdintsua: "Ni ez naiz argazkietan ondo ateratzen", "argazkiak ez dira nire gustukoak"... baina gero oso ondo hartu naute ni eta nire argazki-kamera. Kolaboratzeko oso prest ikusi ditut guztiak.

MERKATARITZA > ELGETA PIEL

## Etsita, negozioa atzera ere ez zabaltzeko erabakia hartu du Kontxi Ibarluzeak

"Pozik nengoen dendarekin, baina lapurrekin eta krisiarekin ez daukat animurik berriro hasteko"

L. Z. > ELGETA

Elgeta Piel dendako ateeak itxita jarraituko dute luzaroko. Bizitza osoa eman du saltzaile lanetan Kontxi Ibarluzeak, baina oraingo honetan aurrera jarraitzeko animurik ez zaiola gelditzen aitortu du. Beldurtuta dagoela adierazi du, "lapurrekin eta krisiarekin". Bi urteko epean bi aldiz egin diote lapurretan. "Oraingoan ere lapurrek ez dute arrastorik laga. Ertzaintzak ikertzen jarraitzen du, baina uste du ez dugula ezer lortuko. Ondo



Urtarrilaren 28an, gauean, egin zuten lapurretan Elgeta Piel dendan.

ARTXIBOA

antolatutako lapurrek egindako lana izan da, eta dagoeneko asko non dauden gure jantziak!". Amaitu da, beraz, zortzi urtez zabalik egon den Elgeta Piel.

**ETORKIZUNAREKIN KEZKATUTA**

Denda txikien etorkizuna kezkatuta ikusten du Ibarluzeak. "Zentro handiei erraztasun guztiak eman dizkiete, eta gu txikiak...!".

## frontenis txapelketa

### Liderrik gabeko aste bukaera frontenisean

Gizonezkoen txapelketako liderrek, Haritz Gallastegik eta Eñaut Arantzetak, ez dute aste bukaera honetan partidarik jokatu eta emakumezkoetan oraingoz lehenengo postuan dauden Garbiñe Sarasketa eta Idoia Elkoroek ere ez dute jokatu.

Gizonezkoek bosgarren jardunaldia izango dute eta emakumezkoek, berriz, hirugarrena. Goiz da oraindik, baina sailkapenei dagokienez hasi dira, bai batean bai bestean, bikote ezberdinen artean tarteak zabaltzen.

**EMAITZAK**

Haritz Gallastegi-Eñaut Arantzeta/Josu Urizar-Jabier Gamarra	25-08
Adrian Gorostiza-Sergio Bouzas/Ander Gorosabel-Ibon Untzetabarrenetxea	25-18
Idoia Lasa-Miren Argi Zeziaga/Idoia Elkoro-Garbiñe Sarasketa	25-20
Mikel Arkarazo-Josu Olasolo/Jose Monterroso-Antton Pierruges	25-15
Hodei Zenitagoia-Mikel Beretxinaga/Asier Morales-Asier Osoro	25-20
Mari Karmen Salas-Izaskun Ojanguren/Amaia Iribar-Alizia Gartzia	25-24
Nagore Ojanguren-Idoia Serna/Miren Argi Zeziaga-Idoia Lasa	25-06

**PARTIDUAK**

**Zapatua, otsailak 28, 15:30ean**

Nagore Morales-Janire Lazkano/Amaia Iribar-Alizia Gartzia
Oskar Sarasua-Roberto Mora/Ander Gorosabel-Ibon Untzetabarrenetxea
Jose Monterroso-Antton Pierruges/Asier Morales-Asier Osoro

**Domeka, martxoak 1, 11:00etan**

Mari Karmen Salas-Izaskun Ojanguren/Mireia Berriozabal-Rebeka Ubera
Adrian Gorostiza-Sergio Bouzas/Josu Urizar-Jabier Gamarra
Hodei Zenitagoia-Mikel Beretxinaga/Mikel Arkarazo-Josu Olasolo



HIRIGINTZA &gt; KALE BERRIA INAUGURATU DUTE

# Inauguratu berri duten Osteta kalean egin nahi du Udalak osasun etxe berria

Ostetako proiektuak zenbait aldaketa izan ditu eta ez dira eraikiko hasieran aurreikusten ziren adosatu guztiak

ARRITXU BARRUSO &gt; ARAMAIO

Aramaiok kale berria dauka; Osteta da haren izena. Martitzenean inauguratu zuten eta zazpi etxebizitza adosatuk eta aparkaleku batek osatzen dute kale berria.

Promociones Aramaio enpresak egindako etxebizitzak dira zazpiak ere. Kontua da hasiera baten Ostetan 11 adosatu egitea aurreikusten zuela enpresa eraikitzaileak, baina, Udalarekin akordioa egin ostean, hasierako proiektua aldatu egin da. Hori horrela, ez dute adosatu gehiago eraikiko eta horren partez etxebizitza bloke bat egingo dute. "Orain arte egindako adosatuak luxuzko etxebizitzak dira. Gaur egun bizi dugun krisi ekonomikoarekin ez da erraza horrelako etxebizitza bat erostea. Gainera,



Argazkian, Promociones Aramaio enpresako ordezkariak, alkatea eta Hirigintza zinegotzia.

ARRITXU BARRUSO

Udalera iritsi ginetik beti esan izan dugu etxebizitza soziala bultzatu nahi dugula, eta erabaki hau bide horretatik doa", azaldu du Asier Agirre alkateak. Izan ere, falta diren lau adosatuak

eraiki behar ziren lursailean zortzi etxebizitzako blokea eraikiko du Promociones Aramaio enpresak. Eraikinak bi solairu izango ditu eta behealdean lokal komertzial bat.

## OSASUN ETXEA

Udalak Construcciones Aramaio enpresarekin sinatutako hitzarmenaren helburu bat da etxebizitza merkeagoak eraikitzea herrian. Baina ez da hori helbu-

ru bakarra. Izan ere, akordio horri esker osasun etxe berria eraikiko dute Osteta kalean. Esan bezala, eraikin berriak lokal komertziala izango du eta hor kokatu nahi du Udalak osasun etxea. "400 metro koadroko lokala da eta hitzarmen horretan zehazten da Udalak erosi egingo duela etorkizunean osasun etxea eraikitzeko", dio alkateak.

Horretarako, baina, itxaron egin beharko da apur bat. Izan ere Aramaio Plan Orokorra onartu arte Construcciones Aramaio ez da hasiko bloke berria eraikitzen.

## APARKALEKUA

Bien bitartean, Udalak zortzi etxebizitza horiek eraikitzeko erabiliko den lursaila aprobetxatu nahi du. Hori horrela, enpresa eraikitzailearekin akordioa egin dute eta behin-behineko aparkalekua egokitu dute espazio horretan. "Aramaiok aparkaleku falta handia daukagu. 40 auto ingururendako lekua dago aparkaleku horretan, eta espero dugu orain arte autoa herriko plazan aparkatzen zutenek gune berri hau erabiltzea", azaldu du Agirre alkateak.

## kale inkesta

# Aramaiok euskararen kale erabilerak asko egin du behera gazte eta helduengan; espero zenuen beherakada hori?



**Edurne Uribarren-Iturrieta**  
Langilea  
Aramaio

Egia esan, ez nau batere harritu euskararen erabileraren beherakadak. Izan ere, seme gazte bat daukat eta uneoro esan eta esan ibiltzen gara euskaraz egiteko. Dena dela, nagusiok ere zerbait pentsatu beharko dugu horrelako datuak ikusita. Askotan, badi-rudi euskara umeen kontua dela, eta helduak egiten garenean gaztelaniara pasatzen gara beti.



**Jon Kortabarria**  
Langilea  
Aramaio

Ez dut datu zehatzen berririk izan, baina ez nau batere harritu euskararen erabilerak behera egiteak. Oraingo gazteena teknologia berrien belaunaldia da eta belaunaldi hori beste hizkuntza batzuekin moldatzen da. Helduetan ere gauza bera gertatzen dela uste dut. Tamalez, kalean izugarri igartzen da; gero eta gaztelania gehiago entzuten da.



**Jose Antonio Beitia**  
Erretiratua  
Aramaio

Gainontzekoek nola hitz egiten duten ez dakit. Baina nik soldadutzara joan nintzenez ikasi nuen gaztelania eta orduz geroztik ez dut gehiago erabili. Gure etxean guztiok euskara erabiltzen dugu. Are gehiago, emaztea zaintzeko kanpotar bat daukagu etxean eta hari ere euskaraz irakasten ari gara; goizetan "Egun on" esaten dit.



**Pedro Martin Etxebarria**  
Erretiratua  
Aramaio

Egia esan, ikusten dut gazteen artean euskara gutxiago erabiltzen dela. Uste dut lehen, debeatuta zegoenean, jendeak euskaraz hitz egiteko eta euskaraz bizi izateko gogo handiagoa zeukala. Badi-rudi orain, euskara librea denez, jendea erlaxatu egin dela. Helduak errazago ikusten ditut euskaraz berbetan, baina gazteak ez horrenbeste.

## ZINEMA

# Martxoan ere, zinema onena

Barikuetako film emanaldiak aurrera jarraitzen dute eta hilabete honetan ere zinema estreinaldi bikainez gozatze-ko aukera egongo da. Filmak ikusteko euro bat ordaindu beharko da.

## Emanaldiak

### Martxoak 6, barikua

*Vicky Cristina Barcelona*  
Zuzendaria: Woody Allen  
14 urtetik gorakoendako.

### Martxoak 13, barikua

*Juno*  
Zuzendaria: Jason Reitman  
Adin guztiendako.

### Martxoak 20, barikua

*La môme (La vie en rose)*  
Zuzendaria: Olivier Dahan  
Adin guztiendako.

### Martxoak 27, barikua

*Mamma mia*  
Zuzendaria: Phyllida Lloyd  
Adin guztiendako.

Emanaldi guztiak 22:15ean izango dira, kultura etxean.



KIROLAK > PILOTA FESTA

## Federatu ohien partiduak bihar

Arrasateko beteranoak jokatzen dabilzan txapelketako partiduak daude, trikitilariak girotuta

moduan-, eta girotze trikitilariak izango dira egun guztian: "Goizean eta arratsaldean dira partiduak, bederatziguztira, eta trikiti eta pandero doinuek egingo diete lagun", azaldu digu Mauri Zubillaga antolatzaileak. Hortaz, pilota aitzakia hartuta jai giroa sortuko dute herrian.

Zubillaga entrenatzailearen asmoa zen Gatzagako pilotari gazteek ere hainbat partidu jokatzea eguerdi inguruan, beteranoenak bukatutakoan, baina, gatzagarrak ez dira animatu: "Hurrengo baterako utziko ditugu gazte horien partiduak", esan du.

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Pilota festa antolatu du Mauri Zubillaga pilota entrenatzaileak Gatzagan. Arrasateko federatu ohiak jokatzen dabilzan txapelketako partiduak jokatuko dituzte bihar, pilotalekuan -urtarrilaren 31n egindako



EDORTA ARANA

EMAKUMEAK

## Martxoaren 6an, 'Greban gaude' antzerkia

Lakrikun taldeak eskainiko du antzezlan, kultura etxean (19:00)

M.A. > LEINTZ GATZAGA

Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta antzerkia izango da Gatzagan datorren egubakoitzean, Gizarte Zerbitzuak eta Sorginak Emakume Elkarteak antolatuta. Lakrikun antzerki taldeak *Greban gaude* eskainiko du Garro jauregian (19:00). Greba egitea erabaki duten hiru garbitzailek maitasunaz, familiaz, sexuaz, ilusioez... jardungo dute ironia handiarekin. Azpeitiko euskal antzerki topaketetan saritua izan zen.

'SORGINEN' BAZKARIA

Martxoaren 7an *sorginek* Gure Ametsan egingo duten bazkarirako izenemate epea bukatuko da bihar, otsailak 28. Labidea dendara jo behar da horretarako.

### Partiduak:

#### Goizean

09:30: Zugasti-Zubillaga / Etxeberria II.a-Korta  
10:00: Arostegi-Jimenez III.a / San Julian-Pozo  
10:30: Urkia-Osinaga / Zuazua-Belategi  
11:00: Nafarrate-Jimenez I.a / Kauldi-Murgoitio

11:30: Alzelai I.a-Jimenez II.a / Munain-Arroiabe

#### Arratsaldean


15:30: Rodriguez-Etxeandia / Ormaetxea-Bergaretxe  
16:00: Gurutze-Arostegi II.a / Etxeberria-Dominguez II.a  
16:30: Isturiz-Dominguez I.a / Garai-Pildain  
17:00: Korta II.a-Goikoetxea / Madariaga (Mauri)-Arana

## Ume, gazte eta helduak, mozorrotuta

Eguraldi ona lagun, giro bikaina sortu zuten Gatzagako ume eta gazteek Inauteri-zapatuan pilotalekuan. Herrikoekin batera inguruko herrietatik joandakoak zeuden eta Gurel guraso elkarteak antolatutako jolasak egiten jardun zuten arratsalde guztian.


Eta ilunkaran helduak ere mozorrotuta agertu ziren. Oilar, oilo eta txita talde handia agertu zen, baina ikusmin handiena udaltzainek sortu zuten. TAO makina jarri zuten eta automobil batzuek isuna zeukaten, hortaz, larritu ere egin ziren herritar batzuk. Afaltzeko 55 bat lagun elkartu ziren eta musika lagun goizaldera arte luzatu zuten festa.

## berriarekin



## Munduko ZINEMA

# euskaraz



BOST FILM:

Brokeback Mountain  
Ekialdeko promesak  
Gizakien seme-alabak  
Ezkutuko plana  
Lorezain leiala

Otsailaren 28tik aurrera,  
larunbatero, zure kioskoan BERRIarekin



+ 4,90€

Harpidedunentzat, bilduma osoa 19,40€  
Eskaria egiteko: 943-30 43 45

Maitasun istorioak,  
zientzia fisikoa,  
akzioa...  
kalitateko zinema

Aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**





Aitor Lopez Rekarte, Lukas Zerkaosteta dendan, salgai izango dituzten ardoen artean; Realeko kapitain oihak talde txuri-urdinaren elastikoa jantzi du berriro, Liga Futbol Indoor txapelketan.

x.u.

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Realean eta Almerian egin du Aitor Lopez Rekartek ibilbide profesionala, eta Gabonetan erabaki zuen maila goreneko futbola uztea. Hala ere, Realeko elastikoa jantzi du berriro ere, Liga Futbol Indoor txapelketan talde txuri-urdina ordezkatzeko. Badu, baina, hori baino arronka handiagoa: astelehenean Arrasaten zabalduko duten Lukas Zerkaosteta *delicatessen* denda aurrera ateratzea.

1997an egin zenuen lehen mailan debuta, eta hamabi urte geroago agur esan diozu elite mailako futbolari. Ez da izango erraza horrelako erabaki bat hartzea.

Ez da erraza, ez. Gainera, nahiz eta profesional moduan hamabi urte egin ditudan, txikitxikitatik egin dugun bizimodua da, eta orain beste egunerokotasun batera ohitzen gabiltza.

**Erraza ez dela diot, oraindik elite mailan jokatzen jarraitzeko moduan zaudela jakinda.**

Bai, eta hori da gogorrena, oraindik ondo zaudela ikusi eta erretiratzeko erabakia hartzea. Baina futbolarik berak tarteka ostikoak ere ematen ditu, eta hor hausnarketa egin behar da, norberaren bizitza ze puntutan dagoen ikustea. Eta behin hori ikusita, lehenbailehen birziklatzen hastea da onena.

Dena dela, nik badut abantaila txiki bat; izan ere, sekula ez naiz futbolarik amorratua izan. Orduan, errazago moldatuko naiz bizimodu berrira.

Deigarria da, horrenbeste urte Realean egon eta gero, gainera kapitain izanda, Aitor Lopez Rekarte erretiratu egin dela komunikabidetan azaldu ez izana.

Egia da aurrekoan gauza bera komentatu zenidanean horren ganean pentsatzen ibili nintzela, baina gero ez diot buelta gehiagorik eman. Kontu horiek ez dida loa kentzen.

Aitor Lopez Rekarte > Futbol jokalaria ohia

# "Realak energia positiboa behar du, derrigorrez"

**Almeriako egonaldia aurrekusi baino lehenago amaitu zen.**

Bai, bi urterako asmoarekin joan nintzen hara eta ez nuen kontratua bete. Lehenengo urtea gustura amaitu nuen, nahiz eta ez nuen askorik jokatu. Ez da erraza beti jokatzen tarteka jokatzea pasatzea, baina pozik nabilen, egoera berrira ondo moldatu nintzela ikusten nuelako, eta motibatuta jarraitzen nuelako.

Eta uste nuen klubean ere jendea pozik zegoela nirekin, jendearekin oso harreman ona nuelako.

**"Egia da ondo zaudela ikusita ez dela erraza futbola uzteko erabakia hartzea"**

**"Almeriako lehenengo urtea gustura amaitu nuen, gutxi jokatuta ere motibatuta nengoelako"**

**"Liga Futbol Indoor txapelketan partidu bakarra jokatu dut; jipoi ederra eman ziguten"**

Baina egia da kluba berezi samarra dela, eta hegoaldean beste kultura bat dutela. Kontuak kontu, adostasun batera lehenbailehen iritsi eta etxera bueltatzea erabaki genuen.

**Gabonetan ez zenuen gustuko proposamenik jaso?**

Beti egoten dira gauzatxoak, baina gaur egun klub batean sartzea ez da batera erraza, eta are gutxiago nire adinarekin. Gainera, beste gauza batzuk ere kontuan izan behar dira, familia... Hori horrela, ez, ez nuen futbolean jarraitzeko moduko gustuko eskaintzarik jaso.

**Dena dela, Realera itzuli zara, Liga Futbol Indoor txapelketan zabilzako. Zelan irten da egitasmo hori?**

Aurten bigarren urtez dabilzako txapelketa hori egiten, eta geroago eta oihartzun handiagoa du. Futbol profesionalen ligaren bat irabazi duten taldeak gonbidatzen dituzte txapelketa horretara, eta Realean jende faltan zeudenez animatzeko esan zidaten.

**Eta zer moduz?**

Oso ondo, nahiz eta nik partidu bakarra jokatu dudana, Real Madril taldearen kontra. Talde

batzuen eta besteen artean alde handia dago, batzuek seriotasun handiarekin hartzen dutelako, astean birritan entrenatuz, eta abar. Gu, oraingoz, lagun koadrila bat elkartu gara -Tayfun, Uri, Arantzabal...-, eta poliki-poliki neurria hartzen joan gura dugu, ez dugulako gura jipoi gehiago jaso gura.

Gainera, txapelketa horrek eskatzen du fisikoki oso ondo egotea, topera jokatzen delako, eta bertan jokatzen dutenak gazte-gazteak ez badira ere, bistan dago jendea asko zaintzen dela.

**"Liga Futbol Indoorren topera jokatzeke fisikoki oso ondo egon behar duzu, oso azkarra da"**

**"Realeko jokalaria Anoetan ez dira gustura zelairatzen, harmailetako tentsioa igarri egiten da"**

**"Negozio bat eramateko asko dugu ikasteko, baina munduko ilusio guztia dugu"**

**Juan Sanchez, Amavisca, Alfaro, Songo'o, Pantic... berezia izango da berriro ere jokalaria horiek aurrean izatea.**

Bai da berezia, bai, berriro ere euren kontra jokatzea. Esperientzia polita da.

**Asteburuan Coruñan jokatuko duzue.**

Bai, baina dendako lanak direla-eta ezin naiz joan. Hori da taldean daukagun arazo handietako bat, jendeak nork bere bizimodua duela eta ez dela erraza asteburuetan batetik bestera ibiltzea. Dena dela, partidua amaitutakoan taldekideei deituko diet, zer egin duten galdetzeko.

**Ez dut galduko Lilloren taldearen ganean galdetzeko aukera. Realak galdu egin du lehen mailara igotzeko trena?**

Argi dagoena da sailkapenean geroago eta tarte handiagoa egon behar dela eta aurreko postu horietan ez dagoenak trena galduko duela. Gurago dut positiboa izan, gero egongo delako beste-rako astia. Realak energia positiboa behar du, bestean konfiantza, eta ez Anoetan egoten den giro aldrebestu hori.

Esaterako, Realak Zaragozaren kontra jokatu zuen partiduan Anoetan izan nintzen semearekin, eta ez dut uste hori denik futbol giro onena. Realeko jokalaria Anoetan ez dira gustura zelairatzen, jokalaria iritsi egiten zaio harmailetan dagoen tentsioa.

**Futbola alde batera utzita, arronka berria duzue esku artean, astelehenean irekiko duzuen negozioa.**

Bai, orain momentuan gehien betetzen gaituen proiektua da, duda barik. Koinatuarekin batera murgildu gara Lukas Zerkaosteta dendan. Alde horretatik, egia da horrelako negozio bat eramateko asko dugula ikasteko, baina munduko ilusio guztiarekin gaude, eta poliki-poliki joango gara ikasten.



FUTBOLA > LAGUN ARTEKO PARTIDUA

# Euskal selekzioa gehiago izan zen eguaztenean

Mondra ondo aurreratu zen markagailuan (2-0), baina euskal selekziokoen joko azkarra erabakigarria izan zen (2-5)

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Eguaztenean, Andoni Azkargortak ez zuen normalean preferenteko taldearekin ateratzen duen hasierako hamaikakoa erabili. Are gehiago, ordezeko jokalariekin batera erregional mailako hainbat jokalaritari atera zituen Euskadiren kontrako partiduko lehen

zatian. Eta zuri-moreek lehenengo zati txukuna egin zuten selekziozko gazteen aurrean.

Norgehiagoka hasi baino lehen, Aitor Lopez Rekartek ohorezko satea egin zuen. Eta partidua hasi eta berehala Mondrak eman zuen lehenengo kolpea: Zabaletaren jaurtiketa zuzenezuzenean joan zen barrura. Arrasateko ezker hegaleko jokalariekin asmoa jaurtiketa egin baino gehiago erdiratzea zen, baina Euskadiko atezain Fernandezek ikusle lanak baino ez zituen egin jaurtiketa arean aurrean, eta ezin zen gehiagorik egin.

**BI ETA HUTSEKOA, EDERRA**

Mondraren hurrengo arrisku jokaldia Xabi Pabonek egin zuen, 20. minutuan, baloia zutoinera botata. Eta hamar minutu geroago etorri zen Mondraren bigarrena. Hor bai, jokaldi hartan Aranbarririk intentzio guztiaz egin zuen gola: Pabonekin egin zuen eraso jokaldia, eta area kanpotik Euskadiko atezaina apur bat aurreratuta harrapatu zuen (2-0).



Mondrako eta euskal selekziozko jokalariek, eguaztenean, Mojategin lagun arteko partidua hasi aurretik.

XABIER URTZELAI

KONTUAN HARTZEKO

## Arrasateko bi ordezkari selekzioan

Gorka Erañak eta Aitor Fernandezek Mojategin jokatu zuten eguaztenean lehenengoz. Athleticeko harrobikoak biak, atzo Euskadiko selekziozko elastikoa jantzi zuten. Fernandezek bi gol jaso zituen, ikusgarriak biak; atezainak askoz ere gehiago egin ezin duen horietakoak.

Erañak Euskadiko eraso antolatzen zuen zelai erdian. Azkarra, jokaldia egiteko etengabe eskaini zuen bere burua; pase onak ematen nabarmendu zen.

**EUSKADIREN ERREAKZIOA**

Ordura arte hotz samar zelairatu zen Euskadi berotzen hasi eta jokalariek gazteak duten maila erakusten hasi ziren. Zelai erdian Arrasateko Gorka Eraña nabarmendu zen, eta duda barik, aurrean Jon Etxaniz izan zen protagonista, *hat-trick*-a eginez. Aranbarririk 2-0koa egin eta bi minutura

etorri zen Etxanizen lehena: eskuin hankarekin Arrasateko atezainari iritsi ez zen lekura, zutoin ondora.

Binako berdinketan, Mondrak zelai erdian baloia galdu eta Erañak Etxaniz pase ona eman da, aurrelariak aurrelari izaera erakutsi zuen: atezainaren aurrean bakarrik, lasai, barrura (2-2).

Eta, lehenengo zatia amaitzear zela berriro ere protagonista berak: Erañak baloia loratuz pase oso ona eman zion Etxaniz (2-3).

Bigarren zatian entrenatzaileek goitik behera aldatu zituzten bi taldeak, eta jokoa nahasia goa izan zen. Santurtziko Aitor Villar izan zen protagonista, bi gol sartu zituen-eta.

BOZKATU  JAKIN ETA EGIN



# barretxe

ORAIN INOIZ BAINO GEHIAGO



# ASTELEHENKO Goienkaria

astehenean, aste bukaera osoa

## Harpidedunen txokoa

Otsaileko zozketa

Sariak irabazteko  
**HARPIDETU!**

Tel.: 943 08 10 50

Kuota: 40 euro

### SARRERAK



Bruesa- Kalise Gran Canaria partidurako sarrerak.  
BIDALI AG BRUESA 5533 zkra

### KAMISETA+POLTSA

skunkfunk



Skunkfunk kamiseta bat.  
BIDALI AG KAMISETA 5533 zkra.

### DVD



Danbakako DVD bat.  
BIDALI AG DANBAKA 5533 zkra

### PENT-DRIVE



Goienako Pent-Drive bat.  
BIDALI AG PENDRIVE 5533 zkra.

## SARI NAGUSIA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN  
ARTEAN ZOZKETATUKO DA

URDAIBAICO URRESTI LANDETXEAN GAU BAT



www.toprural.com/urresti  
Benetako landetxea Urdaibaien!  
Taldeentzat %10-eko deskontua

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.  
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioatzea. Eskubidea izango duzu datuotuan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@goiena.com

GIMNASIA ERRITMIKOA > ARIZNOAK 25 URTE

# "Herritarrek ez galtzeko moduko jaialdia antolatu dugu domekarako"

16:30ean Bergarako pilotalekuan hasiko duten jaialdian dantzak eta gimnasia erritmikoa bateratuko dituzte; Almudena Cid izango da izarra

XABIER URTZELAI > BERGARA  
Ariznoa Gimnasia Elkartek hila-beteak daramatza 25. urteurreneko ekitaldia prestatzen, eta iritsi da eguna. Domekan, 16:30ean hasita -leihatilak 15:30ean irekiko dituzte-, gimnasia erritmikoa eta hainbat estilotako dantzak bateratuko dituzten jaialdia egingo dute Bergarako pilotalekuan.

Horretarako, Ariznoako arduradunek Aukeran dantza konpainia, Samu Crew break taldea, Acro Indar gimnasia akrobatikoko taldea eta Almudena Cid gimnasta olinpiarra gonbidatu dituzte. Gainera, Bergarako gimnasiek erakustaldia egingo dute, eta baita Euskal Herriko gimnasta federatuek ere.

### JAIALDI ERAKARGARRIA

Ariznoako ordezkari Txomin Cabok argi adierazi zuen martitzeneko prentsaurrekoan dome-



Txomin Cabo, Ariznoa gimnasia elkartearen kidea.

GOIENKARIA

karako helburu nagusia herritarrendako erakargarria izango den jaialdia antolatzea dela: "Gu ez gaude horrelakoak egitera ohituta, baina asmoa zen denondako moduko ikuskizuna antolatzeari, ez bakarrik gimnasia erritmikoa ikustera ohituta daudenendako". Eta herritarrei

domekarako gonbita egin die: "Anima daitezela, ederto pasako dute-eta".

Gainera, ikusleek bertatik bertara ikusi ahal izango dute Almudena Cidek prestatutako erakustaldia; goizean, gimnasta olinpiarrek berbaldia egingo du Ariznoako neskekin.

## asteburuko hitzorduak

### FUTBOLA

**Bigarren maila**  
Eibar-Alicante  
Domeka. 17:00. Ipurua.  
Alaves-Reala  
Zapatua. 18:00. Mendizor.

**Gazteen euskal liga**  
Leioa-Bergara  
Zapatua. 15:30. Sarriena.  
Amorebieta-Aretxabaleta  
Domeka. 16:00. Txolon.

**Preferente maila**  
Pasaia-Mondra  
Zapatua. 17:00. Errenteria.  
Berio-Aloña Mendi  
Zapatua. 15:30. Donostia.  
Aur.Ondarroa-Aretxabaleta  
Zapatua. 17:00. Zaldupe.

**Lehen erregionala**  
Eibartarrak-Antzuola  
Zapatua. 15:30. Unbe.  
BTLS-Urola  
Zapatua. 19:30. Ipintza.  
Aretxabaleta-Anaitasuna  
Zapatua. 16:30. Ibarra.  
Mondra-Bergara  
Domeka. 16:30. Mojategi.

**Bigarren erregion. Igoera**  
Martutene-Bergara  
Domeka. 12:30. Martutene.

**Ohorezko gazteak, Kopa eta jaitsiera**  
Mondra-Amara Berri  
Zapatua. 16:00. Mojategi.

**Gazteak, kopa**  
Eibartarrak-Aretx. Arizmen.  
Zapatua. 17:30. Unbe.

**Ohor. kadeteak, igoera**  
Ordizia-Aretx. Arizmendi  
Zapatua. 11:30. Altamira.  
Billabona-Bergara  
Zapatua. 11:30. Arratzain.

**Ohor. kadeteak, kopa**  
Arrasate-Ostadar  
Domeka. 11:30. Mojategi.  
Aloña Mendi-Eibar  
Domeka. 16:30. Azkoagain

**Lehen kadeteak, igoera**  
Behobia-Aretxabaleta  
Zapatua. 17:30. Irun.  
**Lehen kadeteak, kopa**  
Urola-Aloña Mendi  
Zapatua. 16:00. Argixao.  
Bergara-Arizmendi  
Zapatua. 17:00. Ipintza.

**Infantilen ohorezko maila, kopa eta jaitsiera**  
Aretxab. Arizmendi-Urola  
Zapatua. 11:30. Ibarra.  
Bergara-Hondarribia  
Domeka. 11:30. Ipintza.

**Emakum. igoera fasea**  
Arizmendi-Soraluce  
Zapatua. 15:30. Almen.  
Mondra-Lazkao  
Zapatua. 18:00. Mojategi.

**Emakumezkoen Kopa**  
Aloña Mendi-Arizmendi  
Zapatua. 16:30. Azkoagain.

**Emakumezkoen kadete F-11, txapeladunen fasea**  
Beasain-Bergara  
Zapatua. 15:30. Igartza.

### SASKIBALOIA

**Series Colegiales**  
Arizmendi Dragons-Loiola  
Gaur. 17:30. Iturripe.

**Senior gizezkoak**  
MU-Kostkas  
Zapatua. 16:00. Musakola.  
Teklan-Aloña Mendi  
Domeka. 12:00. Hernani.  
Soraluce BKE-Oiartzun  
Zapatua. 19:00. Labegara.  
Aloña Mendi-Gabi Jatetxea  
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

**Emakumezko seniorrak**  
Eskoriatza-Krafft-Aletico  
Zapatua. 18:00. Intxaurtxu.

**Gazte mailako gizezko.**  
Gros-Transbretaina BKE  
Zapatua. 16:00. Donostia.  
Aloña Mendi-Oiartzun  
Zapatua. 11:45. Zubikoa.

**Gazteak, emakumezkoak**  
Ogi Berri-Eskoriatza  
Zapatua. 12:00. Donostia.  
Añorga-Soraluce BKE  
Zapatua. 16:00. Donostia

**Kadete gizezkoak**  
Mondra-Easo elurra  
Domeka. 11:45. Musakola.  
MU-Hernani  
Domeka. 09:45. Musakola.  
Aloña Mendi-Internacional  
Domeka. 12:00. Zubikoa.

### ESKUBALOIA

**Euskadiko txapelketa**  
Ford Mugarri-Urduliz  
Zapatua. 19:00. Pasaia.

**Lehen territoriala**  
Usurbil-Soraluce  
Domeka. 12:00. Usurbil.

**Bigarren territoriala**  
Arrasate-Leizaran  
Domeka. 11:30. Iturrip.  
Rotula-Aloña Mendi  
Domeka. 11:30. Ordizia.

**Federazio saria**  
Leizaran-Aloña Mendi  
Domeka. 11:45. Andoain.  
Aiala-Citroen Chapime  
Zapatua. 11:30. Zarautz.  
Berezo-Aloña Mendi  
Domeka. 11:30. Zubikoa.  
Bergara-Pulpo  
Zapatua. 17:15. Labegarai.

### ERRUGBIA

**Seniorrak**  
Arrasate-Aratiko zekorrak  
Zapatua. 12:00. Mojategi.

**Beteranoak**  
Bocau-Herensugeak  
Zapatu arratsa. Biarritz.

### GIMNASIA ERRITM.

**Ariznoaren 25. urteur.**  
Domeka 16:30. Bergarako pilotalekuan.

### XAKEA

**Euskadiko Lehen maila**  
Urnieta-Arlutz

**Gipuzkoako preferentea**  
Eibar A-Arrasate A


**Gipuzkoako lehen maila**  
Arrasate B-Baiona A

**Gipuzkoako bigarren maila**  
Mundarro B-Arrasate C.  
Bergara Zaleak-Zarautz D

### TRIALSINA

**Gipuzkoako txapelketa**  
Domekan. 10:30.  
Aretxabaleta.





**> MUSIKA**  
Zuberoako kantak, Bergaran, Etxart aita-seeekin, gaur > 38



**> DANTZA**  
Lur sagar ikuskizuna bihar, zapatua, Amaia antzokian > 39

**> IÑIGO UGARTE**  
Oñatiko gazteari asko gustatzen zaio musika: Oñatiko Musika Bandan tronpeta jotzen du eta hori da haren kuttuna; pianoa eta gitarra ere jotzen ditu > 42



Delorean taldeak emanaldi berezia eskainiko du gaur (22:30): lagun dituzten bi talde izango dira euren ondoan eta kantu berriak joko dituzte.

DELOREAN

## Etenik gabeko pop dantzagarria Jam-en, Deloreanen eskutik

Talde zarauztarrak kontzertua eskainiko du gaur Bergarako Jam aretoan, 22:30ean hasita

Delorean taldekoen lagunak diren The Requesters eta DJ Kigo ere badatoz, festa osatzeko

### JOKIN BEREZIARTUA > BERGARA

Zarauztarrak badira ere, Bartzelonan dute gotorlekua Eki Lopegegik (ahotsa eta baxua), Tomas Palomok (gitarra eta teklatuak), Unai Lazkanok (gitarra eta teklatuak) eta Igor Escuderok.

### POP-ROCKA ETA ELEKTRO DANCEA

Delorean dira, 2000. urtean jaio-tako pop-rock, elektronika eta musika dantzagarria uztartzen dituen euskal talde berritzailea. Musika molde horretako talde gehienak ez bezala, Deloreanek ohiko rock talde baten instrumentuak erabiltzen ditu: gitarra,

baxua eta bateria (eta teklatuak). Ingelesez abesten dute, musika ingelesez entzuten dute-eta. Hala, ingelesez abesteak hainbat ate zabaldutako dizkie nazioartean ezagunak egiteko. 2005ean utzi zuten Zarautz, eta egun Bartzelonan bizi dira. Han eginbeharrak amaitu eta gero, ia egunero biltzen dira euren estudioan, zainetan darotaten musika sortzen gozatzeko.

Atzo Bartzelonan jo ostean etorriko dira gaur Bergarako Jam aretora. Ateak 22:30ean zabalduko dira. Sarreraren prezioa: 10 euro aurrez eta 13 euro leihatilan bertan.

### ARRAKASTA EUSKAL HERRIAN...

Hasieratik musika ezberdina egiten hasi zen Delorean, eta euren estiloan aitzindari izan zirela esan daiteke. Eskaintza berezia zen, ezberdina, eta laster egin ziren ospetsu. Unai Lazkanok taldekideak adierazi duenez: "Euskal Herrian oso harrera ona izan dugu, eta horrek esan nahi du hemen musika ulertzeko ikuspegi zabala dagoela".

### ...ZEIN NAZIOARTEAN

Euskal Herriatik kanpo are ezagunagoa da laukote zarauztarra. Atzerrian hamaika bira eginda-koak dira, eta, besteak beste, Frantzia, Alemania, Norvegia, Mexiko eta AEBetan izan dira. Lazkanok Alemaniako esperientzia azpimarratu gura izan du: "Bost urtean jarraian joan gara, okupatutako etxeetan egiten genuen lo. Urterik urte ikusi dugu

taldea nola joan den handitzen. Lehen urtean hamar ikusle inguru izaten genituen kontzertuetan eta azken urtean areto batzuk lepo betetzera heldu ginen". Izan ere, gaur egun pop-rock eta dance estiloan talde ezagunenetakoa izatera heldu da Delorean.

Azkenik, Lazkanok ezagutzera emateko dei egin die "euren entsegu lokaletan proiektu ezberdinak lantzen dabiltzan taldeei".

DATUA

# 3

DISKO KALEAN

2000. urtean taldea sortu zenetik, hiru lan atera ditu dagoeneko laukote zarauztarrak: *Delorean* (2004), *Metropolitan death* (2005) eta *Into the plateau* (2006). Laster aterako dute euren azken lana.

GAURKO EMANALDIA

### Delorean gidari duen 'desparramea' Jam-en

Delorean izango da gaurko emanaldiaren gidaria. Hala, The Requesters eta DJ Kigoren -K\*\*O izena hartu du orain- batera *desparramea* ekarriko dute Bergarako Jam aretora. Hortaz, Deloreanen *desparramea* guztietan moduan, dantzatzeari uztea debekatuta egongo da.

Bestalde, martxo eta maiatza bitartean *Ayrton Senna* izeneko 12 hazbeteko binilozko maxi single bat aterako dute, lau abestiz osatua. Bada, lau kantuok zuzenean joko dituzte gaur; beraz, jarraitzaileek Deloreanen proiektu berria zuzenean ezagutzeko aukera izango dute. Gaur ezin duenak beste *desparramea* bat du bihar, Bilboko Kafe Antzokian.



MUSIKA &gt; BERGARAKO ZABALOTEGIN

# Zuberoako kantak Etxart aita-seeekin eta Larrandabururekin

Zuberoako hiru kantariak 'a capella' abestuko dute gitarraren laguntzarekin, gaur, 22:30ean

Sarrerak erosteko leihatila emanaldia hasi baino ordubete lehenago zabalduko dute

MIREIA BIKUÑA &gt; BERGARA

Zuberoako kantuekin gozatzeko aukera izango dute gaur Bergarako Zabalotegi aretoan. Dominika eta Niko Etxart aita-seeek eta Robert Larrandaburuk emanaldia egingo dute 22:30ean. Leihatilak ordubete lehenago zabalduko dituzte. Sarrerak hiru eurotan salduko dituzte.

## 'A CAPELLA'

Hiru kantariak Zuberoako kantak abestuko dituzte: batzuk, entzuleendako oso ezagunak direnak; eta beste batzuk, hain ezagunak ez direnak. Baina guztiak *a capella* kantatuko dituzte.

Kantu batzuetan gitarra doinuen laguntza izango dute. "Polifonia berezia sortuko dute", esan digute antolatzaileek.

## KANTU ZAHAR HERRIKOIAK


Niko eta Dominika Etxartek eta Robert Larrandaburuk *Eperra* izeneko diskoa grabatu zuten 2004. urtean. Besteak beste, zuberotar kantu zahar herrikoiak, hango konpositore handiek utzitakoak (Ligeix, Etxahun, Attuli eta Latxikana) eta eurek sortutakoak grabatu zituzten; tartean, diskoari izena ematen dion *Eperra* kantua. Sofistikazio handi barik lirika herrikoia betiko

gaiak erabili zituzten oinarri moduan: maitasuna, herrimina, eta hizkuntzarenganako fedea, besteak beste. Duela bost urte grabatutako diskoak eskainiko dituzte Bergarako emanaldian.

## ERROMERIETAKO TALDEETAN

Niko Etxart Altzürükün jaio zen 1953an. Bi urte zituela gurasoek Parisera eroan zuten, baina ez zuen euskara galdu. 21 urte zituela itzuli zen handik.

Parisen, 1972an, kantari frantses ezagun baten diskoan aho-tsak egin zituen. 1979an kalera-tu zuten Euskal Herrian ezagun egin zuen *Nahasteka* diskoa. Gainera, Tximinorrek eta Minxoriak taldeetan kantatu zuen herrietako erromerietan. Ezagun egin zen Mikel Laboaren *Baga biga higa* kantuaren bertsio rockeroatik eta *Tumatxa* edota *Twist titi* kantuak idazteagatik.



Argazkian, Niko Etxart.

GOIENKARIA

BERTSOLARITZA &gt; ARABAKO BERTSOLARI TXAPELKETA

# Andere Arriolabengoa, Xabi Igoa eta Iker Agirre, aste bukaerako kanporaketetan

Arriolabengoa eta Igoa Oionen lehiatuko dira gaur, eta Agirre bihar, Zaldudon

Puntu gehien lortzen dituzten bi bertsolariak zuzenean sailkatuko dira finalerako

M.B. &gt; ARAMAIO

Arabako Bertsolari Txapelketako bigarren eta hirugarren kanporaketak jokatu dituzte aste bukeran. Hain zuzen, gaur Oionen eta bihar Zaldudon. Aramaio hiru bertsolari lehiatuko dira txapelketan: Andere Arriolabengoa eta Xabi Igoa gaurko kanporaketan lehiatuko dira eta Iker Agirre biharkoan.

Kanporaketan bakoitzean puntu gehien batzen dituzten bi bertsolariak sailkatuko dira zuzenean apirilaren 4ko finalerako. Beste finalistak kanporaketa guztietako puntuaketen arabera aukeratuko dituzte.



Manex Agirre (ezkerretik hasita lehena), agurreko bertsoa kantatzen.

GOIENKARIA

## MANEX AGIRRE, FINALEAN

Arriolabengoa, Igoa eta Agirre aramaioarrek Manex Agirrek hartutako bidea jarraitu gura dute. Agirrek finalerako sailkapena eskuratu zuen Amurrión

jokatutako kanporaketan, Juan Mari Juaristirekin batera. 158 punturekin gailendu zen.

Lehen kanporaketako sei bertsolariak zortziko nagusian eta zortziko txikian egin zuten ofizio-

ko lana. Barkakako atalean, puntuari erantzun eta hitzari bertsoa bota zioten. Goiko irudian ikusten den moduan, bertsolariak mozorrotuta kantatu zuten agurreko bertsoa.

LEHIAKETA

## Musika moderno lehiaketako epea ixtear

Martxoaren 16ra arte eman daiteke izena Bergarako Musika Eskolan

M.B. &gt; BERGARA

Bergarako Musika Eskolak antolatutako I. musika moderno lehiaketan izena emateko epea martxoaren 16an itxiko dute. Informazio gehiago gura duenak [idezkaritza@bme.e.telefonica.net](mailto:idezkaritza@bme.e.telefonica.net) helbidera idatz dezake edo 943 76 57 80 telefonora dei dezake.

## EZ PROFESIONALEN DAKO

Musika eskoletako talde modernoendako lehiaketa da, eta ez dituzte profesionalak onartuko. Parte-hartzaile bakoitzak bi kantu aurkeztu ahaliko ditu, gehienez. Lehiaketa modalitate bakar batera mugatu dute; alegia, musika modernora (popa, rocka, bluesa...). Emanaldiak Zabalotegi aretoan egingo dituzte. Irabazleak 400 euro irabaziko ditu eta publikoaren saria jasotzen duenak, 200 euro.



IKUSKIZUNA &gt; MUSIKA ETA DANTZA UZTARTZEN DITUEN EKITALDIA

# 'Lur sagar' dantza ikuskizuna bihar, zapatua, Arrasateko Amaia antzokian

Dantzaz dantza taldeko hamar dantzarik hiru lan eskainiko dituzte 'Lur Sagar' izeneko ikuskizunean, 19:30ean hasita

JASONE ZABALA &gt; BERGARA

Dantza ikuskizun polita eskainiko dute bihar Arrasateko Amaia antzokian, 19:30ean. Biarritz Ballet taldean dagoen Dantzaz taldeak *Lur Sagar* izeneko ikuskizuna eskainiko du. Guztira hiru lan izango dira eskainiko dituztenak Dantzaz taldeko hamar dantzariek.

## HIRU LAN GUZTIRA

Taldeko arduradunen esanetan, "Europako hiru koreografok mugimenduz eta kemenez agertokia beteko dute, dantzarien bertute fisiko eta interpretatibo-



*Songeurs* (amesgileak) lanaren irudi bat.

GOIENKARIA

ez baliatuz". Ikuskizunak ordubeteko iraupena izango du. Ingalaterra, Frantzia eta Holandako sentikortasun ezber-

dinak erakutsiko dizkigute dantzariek. *Jaar Eden* (*Eden Ibaia*) izango da lehena. 15 minutuko iraupena izango duen lan horre-

tan, bi dantzari Jaar Eden ibaia ureztatzen duen iturburuaren bila joango dira. Gai ugari buruz galde egitera eramango

dituen arakatzeko lan bat da: egunerokotasuna, euren emozioak, oroitzapenak... Aldi berean, Edenari buruz eta bizitzaren sorburu den iturriari buruz orain dugun ideien irudikapena ulertzera gonbidatzen gaitu, gure fantasiaz eta sinismenez soilik betetako lorategi batean, gizakia bertatik erbesterratu zutenetik. Naturaren bidez gure izateari buruz galde egiten duen lana da. Bigarren lana *Songeurs* (amesgileak) deitzen da. Lan horrek ere 15 minutuko iraupena izango du. Hiru gizonetako rendako egokitutako lana da eta beraie unibertso onirikoan sartzea proposatzen digu obrak. Azken lana *Earth apples* (Lur sagarrak) izeneko da eta ikuskizunari izena ematen dio. 18 minutuko iraupena izango du eta lan horren koreografo Itzik Galiliren esanetan, "koreografia hori sei emakumezko dantzarik eta gizonetako dantzarik batek interpretatuko dute, eta elkartu egingo dute euren gaztetasuna lurraren antzinako jatorriekin".

MUSIKA &gt; GATIBU TALDEA

# Gatibu taldearen kontzertua gaur gauean 3.60 aretoan

'Laino guztien gainetik, sasi guztien azpitik' hirugarren diskoa aurkeztuko dute

Kontzertua 22:30ean hasiko da; sarrerak 10 euro balio du eta aurre-salmentan, berriz, 7 euro

J.Z. &gt; BERGARA

Gernikako laukoteak gaur, otsailak 27, aurkeztuko du Arrasateko 3.60 aretoan, 22:30ean, *Laino guztien gainetik, sasi guztien azpitik* disko berria, euren hirugarren lana. Sarrerak 10 euro balio du eta aurre-salmentan, berriz, 7 euro.

Laukote gernikarra-Alex Sardui, ahotsa; Gaizka Salazar, bateria; Mikel Caballero, baxua; eta Haimar Arejita, gitarra-Euskal Herrian zehar aurkezten ari da azken lana. Disko horretako abestirik ezagunena *Bang-bang txiki-txiki bang-bang* izeneko da, azken hilabeteetan irratia independenteek eta irratia-formulek askotan jarri dutena. Disko berriak hamar abesti dauzka: *Bang-bang txiki-txiki bang-bang*; *Eztanda egin arte*; *Ure dakar zeruek*; *Bizitze-*

*ko gogoa*; *Nor zara zu?*; *Pailazo*; *Zoragarri xori*; *Apirilaren 27*; *Zeu, zeu, zeu!* eta *Hitz artien gal-dute*.

## JARRAITZAILE UGARI

Gatibuk jarraitzaile fidel asko dauzka, eta jende piloak gozaten du Alex Sardui eta konpainiaren zuzeneko beruez.

Gernikarrak hiru diskorekin etorriko zaizkigu 3.60 aretoan, 2002an *Zoramena* izeneko eta 2005ean *Disko infernu* bezala batailatutakoa ere ekarriko dituzte-eta.

## DISKO BERRIA

*Laino guztien gainetik, sasi guztien azpitik* hirugarren diskoa tenpo erdiko abestiz osatuta dago. Rocka, Gatibu taldearen erara. Sentimenduz jositako abestiak.



Alex Sardui, Gatibuko abeslaria.

IMANOL SORIANO

LEHIAKETA

## Ziberkomiki lehiaketa antolatu du Aldundiak

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako eta DBHko ikasleek har dezakete parte

J.Z. &gt; BERGARA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Sailak ziberkomiki lehiaketa antolatu du lehenengo aldiz. Bertan, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako eta DBHko ikasleek har dezakete parte. Egitasmo horrekin, Aldundiak kultura eta ondarearen inguruko balioak sustatu nahi ditu ikasleen artean. Komikiei lotuta, hizkuntzaren erabilera berezia lantzeko aukera eman nahi die.

## SEI GAI

Helburu horren inguruan sei gai proposatu ditu erakundeak. Sei istorioak [www.gipuzkoa.euskara.net/ziberkomikia](http://www.gipuzkoa.euskara.net/ziberkomikia) helbidean aurki daitezke. Aurkeztu nahi dutenek [ziber-gipuzkoa@yahoo.es](mailto:ziber-gipuzkoa@yahoo.es) helbidera bidali beharko dute komikia apirilaren 30a baino lehen.



## 1/ ETXEBIZITZAK

## 101. SALDU

**Antzuola.** 88 metro koadroko etxebizitza, jantzia. Hiru logela, egongela, bi komun eta sukaldia. Garaje irekia, trastelekua-rekin. Hirugarren solairua, igogailuarekin. Aitziber, Deitu 697 78 07 29 zenbakira.

**Aretxabaleta.** 72 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Aukera ona. 659 64 67 38.

**Marieta (Araba).** 200 metro koadroko etxe bakarra. Bost logela, 37 metro koadroko egongela beheko suarekin. Hiru komun eta sukaldia. Bi autotendako garajea eta 856 metro koadroko lorategia (ureztatze automatikoarekin). Aukera ona. 628 45 09 65 edo 616 96 99 20.

## 103. ERRENTAN EMAN

**Benidorm.** Apartamentua ematen da errentan. Bi logelakoa. Levanteko hondartzako lehenengo lerroan. 630 41 84 65.

**Bergara.** Etxebizitza jantzia ematen da errentan. 943 76 46 15 edo 652 53 42 81.

**Oñati.** 86 metro koadroko etxebizitza errentan Euskadi etorbidean. Hiru logela, sukaldia, komunak, egongela eta garaje plazarekin. Igogailu barik. Deitu 665 74 68 24 zenbakira.

## 104. ERRENTAN HARTU

**Apartamentua** hartuko nuke errentan Debagoieneko edo errentan herritan. 663 72 78 23.

**Arrasate.** Etxebizitza hartuko nuke errentan erdigunean. Presazkoa da. Deitu 666 75 73 21 zenbakira.

**Bergara.** Erdialdean etxea errentan hartuko nuke. Deitu 669 64 76 28 zenbakira.

**Bergara.** Etxebizitza behar dut errentan. Urgentzia da. 669 12 70 98.

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. Deitu 610 91 33 40 telefonora.

**Debagoiena.** Bikote arduratsua baserri osoa edo baserri bateko logela hartuko luke errentan. 665 70 10 57.

## 105. ETXEAU OSATU

**Arrasate.** Gela bat ematen da errentan. Hiru gela, saloia, komun bi eta sukaldia. Etxe argitsua. 670 04 27 41.

**Arrasate.** Gela ematen da errentan unibertsitate ondoan. Bero-gailuarekin eta ikasteko mahaia-rekin. Toki lasaia. 630 71 35 83.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. Pertsona bakarrarentzat. 666 21 88 95.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan, sukaldia eta egongelarako eskubidearekin. Pertsona heldua bada, hobeto. 666 75 73 21.

**Arrasate.** Pertsona bat behar da etxea osatzeko. Oso egoera onean dagoen etxebizitza da. 616 05 97 92.

**Bergara.** Logela ematen da errentan Bolun, sukaldia erabiltzeko aukerarekin. 250 euro. 670 85 86 68.

**Bergara.** Logela hartuko nuke errentan. 690 97 44 32.

**Donostialdea.** Hernani edo inguruan logela hartuko nuke errentan. Martotik uztailera bitartean. 652 71 52 50.

## 2/ GARAJEAK

## 203. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Garaje itxia errentan ematen da Espolitan. Deitu 645 00 78 19 telefono zenbakira.

## 4/ LANA

## 402. ESKAERAK

**Arrasate edo Bergara.** Mutila gertu edozein lan egiteko. Nagusiak zaintzen esperientzia daukat. 685 70 76 25.

**Arrasate edo Bergara.** Nagusiak gauze edo aste bukaeretan zaintzen lan egingo nuke. Esperientzia eta erreferentziaduna. Paperak ditut. Deitu 686 52 15 98 zenbakira.

**Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza.** Etxerik ebeile apaintzaile lanak egiten ditut. Deitu 650 99 93 91 telefonora.

## IRAGARKI SAILKATUAUAK

## 1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU  
102. EROSI  
103. ERRENTAN EMAN  
104. ERRENTAN HARTU  
105. ETXEAU OSATU  
106. BESTELAKOAK

## 2. GARAJEAK

201. SALDU  
202. EROSI  
203. ERRENTAN EMAN  
204. ERRENTAN HARTU  
205. BESTELAKOAK

## 3. LOKALAK

301. SALDU  
302. EROSI  
303. ERRENTAN EMAN  
304. ERRENTAN HARTU  
305. BESTELAKOAK

## 4. LANA

401. ESKAINTZAK  
402. ESKAERAK  
403. BESTELAKOAK

## 5. IRAKASKUNTZA

501. JASO  
502. EMAN  
503. BESTELAKOAK

## 6. MOTORRA

601. SALDU  
602. EROSI  
603. ALOKATU  
604. BESTELAKOAK

## 7. ANIMALIAK

701. SALDU  
702. EROSI  
703. EMAN  
704. BESTELAKOAK

## 8. DENETARIK

801. SALDU  
802. EROSI  
803. EMAN  
804. HARTU  
805. TRUKATU  
806. GALDU  
807. AURKITU  
808. BESTELAKOAK

## 9. HARREMANAK

901. AGURRAK  
902. HARREMANAK  
903. DEIAK  
904. BESTELAKOAK

## 10. RELAX

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarki bakarririk iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

# 943 25 05 05

sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK: ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU, LOKALA SALDU/ALOKATU, GARAJEA SALDU/ALOKATU, MOTORRA SALDU, GOIENKARIA-N + ASTELEHENENGO GOIENKARIA-N 18 € (BEZ BARNE).

GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Arrasate.** Egun erdiz, osoz edo orduka lan egiteko gertu nago. 666 75 73 21.

**Arrasate.** Emakume eskalduna lanerako gertu. Deitu 659 82 75 18 telefonora.

**Arrasate.** Neska eskalduna gertu etxeak garbitu edo joste lanak egiteko. Deitu 678 66 59 54 edo 943 79 12 00 telefono zenbakietara.

**Arrasate.** Neska gertu etxeko lanak egin edo ume zein nagusiak zaintzeko. 618 00 08 28.

**Arrasate.** Neska gertu umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 618 00 08 28.

**Bergara.** Emakume arduratsua gertu nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko, plantatze eta bazkariak gertatzeko. 667 00 89 40.

**Bergara.** Neska gertu arratsaldez lan egiteko. Garbiketa lanetan edo umeak edo adinekoak zaintzen. Deitu 618 34 09 35 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** 44 urteko emakumea gertu pertsona nagusiak zaintzeko. Etxean bertan bizitzeko prest nago. 606 64 16 09.

**Debagoiena.** Bigarren mailako ofizial, ostalaritza laguntzaile edo garbiketa lanak egingo nituzke. 649 62 88 22.

**Debagoiena.** Bigarren mailako ofiziala lanerako gertu. Esperientzia handia. 610 63 17 71.

**Debagoiena.** Bikote arduratsua gertu baserrietan, etxeetan, lokaletan edo elkarrekin garbiketa lanak egiteko. Autoa dugu. 665 70 10 57.

**Debagoiena.** Edozein desbrozadorea lan mota egiteko gertu. Eskalduna. Esperientziaduna. 658 73 79 02.

**Debagoiena.** Emakume arduratsua gertu garbiketa lanak egiteko, lisatzeko eta josteko. 628 23 50 55.

**Debagoiena.** Emakume esperientziaduna gertu nagusiak zaintzeko, etxean bertan lo egiten. Orduka ere lan egingo nuke. Erreferentziak daukat. Deitu 628 40 58 27 zenbakira.

**Debagoiena.** Emakumea gertu orduka lan egiteko. 5. ordu orduko. Deitu 669 53 02 92 edo 943 79 70 59 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumea gertu ume zein nagusiak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Deitu 943 77 01 66 zenbakira.

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egin eta nagusiak egunze edo gauze zainduko nituzke. Esperientzia. Erreferentziaduna. Paperak ditut. 680 87 38 66.

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egiten edo ume zein nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Ainhoa. 671 35 22 60.

**Debagoiena.** Gizona gertu edozein lan egiteko. 645 72 92 87.

**Debagoiena.** Ilea apaintzaile lanerako gertu nago. Deitu 639 00 35 57 telefonora.

**Debagoiena.** Ingelesko eskola partikularrik ematen ditut, etxerik etxe. Maila guztiak. Deitu 619 38 62 56 zenbakira.

**Debagoiena.** Mutila edozein lan egiteko gertu. 628 93 79 39.

**Debagoiena.** Mutila edozein lan egiteko gertu. 630 61 29 30.

**Debagoiena.** Mutila gertu baserriko lanak egiteko, ardiak edo behiak zaintzen. 663 60 51 64.

**Debagoiena.** Mutila gertu zerbizari edo garbiketa lanetan jarduteko. 634 45 28 77.

**Debagoiena.** Mutila gertu zerbizari lanerako. Egunean bost orduz. Orduz gailu. 943 71 21 15 edo 679 58 41 92.

**Debagoiena.** Mutila gertu zerbizari, sukaldelaguntzaile edo nagusiak zaintzen lan egiteko. 672 25 92 20.

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu. 618 34 09 35.

**Debagoiena.** Nagusiak zainduko nituzke etxean bertan bizitzeko, edo bestela. Deitu 680 30 24 64 zenbakira.

**Debagoiena.** Neska gertu umeak edo adinekoak zaintzen edo etxeko lanetan jarduteko. Deitu 667 90 38 56 zenbakira.

**Debagoiena.** Neska gertu umeak edo adinekoak zaintzen edo garbiketetan lan egiteko. Deitu 699 63 12 02 telefonora.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaintzen, garbiketetan edo sukaldian lan egingo nuke. Autoa daukat. Deitu 666 21 88 95 telefonora.

**Debagoiena.** Zerbizari lanak egingo nituzke asteburuetan. Deitu 617 73 09 02 zenbakira.

**Debagoiena.** Zerbizaria lanerako gertu. Zortzi urteko esperientzia dut. 657 02 15 96.

**Gipuzkoa.** Garbiketa, gizarte laguntzaile edota igeltsorotza lanak egingo nituzke. Legezko paperak daukat. Rolando Melgar. 672 25 92 18.

**Oñati.** Neska eskalduna gertu tabernak edo elkarteak garbitzeko edota sukaldian lan egiteko. Esperientzia daukat. 943 08 18 13 edo 635 70 09 92.

**Oñati.** Neska eskalduna gertu tabernak edo elkarteak garbitzeko, edota sukaldian lan egiteko. Esperientzia. 943 08 18 13 edo 635 70 09 92.

**Sukaldaria.** Bergarako mutil gaztea sukaldelak lanak egiteko gertu: erosketak egin, jana prestatu eta sukaldia batu. Galdetu Manurengatik. 610 80 07 39.

**Zerbizaria.** Astelehenetik eguenera lan egingo nuke. Eneko. 690 17 45 60.

## 5/ IRAKASKUNTZA

## 501. JASO

**Bergara.** Lehen Hezkuntzako eskola partikularrik ematen dituen norbait behar dut. 675 70 10 63.

**Bergara.** Maisu-maistra ikasketak egiten ari den pertsona bat behar dut, 6. urteko ume bati entzumenaren eta hizkuntzaren gaineko eskolak emateko. 943 76 99 65 edo 943 76 20 94.

## 502. EMAN

**Arrasate.** DBHko eta LMHko eskola partikularrik ematen dira. Talde txikiak. Esperientzia handia. 658 70 67 84.

**Bergara.** Ingeles irakasle eza-guna berriro ere eskolak ematen. Etxeko lanekin edo azterketak gainditzeko laguntza. 616 12 56 29.

**Debagoiena.** LMHko eskola partikularrik emango nituzke. 605 71 09 07.

**Oñati.** Ingeniaritzako eskola partikularrik emateko prest: matematika, fisika, kimika... 646 42 13 63.

## 6/ MOTORRA

## 601. SALDU

**Seat Alhambra** monobolumena. 1.9 TDI. 115 ZP. 2002koa. Gaur egungo azken modelo. 99.500 km. Oso egoera onean eta estra askorekin. 9.000 euro + BEZa (negoziagarriak). Aukera aparta. 610 38 12 44.

## 7/ ANIMALIAK

## 701. SALDU

**Basurdeak** salgai Orozkon. Deitu 678 72 75 72 zenbakira.

**Cocker ingelesa** salgai. Beltza. Emea. Txertoak jarrira dauzka. 300 euro. 618 00 08 28.

**Podenko** eta mastin arrazako nahasketa diren urtebeteko txurrak saltzen ditut, ezin ditudalako zaindu. Prezioa adosteko. Deitu 678 88 05 64 edo 678 53 82 11 telefono zenbakira.

## 702. EROSI

**Basurde** ar handiak erosiko nituzke. 678 72 75 72.

## 703. EMAN

**Ardi txakurra** opari egiten dut, ezin atenditzeagatik. Deitu 678 61 50 40 telefonora.

## 8/ DENETARIK

## 801. SALDU

**'Brain training'** joko berria salgai. 20 euro. 617 13 17 51.

**Altzariak.** Zaharbertze behar dute. Oso merke. 615 74 13 47.

**Autorako aukia.** Chicco Syntesis etxekoa. 0+ taldekoa. 13 kilo artekoa. 25 euro. Deitu 672 25 74 24 zenbakira.

**Bidaia-kuma.** Parke moduan ere erabil daitezke. Koltxoia eta gordetzeko poltsa barne. Play etxekoa. 50 euro. Mari. Deitu 672 25 74 24 telefonora.

**Bizikleta.** Beltza. Oso polita. Mountain estilokoa. 120 euro. 679 74 00 61.

**Egongelako mahaia salgai.** Altzairuzko gorputza eta kristalezko gaina du. Neurriak: 37 cm (altuera), 120 cm (luzera) eta 70 cm (zabalera). Deitu 635 72 58 14 zenbakira.

**Eskiak.** Trabesiako eskia salgai. 1,85 m. Silvretta 405 fijaioak. Foka larreak eta hortzak. 200 euro. 658 75 84 58.

**Eskiatzeko botak.** Salomon Performance 6.99 eski alpetarrekoko botak salgai. 38 zenbakira. 699 40 96 97.

**Etxetresna elektrikoak.** Urtebetez erabilitako hozkailua, garbigailua eta gasezko labea daukan pieza bateko sukaldia. Erositako erdi prezioan. Deitu 695 78 48 25 telefonora.

**Ezkontzako soinekoa** salgai. Merke. 635 75 54 30.

**Jaunartzeko soinekoa** salgai. Merke. 635 75 54 30.

**Jostekomakinak.** Jack eta Refrey markako bijosteko makina salgai. Bat automatikoa da eta puntada zuzenak ematen ditu: bestea, erremateak egiteko makina da. Mahai eta guzti saltzen ditu. 677 04 26 73.

**Kanpin denda** salduko nuke. Salewa markako iglu familiarra. Behin erabilia. 150 euro. Deitu 605 72 73 39 zenbakira.

**Landareak.** 5-6 urteko landareak salgai: 'Thuja alicata' pinua eta 'Buxus' (espela) arbustua. 667 91 55 99.

**Landareak.** Hesiak egiteko landareak salgai: thuyas, leylandi, nekosta... Euro batetik aurrera. 686 39 57 59.

**Lehorgailua.** Arropa lehorgailua salgai. Fagor etxekoa. Nahiko berria. 200 euro. 943 77 00 26.

**Marinel jantzia** salgai. 11-12 neurrikoa. Berri-berria. 90 euro. Narruzko oinetakoak barne. 679 74 00 61.

**Motorrerako arropa.** Kaskoa: Arai etxekoa. 5 neurria. Eskularruak: Dainesse etxekoa, M neurria. Jaka: Dainesse, 46 neurria. Prakak: Gore-Texdunak, 52 neurria. Bizkarra babestekoa eta 39 neurriko botak ere Dainesse etxekoa. Oso egoera onean. 616 77 28 06.

**Nintendo DS Lite** zuria saltzen dut. M3 Rumble RAM Pack txipa jolasen kopiak erabiltzeko eta bibrazioarekin. 2 GB MicroSD. Funda eta guzti. Aukeratutako hamar jolas eta Opera Internet Nabigatzailearekin saltzen da. 220 euro. *radikals-hop@gmail.com*. 686 62 66 24.

**Ordenagailu jokoak.** Jatorrizkoak eta dibertigarriak. "Los Sims, magia potagia", "Los Sims de vacaciones", "Cesar's trivial" eta "Battle chefs". Bakotzak 15 euro eta denak hartuz gero 40 euro. 943 53 27 60.

**PSPrako jokoak.** Bi joko. Oso interesgarriak. "Yoshi's Super Marioen zaldi berdea" eta "Insected". Bakotzak 15 euro eta biak erosita 22 euro. Deitu 679 74 00 61 zenbakira.

**Trona.** Mahairako aukia. Jane etxekoa. Ipini eta kentzeko erraza. 15 euro. 672 25 74 24.

**Umearendako** kuma, ohe bikotizatza eta umeak eramateko motxila salgai. 688 80 13 38.

**Umeendako aukia.** Kapazo eta kapotarekin. Bebecar etxekoa. 2001eko. 100 euro. Deitu 672 25 74 24 telefonora.

**Umeendako karroa.** Silver-cross etxekoa. Urdina. Oso egoera onean. 300 euro. Deitu 615 74 13 47 telefonora.

## 802. EROSI

**Erremolkea** erosiko nuke. Neurrria: bi metrotik aurrera. Deitu 651 70 79 96 telefonora.

**Nintendo DSrako kargadore** erosiko genuke. Deitu 605 72 72 39 telefonora.

## 803. EMAN

**Simaurra.** Untxi-simaurra ematen dut opari. Deitu 608 40 42 61 zenbakira.

## 806. GALDU

**Aretxabaleta.** Betaurrekoak galdutuen Beroa okindegiaren. Armani etxekoa. Funda gorriarekin. 943 79 16 24.

**Aretxabaleta.** Urtarrilaren 26an, astelehenean, Canon markako kamera digitala galdutuen Zariaiako apartakalean. Mikel. 605 73 14 33.

**Aretxabaleta.** Urtarrilaren 30ean (egubakoitza) PSP bat galdutuen Durana Kalean, arratsaldean. Funda beltz baten zegoen. Norbait aurkitu badu eskertuko nioke bueltatzen badit. Deitu 699 23 73 72 edo 635 20 78 98 telefono zenbakietara.

**Arrasate.** Urtarrilean urrezko eskumuturreko galdutuen. 652 70 23 50.

**Oñati.** Plaza aldameneko apartakalean zorro bat galdutuen otsailaren 6an




# Baita zu ere.

## Zu ere GOIENKARIA irakurtzen ari zara.

Zuk eta beste 39.000 lagunek baino gehiagok irakurtzen dute astero, CIEsek emandako datu berrien arabera. Eskerrik asko, irakurle guztioi.

- > GOIENKARIA da Debagoiengan gehien irakurtzen den hedabidea.
- > Debagoiendarren %63k astero irakurtzen dute GOIENKARIA.

# Goienkaria





Iñigo Ugarte &gt; Musikaria

# "Bandako diziplinarekin eta talde bateko zuzenekoarekin gozatzen dut"

Iñigo Ugarte oñatiarrari asko gustatzen zaio musika munda; Debagoieneko musika "momentu onean" ikusten duela adierazi digu, baina "laguntza gehiago" behar direla. Bandako kontzertu batean edo musika taldek baten aritu, bietan gozatzen duela adierazi du. Etorkezunari begira, Malenkonia taldearekin aterako duen diskoan dabil buru belarri lanean.

JASONE ZABALA &gt; OÑATI

Ugartek txikitatik bizi izan du musika giroa etxean. Aitak, anaiak eta berak Oñatiko Udal Musika Bandan jotzen dute. Iñigo Ugartek tronpetta jotzen du, baina beste talde batzuekin kolaborazio lanak ere egiten ditu. Saskibaloian aritutakoa da, baina bat aukeratu behar eta musikarekin gelditu zen.

## Zein egoeratan dago musika Debagoienean?

Momentu onean ikusten dut, talde berriak irteten ari dira eta lehenagotik zeudenak, berriz, lanak kaleratzen eta kontzertuak ematen ari dira. Pozgarria da 14-15 urte dituztenak gitarra bizkarrean dutela edota musika taldeen kamisetekin ikustea, zaletasuna badagoela esan nahi du, baina laguntzak behar dira.

## Zer nahiago, bandako kontzertu batean tronpetta jotzea ala musika talde batean aritzea?

Egia esan, bi erataria gozatzen dut: bandan dagoen ordena eta diziplinarekin, gauza bakoitza bere tokian dagoela ikusita, eta baita musika talde bateko zuzeneko baten naturaltasun edo inprobisaziorako aukerarekin, baina egia esan behar badut, azkenaldian bigarren hori igaritzen dut faltan.

## Jakin dut saskibaloia jokalaria txarra ez zinela...

Saskibaloian ere urtetxo batzuk pasa nituen. Behin, futboleko aldizkari bat errotera joan nintzen, eta, agortuta zegoenez, azalean Jordan agertzen zen saskibaloiko bat erosi nuen; horrela, poliki-poliki zaletzen joan nintzen eta jokatzeko hasi nintzen. Horrek ere jende asko ezagutzeko aukera eman dit. Baina musika taldeekin hasi nintzenez ezin izan nituen biak aurrera eramane, eta utzi egin nuen. Orain, joaten naiz partiduren bat edo beste ikustera.

## Teknologia berriek ere harpatu egin zaituzte. Ahaztu egin ditugu kartazal, boligrafo eta papera?

Zaila da teknologia berriek ematen dizkiguten abantailei uko egitea. Egia da karta edo postal bat baino hotzagoa dela, baina eraginkorragoa dela esango nuke. Gainera, arrastoa galduta edota aspalditik ikusi gabe neukan jendearekin kontaktatzeko balio izan dit, eta baita egunerokotasunean mezuak bidali edo lagunekin hitz egiteko ere.



JASONE ZABALA

## PERTSONALA

**Herria:** Oñati. **Adina:** 23 urte. **Ikasketak:** Mantentze eta muntaia heziketa zikloa. **Zer gorrotatzen duzu?** Handikeria. **Nora egingo zenuke bidaia bat?** Japoniara. **Zaletasunak?** Musika, saskibaloia... **Irakurritako azken liburua?** *El hombre duplicado*, Jose Sara-

mago. **Tronpetta zein talderekin joko zenuke?** Saint Germain taldearekin. **Musika talde bat?** The Beatles. **Maniarik baduzu?** Kontzertuetan, poltsikotan autoko giltza bakarrik gordetzea. **Film bat?** *Trainspotting*. **Bizi izateko toki bat?** Oñati.

**Zure ustez, abestiak nola interpretatzen dira hobeto, norbera maiteminduta dagoenean edo bihotza mila zatitan apurtu diotenean?**

Abestiaren arabera ikusi beharko litzateke, desamodio abestiak momentu txarrak pasatzen ari direnei, maiteminduta daudenei baino errazago iristen zaizkie; askotan, bigarren hauek topikoetan erortzen direlakoan nago.

## Aurten urrun ospatu duzu San Valentin eguna...

Milanera joan nintzen neskalaguna bisitatzera, baina kasualitate hutsa izan da San Valentin eguna Milanen pasa izana, ez dut egun hori ospatzeko ohitura; baina Milan hiriburua izanik, ikusi dut nolako eragina duen jendearengan eta zenbat diru mugitzen den egun horretarako ateratzen diren produktu guztiekin.

## Instrumentu asko jotzen dituzu; zein jotzen duzu gusturen? Zergatik?

Orain tronpetta, gitarra eta pianoarekin ari naiz. Gitarrarekin gero eta gusturago sentitzen naizen arren, zalantzarik gabe tronpetta aukeratuko nuke.

Urte asko daramatzat eta segurtasuna lortu dut instrumentu horrekin. Pianoarekin urte erdi daramat, baina hiruretatik instrumentu osoena iruditzen zait. Saxofoi zahar bat ere badago etxean; bere garaian hasi nintzen proba egiten, baina ganorra handi barik. Agian, hurrengo saxofoiarekin hasiko naiz.

## Familian ere ez zarete musikari gutxi, ezta?

Musikarena familiatik dator, bai, aita ikusten genuen bandan saxofoia jotzen eta musikaren mundua oso hurbiletik bizi izan dugu etxean anaiak eta biok. Horrela, gu ere ikasten hasi ginen (nik tronpetta eta anaiak tronboia) eta orain hirurok jotzen dugu bandan. Gezurra dirudien arren, ez dugu inoiz hirurok batera etxean abestirik jo!

## Etorkezunerako zeintzuk dira dituzun asmoak?

Laster, Malenkoniaren diskoa kalean izango da, azken ukituak falta zaizkigu; beraz, kontzertuak emateari ekingo diogu hurrengo hilabeteetan. Gainontzean musikarekin gozatzen jarraituko dugu ahal den moduan.





Julen Iriondok eta Goiatz Aranak zuzenduko dute saioa.

GOIENKARIA

# Hauteskundeak Goiena Telebistan domekan, 19:45ean

Alderdi politikotako ordezkarien iritziak eta iritzi emaileak hauteskunde egunean

**GOIENKARIA > BERGARA**  
Domekan, martxoaren 1ean, egingo dira Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak, eta egun horretan ere, Goiena Telebistak informazio guztia helaraziko dizue hauteskundearen harira egingo duten telebista saio bereziaren bitartez. Saio hori domekan

19:45ean hasiko da eta Julen Iriondoren eta Goiatz Aranaren arduraz izango da hori zuzentzea. Hauteskundearen gaineko saio berezi horretan, Elena Laka abokatua eta Mikel Lezamiz soziologoa egongo dira Goiena Telebistako platonan, eta alderdi politikotako ordezkarien iritziak jasoko dituzte, telefono konexio bidez eta baita zuzenean ere. Hori guztia eta hauteskundeekin lotutako analisi gehiago GOITBn, domekan.

**GOITB, 'Hauteskundeak'**  
> Domeka, 19:45

## telebegi

Edorta Arana  
> 'edorta.arana@ehu.es'

### Dekoratu birtuala

**K**osta izan bada hauteskunde kanpaina irenstea, kontuan hartu astunena orain hasten dela. Boto kontaketa amaitu eta hauteskunde-gauaren ostean datoz alderdien arteko negoziazio luzeak, Legebiltzarra eta, bereziki, Jaurlaritza osatu artekoak.

Ordurako ahaztuta edukiko ditugu alderdi politikoen leloak eta hautagaien gutunak, euriak botako ditu kartelak eta kanpainako mezuak "doaneko iragarkiak" izatetik albisteak izatera pasako dira.

Telebistan asko erabiltzen diren dekoratu eta grafismo birtualetan modura, koalizio posibleak agertu eta desagertuko dira. Eta guk, telebistara begira, truke-jokoan ezer gutxi egiteko. Emaitzak edozein izanik ere, hurrengo hauteskundeak oso epe laburrean etorriko direla jakitun. Behin eta berriro errepikatzen duten "programaren" sindrometik askatu gura sumatzen dut.

## Antzerkia eta kontzertuak

**UBANE MADERA > ARRASATE**  
Martxoaren 8aren harira Amaia antzokian izango den *Lilas* umorezko antzezlanerako sarrerak oparitu dituzte irrastian datorren astean. Bestalde, 3.600ko kontzertu bikoitzetako sarrerak ere zozkatuko dituzte. Martxoaren 6an Discipulos de Dionisos eta Motociclon taldeek jardungo dute. Eta martxoaren 7an, Oñatiko Sharon Stoner eta Argentinako Tauna taldeen txanda izango da.

**Arrasate Irratia, 'Igo Autobusera'**  
> Egubakoitza, (martxoak 6), 11:30etik 12:00etara.



ARGAZKILARIA

### Antzuolako iturriak ezagutuko ditugu Julen Iriondorekin

Antzuolako iturriak izango dira protagonista datorren eguazteneko 'Erreportaje' saioan; Jose Mari Iturbe izango du horretan lagun Iriondok. Biek ala biek, Antzuolako parajeak zeharkatuko dituzte iturrien kokapena edota berezitasunak zuei erakusteko. Garai bateko ubideak ere ikusi ahalko dituzue.

**GOITB, 'Erreportajea'**  
> Eguaztena 22:15ean.

## arrasate irratia

FM 107.7

**Zapatua**  
10:00 Asteko gainbegiratu.

**Domeka**  
10:00 Asteko gainbegiratu.

**Astelehenetik egubakoitzera**  
10:00-12:00 Igo Autobusera!  
Albistegia  
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)  
Astelehenetan Kirolak  
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)  
Zaharrak Berri (pertsona nagusiendako)  
Udal Gazte Bulegoa  
Sexologia Zerbitzua  
Astearren errepasoa (Goienkariarekin)  
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak  
Zozketak (egubakoitzean)  
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (irratia@goiena.com edo goiena.net atarian, irratiko bloga)  
11:55 Arrasateko albisteak, labur.  
12:05 Euskadi Irratiko albistegia  
12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak  
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
14:00 Igo Autobusera! (errep.)  
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.

## astea GOITBn

Astelehena, 2	Martitzena, 3	Eguaztena, 4	Eguena, 5	Egubakoitza, 6	Zapatua, 7	Domeka, 8
13:15 Marrazki bizidunak.	08:00 Marrazki bizidunak.	08:00 Trikitraka trikiton.	13:15 Marrazki bizidunak	13:15 Marrazki bizidunak	13:15 Marrazki bizidunak	13:15 Marrazki bizidunak
13:45 Ur eta lur.	10:30 Trikitraka trikiton.	09:00 Marrazki bizidunak.	13:45 Erlo klip.	13:45 Ikusten: Lamien artean.	13:45 Ikusmira.	13:45 Euskal herria lau haizetara.
14:15 Eltze beroa.	11:30 Golb tb.	11:30 28 klip.	14:15 Eltze beroa.	14:15 Eltze beroa: Cous cous.	14:15 Gure saltsan	14:15 Eltze beroa: Limoi tarta.
14:45 Berriak.	12:00 Euskal herria lau haizetara.	12:00 Erloklip.	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.	14:15 Eltze beroa: Limoi tarta.
15:15 Berbaire.	12:30 Ikusmira.	12:30 Ikuskizuna.	15:15 Arte irekia: Eusebio Gomez.	15:10 Harmailatik.	15:10 Ilunpean.	14:45 Berriak.
16:15 Ikusten.	13:00 Eltze beroa.	13:00 Erreportajea.	15:45 Erreportajea.	15:50 Solaskide.	15:50 Golb tb.	15:15 Ikusmira.
16:45 Berriak.	13:30 Trikitraka trikiton.	13:45 Solaskide.	16:15 28 klip.	16:20 Erloklip.	16:20 28 Klip.	15:45 Ikuskizuna.
17:15 Marrazki bizidunak.	14:30 Marrazki bizidunak.	14:15 Eltze beroa.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak.	16:15 Zaharrak berri.
18:00 Ilunpean.	15:30 Erreportajea.	15:15 Gure saltsan.	17:15 Marrazki bizidunak.	17:10 Marrazki bizidunak.	17:15 Marrazki bizidunak.	16:45 Berriak.
18:45 Berriak.	18:00 Erreportajea.	15:45 Marrazki bizidunak.	17:45 Wasemak	17:35 Erreportajea.	18:15 Ur eta lur.	17:15 Marrazki bizidunak.
19:15 Marrazki bizidunak.	18:30 Solaskide.	18:15 Trikitraka trikiton.	18:15 Musikantoi	18:05 Harmailatik.	18:45 Berriak.	18:00 Erreportajea.
19:45 Goiena Magazinea.	19:00 Erreportajea.	19:15 Erreportajea.	18:45 Berriak.	18:45 Berriak.	19:15 Marrazki bizidunak.	18:45 Berriak.
20:45 Gure saltsan.	19:30 Berbaire.	19:45 Solaskide.	19:15 Marrazki bizidunak.	19:15 Goiena Magazinea.	19:45 Goiena Magazinea.	19:15 Marrazki bizidunak.
21:15 Goiena Magazinea.	20:30 Golb tb.	20:15 wasemak.	19:45 Goiena Magazinea.	20:45 Zaharrak berri.	20:45 Zaharrak berri.	19:45 Goiena Magazinea.
22:15 Solaskide.	21:00 Ilunpean.	21:15 Euskal herria lau haizetara.	20:45 Golb tb.	21:15 Goiena Magazinea.	21:15 Goiena Magazinea.	20:45 Musikantoi.
22:45 Wasemak	21:30 Ilunpean.	21:45 Berbaire.	21:15 Goiena Magazinea.	22:15 Ilunpean: Joxe Berastegi	22:15 Erreportajea: Arantzazuko santutegia	21:15 Goiena Magazinea.
13:45 Goiena Magazinea.	22:15 Solaskide.	22:45 Golb tb.	22:15 Harmailatik.	23:00 Mugaz kanpo: Etiopia.	22:45 Euskal herria lau haizetara: Iruña	22:15 Berbaire.
00:45 Emisio amaiera.	23:30 Wasemak.	23:15 Ilunpean.	23:00 Erreportajea.	23:30 Goiena Magazinea.	23:15 Goiena Magazinea.	23:15 Erreportajea:
	00:30 28 klip.	00:00 Itsasora begira.	23:30 Goiena Magazinea.	00:30 Emisio amaiera.	00:15 Emisio amaiera.	23:45 Goiena Magazinea.
	01:00 Emisio amaiera.	00:30 Emisio amaiera.	00:30 Emisio amaiera.			00:45 Emisio amaiera.



## herritarrek galdezka

ESTALDURA ARAZORIK EGONGO DA LTD DELAKOA IPINI ETA GERO? Urte amaieran izango den **itzalaldi analogikoa** dela eta (abenduaren 31n Aretxabaleta, Bergara, Arrasate, Elgeta, Eskoriatza, Gatzaga, Oñati, Antzuola eta Aramaion izango da), herritar batek jakin nahi du ordurako Lurreko Telebista Digitaliko (LTD) estaldura izango duten. Zer egin behar dute?

Arrasateko Milar-Elkoro etxetresna elektriko dendako Jesus Elkoro-rekin jarri gara harremanetan, eta hark adierazi digu hasiera baten estaldura Debagoieneko herri guztiek izan beharko luketela; baina baita esan digu oraindik Oñatin, Antzuolan eta Aramaion ez daukela errepikagailurik martxan. Esan digu oraindik badaudela seinalea gaizki heltzen den gune batzuk edo ez dena heltzen, baina hori konponduta geldituko dela; hala eta guztiz ere, Jesus Elkoro "komenigarri" ikusten du etxebizitzetako teilatuetan eta etxeetan egin beharreko egokitzapenak ez uzteko azken momentura arte.

Amaitzeko, adierazi digu gai horren harira jendearen urduritasuna sumatzen duen arren, poliki-poliki egokitzapenak egiten doazela hainbat etxebizitzatan.

ETXETRESNA ELEKTRIKOAK NORA BOTA DAITEZKE?

**Bergarar batek posta elektronikoz ondorengo galdera bidali digu: "Nora bota behar dira etxetresna elektriko txikiak? Adibidez, iratzargailu bat edo irrati txiki bat?". Horrekin batera, jakin nahi du ea traste horiek bota aurretik nonbaitera deitu behar den esanez tresna hori bota nahi dela, edo zuzenean eraman daitezkeen dagokion tokira.**



Datorren abenduaren 31tik aurrera LTD izatea beharrezkoa izango da.

GOIENKARIA

Mankomunitatera jo dugu herritarren galderaren erantzunaren bila. Bertako arduradunek adierazi digute hainbat aukera daudela traste txikiak eta handiak ateratzeko: "Herri guztietan astero ematen dugu zerbitzua eta alde zurretik 943 71 19 38 telefonoan eman behar da abisua: trasteak zabor edukiontzien edo z/b

(lurreko puntua) ondoan utzi behar dira. Hain zuzen ere, esan digute Arrasaten eta Bergaran martitzenean jasotzen direla trasteak eta gainontzeko herrietan eguenetan. Jaieguna izanez gero, jasotzeko eguna hurrengo egunera pasatzen dela adierazi digute eta jakinarazi dute zerbitzua urte guztian ematen dela. Garbiguneei dagokienez, jakinarazi dute Arrasate, Bergara eta Oñatin daudela, eta ondorengo dela ordutegia: astelehenean egubakoitzera 09:00etatik 13:30era eta 15:00etatik 19:00etara; zapatutan 09:00etatik 13:30era.

Mankomunitatetik adierazi digute badagoela trasteak eramateko beste aukera bat: "Puntu Berde Mugikorreko furgonetara eraman dezake nahi duenak; zerbitzu hori hamabost egunean behin ematen dugu herri guztietan, eta merkatua egiten den lekuaren ondoan egoten da furgoneta; baina bertara traste txikiak bakarrik eraman daitezke", adierazi digute arduradunek.

**Galdera egiteko:**

Zerbaitek arduratzen bazaitu eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, egiguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagoionekin.

• Telefonoz: 943 25 05 05

• Faxez: 943 25 05 12

• Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.

• Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

## bono fotoa



**1928an auzo honek bat egin zuen Bergararekin. Zein da auzoaren izena eta ze herriren menpe egon zen ordura arte?**

Argazkia eta galdera > Miguel Angel Elkorobereibar

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

Oñatiko Naiara Urizar. Zorionak!  
Erantzun zuzena: Araotzen.



Garmendia Ardoek emandako  
**Ardo botila packa\***


zozketatuko du GOIENKARIAK asmatzaileon artean!

\* Larchago iskillarapeko ekologikoa 2008. / Larchago krianza 2006. / Larchagoko Izarbe bereziki aukeratutako erreserba 2001.

ERANTZUNA .....  
IZEN-DEITURAK .....  
TELEFONOA.....


Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO Goienako edozein egoitzara

## eguraldia

**DEBAGOIENEAN**

**Zapatua, 28**

Bihar eguzkiarekin gozatzeko aukera izango dugu. Goizean zerua urdin egongo da, baina arratsaldean hodeiak hasiko dira ugaritzen.



**Domeka, 1**

Domekan, temperaturak behera egingo du nabarmen eta euria egingo du. Zerua hodeitsu egongo da egun osoan.

**EUSKAL HERRIAN**

Aste bukaera eguzkitsua izango dugu, baina domeka arratsaldean hodeiak ugaritu egingo dira eta euria egingo du eta temperaturak behera egingo du.

**TENPERATURAK**

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

MINIMOA	0°C	Max.	Min.	Euria
Zapatua, 21		°C	°C	l/m <sup>2</sup>
Eguaztena, 18	12	2	-	-
Eguena, 19	13	5	-	-
Egubakoitza, 20	14	2	-	-
Zapatua, 21	13	0	-	-
Domeka, 22	12	4	0,2	-
Astelehena, 23	11	6	-	-
Martitzena, 24	9	7	-	-

**ASTEKO EURIA**  
(l/m<sup>2</sup>)

**0,2 L**

## guardiako farmaziak

**ARRASATE**

Zapatua, 28	Ruiz	Nafarroa Etorb., 1	943 79 14 09
Domeka, 1	Etxeberria	Zarugalde, 42	943 77 16 30
Astelehena, 2	Azkoaga	Ferrerias 1	943 79 15 15
Martitzena, 3	Azkoaga	Iturriotz 17	943 79 79 99
Eguaztena, 4	Corcuera	Maisu Aranbarri	943 79 22 26
Eguena, 5	Irizar	Erguin,11	943 79 12 39
Egubakoitza, 6	Amezua	Santa Marina,32	943 79 09 74

**BERGARA**

Zapatua, 28	Urrutikoetxea	Oxirondo Plaza,4	943 76 11 74
Domeka, 1	Urrutikoetxea	Oxirondo Plaza,4	943 76 11 74
Astelehena, 2	Zabala	Barrenkale 25	943 76 16 87
Martitzena, 3	Guallar	San Antonio, 5	943 76 11 05
Eguaztena, 4	Estella	Matxiategi,5	943 76 19 63
Eguena, 5	Alvarez-Mozos	Iparragirre, 2	943 76 12 15
Egubakoitza, 6	Urrutikoetxea	Oxirondo Plaza,4	943 76 11 74

**OÑATI**

Zapatua, 28	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Domeka, 1	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Astelehena, 2	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Martitzena, 3	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Eguaztena, 4	Anduaga	San Lorenzo 3	943 78 21 16
Eguena, 5	Anduaga	San Lorenzo 3	943 78 21 16
Egubakoitza, 6	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22

**ARETXABALETA**

Zapatua, 28	Agirre (Esko.)	Gorosarri Plaza	943 71 48 28
Zapatua, 28	Anitua (Are.)	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Domeka, 1	Agirre (Esko.)	Gorosarri Plaza	943 71 48 28
Astelehena, 2	Anitua (Are.)	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Martitzena 3	Anitua (Are.)	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Eguaztena, 4	Anitua (Are.)	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Eguena, 5	Anitua (Are.)	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Egubakoitza, 6	Anitua (Are.)	Belorrieta, 1	943 08 11 43

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2009ko egutegia.  
Bidali SMS 7505era "farma" hitzarekin. SMS kostea 0,9 euro + BEZA.



ezkontzak



Bergarako **Miguel Mendibil** eta **Kontxi Kortazar** ezkondu zirela otsailaren 23an bete ziren 46 urte. Ezkontza urteurrenean zorionak, patxo handi bana eta urte askotarako, familiarako guztien partetik.

hildakoak

- Felipe Ullibarriarana Mendoza. Aramaion, otsailaren 19an. 84 urte.
- Petra Bidaurre Garcia. Arrasaten, otsailaren 20an. 86 urte.
- Melchor Murillo Horrillo. Arrasaten, otsailaren 21ean. 46 urte.
- Desiderio Guijarro Castellano. Arrasaten, otsailaren 21ean. 86 urte.
- Cosme Gallastegi Uriarte. Arrasaten, otsailaren 21ean. 91 urte.
- Javier Errasti Jauregi. Arrasaten, otsailaren 22an. 80 urte.
- Purificacion Pinedo Lopez de Audicana. Bergaran, otsailaren 22an. 76 urte.
- Kontxita Zubizarreta San Vicente. Arrasaten, otsailaren 24an. 87 urte.
- Marisol Iturbe Urrutia. Arrasaten, otsailaren 25ean. 86 urte.
- Florencio Castañeira Goñi. Eskoriatzan, otsailaren 25ean. 78 urte.
- Venancio Illaramendi Azkue. Arrasaten, otsailaren 25ean. 77 urte.

OROIGARRIA

Melchor  
Murillo Horrillo

Arrasaten hil zen 2009ko otsailaren 21ean, 46 urte zituela.

*Egunero gure artean izan zaitugu  
Eta utzi diguzun arrastoak  
Gerora ere iraungo du.*



Sanvi Txikiko guraso, ikasle eta irakasleak.  
Arrasaten, 2009ko otsailaren 27an.

OROIGARRIA

Melchor  
Murillo Horrillo

Arrasaten hil zen 2009ko otsailaren 21ean, 46 urte zituela.

*Zenbat une gozo  
Gure-Lekun igarotakoak.  
Zure oroimena  
beti izango da  
gure artean.  
Gero arte, Melchor.*



Gureko lagunak.  
Arrasaten, 2009ko otsailaren 27an.

OROIGARRIA

Martin  
Laskurain Aiastui

Bergaran hil zen 2009ko otsailaren 18an, 55 urte zituela.

*Betiko izango zaitugu gogoan*



Zure lagunak.  
Bergaran, 2009ko otsailaren 27an.

ESKER ONA

Martin  
Laskurain Aiastui

Bergaran hil zen 2009ko otsailaren 18an, 55 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei  
eta samin-agurrak bidali  
dizkiguzuenoi, eskerrik asko  
sendikoen izenean.



Bergaran, 2009ko otsailaren 27an.

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu,  
deitu telefono honetara  
eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkartza batera:

**Arrasate**

Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 25 05 05.  
Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 25 05 05.

**Bergara**

Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 05.

**Oñati**

Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

**Aretxabaleta**

Goiena: Durana 11. 943 79 86 21.

**Aramaio**

Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22

**Elgeta**

Ugari janaridenda: Salbador 26. 943 76 81 90.

**Antzuola:**

Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

**Eskelaren prezioa: 110 euro.**

Prezio berezia:  
egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn,  
bietan, argitaratuz gero, **140** euro.

**Goienkaria: astero, 39.000 irakurle.**



ESKER ONA

Francisco Javier Berezibar Agirre

"Txipi"



Arrasaten hil zen 2009ko otsailaren 6an, 44 urte zituela.

Haren ama eta anaien izenean eskerrik asko  
San Andresko koadrilakoei.



Arrasaten, 2009ko otsailaren 27an.

ESKER ONA

Jose  
Arejola-Leiba Olabarria

Bergaran hil zen 2009ko otsailaren 18an, 86 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei  
eta samin-agurrak bidali  
dizkiguzuenoi, eskerrik asko  
emazte eta seme-alaben izenean.



Bergaran, 2009ko otsailaren 27an.

ESKER ONA

Migel  
Oianguren Uribe-Etxebarria

Arrasaten hil zen 2009ko otsailaren 7an, 81 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei  
eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi,  
eskerrik asko sendikoen izenean.

Haren arimaren aldeko meza domekan, martxoaren  
1ean, 11:00etan Bolibar auzoko San Migel parrokian.



Eskoriatzan, 2009ko otsailaren 27an.

URTEURRENA

Sor Maria  
del Coro Alzelai Markuleta

Lehen urteurreneko meza,  
domekan, martxoaren 1ean,  
12:30ean,  
Oñatiko Bidaurreta elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,  
aldeaz aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

Babeslea:

**Euskalduna**

Hileta Zerbitzuak

Beilatokia  
Etengabeko zerbitzua  
Lore koroak  
Eskelak  
Tramite guztien bideratzea



Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99  
e-posta: euskalduna@harrespil.net



# Otsailak 27-Martxoak 6

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.  
Posta elektronikoa: [kultura@goiena.com](mailto:kultura@goiena.com)  
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 13

## Musika



ARRASATE

### > Gatibuk 'Lainoguztien gainetik...' azken diskoa aurkeztuko du gaur Arrasaten

Alex Sardui kantariarekin batera, Haimar Arejitak (gitarra), Mikel Caballerok (baxua) eta Gaizka Salazarrek (bateria) bereziki *Laino guztien gainetik, sasi guztien azpitik* diskoak kantuak joko dituzte gaur 3.60 aretoan, 22:30ean hasita.

## Musika



BERGARA

### > Delorean zarauztarrak gaur gauean Bergarako Jam aretoan

Deloreanek lau abestiz osatutako maxia argitaratuko dute laster: *AyrTon Senna*. Bi urte pasatxo igaro dira Bergaran azken aldiz jo zutenetik. The Requesters eta K\*\*0 taldeak izango dira haiekin gaur. Sarrerak leihatilan, 13 euro.

## Dantza



ARRASATE

### > Lur Sagar dantza emanaldia izango da bihar, zapatua, Arrasaten

Lur Sagar dantza emanaldia izango da bihar, zapatua, Amaia antzokian, 19:30ean. Hiru koreografok hartzen dute parte, eta nabarmentzen dira dantzarien bertute fisikoak eta interpretatiboak. Sarrerak Servikutxan (943 00 12 00) salgai.

ESKORIATZA

### > Emakumei zuzendutako kafetertulia

*Crisis y mujer. ¿Nos afecta de manera diferente?* Loredi Salegik zuzendutako saioa.

Eguenean, hilak 5, Ibarraundi museoan, 18:00etan.

ESKORIATZA

### > 'Bizkarrezurra eta Nerbio Sistema' hitzaldia

Andrea Larrañaga kiropaktikaren eskutik. Antolatzaileak: Amuska Emakume Elkarte eta Bizikasi.

Martxoaren 24an, 18:30etik 19:30era.

## Proiektzioa

BERGARA

### > 'Ni basatia naiz' dokumentala domekan

Udaleko Ingurumen sailak antolatutako emanaldia.

Domekan, martxoaren 1ean, Zabalotegin, 18:00etan.

## Musika

BERGARA

### > Niko Etxart eta Zuberoako kantariak

Iparaldeko kantuak protagonista biharko emanaldian.

Gaur, egubakoitza, Zabalotegin, 22:30ean. Sarrera: 3 euro.

ESKORIATZA

### > The Wet Band mutrikuarrak, hurrengo egubakoitzean

Danbaka lehiaketako irabazleak izan dira mutrikuarrak.

Egubakoitzean, hilaren 13an, Inkernu tabernan, 22:30ean.

## Antzerkia

BERGARA

### > Haurrendako antzerki-ipuina emanaldia zapatuan

*1.728 animalia kontu*, Goringo taldearen eskutik.

Bihar, zapatua, Zabalotegin, 16:30ean eta 18:30ean. Sarrera: 3 euro.

BERGARA

### > 'Kanpaiak jo bitartean' datorren egubakoitzean

Helduendako antzerki emanaldia, Korrika Kulturalaren barruan.

Martxoaren 6an, Zabalotegiko aretoan, 22:30ean.

## Ipuinak

ARETXABALETA

### > Ipuinak Oihulari Klown taldearekin

Gaztetxoendako saioa.

Bihar, zapatua, Arkupeko liburutegian, 11:30ean. Sarrera doan.

OÑATI

### > Helduendako ipuinak, Antton Irustaren eskutik

*Lau haizetara kontari, helduei zuzendutako kontaketa.* ikuskizuna eskainiko dute.

Eguenean, martxoak 5, Zabalotegi aretoan, 19:00etan.

## Erakusketak

ARRASATE

### > 'Oteitza, bizirako proiektua' erakusketa

Jorge Oteitza Fundazio Museoak eta Gipuzkoako Diputazioak antolatuta. Idatzizko eta ikus-entzunezko azalpenen eta argazkien bitartez, Orion jaiotako artista handiaren ibilbidea islatzen du, Oteitzaren urratsen norabidea eta jatorria azalduz.

Kulturateko klaustron, domekara arte.

BERGARA

### > 'Birziklatuz sortu' erakusketa ibiltaria

Birbira talde nafarrak birziklatutako hondakinekin erakusketa jarri du kultura etxean, Ingurumen Hilabetearen barruan. Antolatzaileen asmoa da hondakin kontzeptuaren gaineko hausnarketa bideratuz sormena lantzea.

Kultura etxean, martitzenetik egubakoitzera 18:00etatik 21:00etara. Zapatueta, 12:00etatik 14:00etara. Zapatura arte, otsailaren 28ra arte zabalik.

BERGARA

### > 'Nafarroa, euskal estatua' erakusketa

Nabarraldeko antolatutako erakusketa.

Udaletxeko osoko bilkuren aretoan, martxoaren 15era arte. Martitzenetik egubakoitzera: 18:00-20:00. Zapatuak eta domekak: 12:00 - 14:00; 18:00-20:00.

BERGARA

### > Iker Iglesiasen argazkiak Nahikari tabernan

## PROPOSAMENA

BERGARA

### > 'Maisuak' erakusketa Bergaran

Beart-ek antolatuta, Jose Antonio Laskurain (alboko argazkian), Francisco Leturia, Migel Okina eta Ricardo Otaño artista bergarrei eskainitako erakusketa zabalik dago Aroztegi aretoan, datorren martxoaren 8ra arte. Haien ibilbide luzeko lan adierazgarriak jarri dituzte ikusgai Barrenkaleko aretoan; guztira, lau maisuen 49 lan daude zintzilikaturik.

Aroztegi aretoan. Martitzenetik egubakoitzera: 18:00-20:30; zapatueta: 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; domeketan: 12:00-14:00.



ARETXABALETA

### > Dantza libre topaketak hilean behin

Jaiki elkarteak dantza libre topaketak antolatu ditu. Isabel Altzola izango da irakaslea. Saio guztiak hilabetearen behin, eguenean izango dira, 18:00etatik 20:30era.

Martxoaren 12an hurrengo saioa. Izenematea 669 05 80 33 telefonoan edo [berenaia@yahoo.es](mailto:berenaia@yahoo.es) helbidera idatzita.

ARRASATE

### > Makillaje ikastaroa martxoaren 14an

Gemes estetika zentroaren eskutik, aurpegiko azala nola makillatu erakutsiko dute. Antolatzaileak: AED Ekin Emakumeak eta Bizikasi.

Martxoaren 14an, 10:30etik 14:30era. Ekin Emakumeak taldeak antolatuta. Argibideak: 943 79 83 70 edo 651 70 79 36 telefonoetan.



OÑATI

> 'Bularretik mintzora': Juan Kruz Igerabiderekina saioa

Haur literatura eta hizkuntza afektiboaren arteko lotura, Juan Kruz Igerabiderekina.

Martxoaren 4an, 18:30ean, Oñatiko Haur Liburutegian. Guraso, hezitzaile eta interesa duen edozeinendako irekia.

ESKORIATZA

> Masaje bateratua, Jose Luis Armendiarekin

Mendebaldeko masajea (lasaigarria-kiromasajea) eta ekialdekoa (digitopuntura-yoga pasiboa) bateratzea izango du helburu.

Apirilaren 23tik ekainaren 18ra, eguenero, 17:45etik 19:45era kultura etxean. Prezioa: 40 euro. Izena emateko azken eguna: apirilak 8.

BERGARA

> Kultura Zerbitzuak hainbat ikastaro antolatu ditu

Break Dance (apirila, maiatza eta ekaina; egubakoitzetan, 19:00-21:00); Eskulanak eta larrua (apirila, maiatza eta ekaina; eguaztenetan 18:30-20:30); Zeruko izarrak ezagutzen (apirilak 21 eta 28; 19:00-21:00) eta Sendabelarrak (maiatzeko eguenero; 18:30-20:30).

Izena emateko epea martxoaren 28ra arte zabalik dago kultura etxean. Argibide gehiago 943 77 91 59 telefono zenbakian.

ARRASATE

> Sexualitate tailerrak Txatxilipurdirekin

Mirari Arando sexologak koordinatuko ditu tailer hauek eta 12-16 urteko gazteendako izango dira.

Martxoaren 12an San Andreseko gaztetxokoan eta martxoaren 13an Erguineko gaztetxokoan. Argibideak: 943 79 54 46.

ARRASATE

> Biodantza ikastaroak

Rakel Ampudia eta Carlos Orellana dira irakasleak.

Argibideak eta izenematea: [biodanza-vitoria@gmail.com](mailto:biodanza-vitoria@gmail.com) edo 679 495 836.

## Lehiaketak

BERGARA

> Musika moderno lehiaketa

Bergarako Musika Eskolak antolatuta. Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, bi kantu aurkeztu ahal izango ditu. Lehiaketa modalitate bakar batera mugatu dute, musika modernora alegia: pop, rock, blues, soul... Irabazleak 400 euro irabaziko ditu, eta publikoaren saria jasotzen duenak, 200 euro.

Lanak entregatzeko epea martxoaren 16ra arte zabalik. Argibideak: 943 76 57 80.

ARRASATE

> Film labor lehiaketa deitu du Emakume Txokoak

Arrasateko Emakume Txokoak film labor lehiaketa antolatu du. Emakumeengana-ko biolentzia da gaia. Lanak DVD euskarran bakarrik aurkez daitezke.

Lanak entregatzeko epea ekainaren 22ra arte zabalik. Argibideak: 943 79 41 39.



## El curioso caso de Benjamín Button \*\*\*\*\*

Zuzendaria: David Fincher.

Aktoreak: Brad Pitt, Cate Blanchet.

AEB, 2008. 166 minutu.

Oscarretan sari potolirik lortu ez badu ere, F. Scott Fitzgerald idazlearen izen bereko ipuin labor bat abiapuntuzat hartuta, film zoragarria da David Fincherrena.

Zatitan banatutako kontakizuna da, Benjamin Buttonen bizitza bitxiarena, hain zuzen ere. Honetan, istorio pila bat agertzen dira, haren bizitzaren momentu esanguratsuenak, eta zuzendariak denbora hartzen du egoera guztiak zehaztasun osoz azaltzeko; gertatzen dena, sasoi ezberdineko giroa eta sentimenduak.

*El curioso caso de Benjamin Button* filmak kutsu tristetia eta malenkoniatsua du. Bizitzaren iheskortasunaz ohartarazten digu, une tristeak eta pozgarriak tartekatuz. Bizitza momentuz osatuta dago, kontrola ezina da eta horretan datza bere xarma eta alde tristearen ere. Denok egin behar dugun bide bat da, eta bide horretan egoera eta pertsona ugari topatzen ditugun arren, bada baita bakarka egiten dugun bidea.

Ipuin fantastikoa da *El curioso caso de Benjamin Button*. Badakigu kontatzen ari zaiguna ezinezkoa dela, baina, hala ere, Fincherrek istoriora hurbiltzeko duen moduagatik sinesgarria eta zirrargarria egiten zaigu. Zahar itxurako umea da Benjamin Button hasieran, eta denbora aurrera doan neurrian zahartu beharrean gero eta gazteago egiten da. Denok bezala jaio eta hil egingo da, baina beste modu batean. Eta ezaugarri honek markatuko du munduarekin eta pertsonaiekin dituen harremanak. Bere jaiotza, Errusian izango duen amodio iheskorra, filmaren zehar sortzen den amodio istorio hunkigarria, filmaren bukaerako parte... Eszena horiek guztiak momentu magikoak bihurtzen dira eta horrela, fantasia, tristezia eta malenkonia elkartzen dira lan hunkigarria osatzeko.

Antonio Zabala

# Zinema

ARRASATE

AMAI ANTZOKIA

**Siete almas**  
Domeka: 19:30.  
Astelehena: 20:30.

**Lepel**  
Domeka: 17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

**Valkiria**  
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.  
Domeka: 19:30, 22:30.  
Astelehena: 19:30.

**Perez sagutxo 2**  
Zapatua eta domeka: 17:00.

**Caramel**  
Eguena: 20:00.

ARETXABAETA

ARKUPE

**Crepusculo**  
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.

ARAMAIO

KULTURA ETXEA

**Vicky Cristina Barcelona**  
Egubakoitza: 22:15.

EIBAR

UNZAGA

**El curioso caso de Benjamin Button**  
Egubakoitza eta zapatua: 19:00, 22:00.  
Domeka: 17:00, 20:30.  
Astelehena eta martitzena: 19:30.  
Eguaztena, ikuslearen eguna: 19:00, 22:00.

GASTEIZ

GURIDI

**Slumdog millionaire**  
17:30, 20:00, 22:30.

**El curioso caso de Benjamin Button**  
19:00, 22:00 (egubakoitzean); 16:30, 19:30, 22:30 (zapatuan); 17:30, 20:30 (domekan).

**Un chihuahua en Beverly Hills**  
16:30, 18:30 (zapatuan eta domekan).

**La pantera rosa 2**  
18:00, 20:15, 22:30 (egubakoitzean); 16:30, 18:30, 20:30, 22:30 (zapatuan eta domekan).

**En el nombre del rey**  
17:30, 20:00, 22:30.

**Cadillac records**  
17:30, 20:00.

**Frost contra Nixon**  
22:30.

**Mi nombre es Harvey Milk**  
17:30, 20:00, 22:30.

**Bienvenidos al norte**  
22:30 (egubakoitzean); 20:30, 22:30 (zapatuan eta domekan).

Egubakoitzetik domekara.

FLORIDA-GURIDI

**The reader**  
17:30, 20:00, 22:30.

**Che: guerrilla**  
17:30, 20:00, 22:30.

**El luchador**  
18:00, 20:15, 22:30.

**Vals con Bashir**  
17:30, 22:30

**Hoy no se fia, mañana sí**  
20:00.

**La duda**  
20:00, 22:30.

**El zorro ladrón**  
17:30 (euskaraz).

**Julia**  
18:00, 21:00.

**Háblame de la lluvia**  
18:00, 20:15, 22:30.

Egubakoitzetik domekara.

YELMO-GORBEIA

**Slumdog millionaire**  
15:30 (zapatuan eta domekan), 17:40, 19:55, 22:10, 00:25.

**Che: guerrilla**  
16:15 (zapatuan eta domekan), 18:45, 21:30, 00:10.

**Push**  
18:10, 20:20, 22:30, 00:40.

**The reader**  
15:30 (zapatuan eta domekan), 17:45, 20:05, 22:25, 00:45.

**Viernes 13**  
20:30, 22:30, 00:30.

**En el nombre del rey**  
15:35 (zapatuan eta domekan), 17:50, 20:10, 22:30, 00:50.

**La pantera rosa 2**  
16:00 (zapatuan eta domekan), 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

**Valkiria**  
18:15, 20:25, 22:35, 00:45.

**Revolutionary Road**  
22:15, 00:30.

**Siete almas**  
19:00, 21:30, 23:50.

**Guerra de novias**  
16:00 (zapatuan eta domekan), 17:50.

**El curioso caso de Benjamin Button**  
15:30 (zapatuan eta domekan), 18:30, 21:30, 00:20.

**Un chihuahua en Beverly Hills**  
16:15 (zapatuan eta domekan), 18:15, 20:15.

**Mi nombre es Harvey Milk**  
16:30 (zapatuan eta domekan), 19:00, 21:45, 00:15.

**Bienvenidos al norte**  
16:20 (zapatuan eta domekan), 18:20.

**Madagascar 2**  
16:25 (zapatuan eta domekan).

**El linca perdido**  
16:40 (zapatuan eta domekan).

Transporter 3

20:20, 22:20, 00:20.

**El valiente Desperaux**

16:10 (zapatuan eta domekan).

**Bolt**

16:30 (zapatuan eta domekan), 18:30.

**El intercambio**

19:40, 22:15.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.

ÁBACO BOULEVARD

**Slumdog millionaire**

15:45, 18:00, 20:15, 22:30.

**En el nombre del rey**

16:30, 18:30, 22:20..

**Push**

15:50, 18:05, 20:20, 22:40.

**The reader**

17:00, 19:30, 22:20.

**Un chihuahua en Beverly Hills**

16:05, 18:00, 20:00.

**La pantera rosa 2**

16:00, 16:30, 18:00, 18:30, 20:00, 20:30, 22:00, 22:30.

**El curioso caso de Benjamin Button**

15:45, 18:50, 22:00.

**Valkiria**

20:15, 22:40.

**Me ha caído el muerto**

16:00, 18:15, 20:25, 22:40.

**Mal ejemplo**

16:00, 18:10.

**Transporter 3**

16:05, 18:15.

**Che: guerrilla**

16:15, 19:15, 22:15.

**Siete almas**

22:30.

**Viernes 13**

20:25, 22:25.

Egubakoitzetik eguenera.



Siete almas

AEB, 2009. Zuzendaria: Gabriele Muccino. Aktoreak: Will Smith, Rosari Dawson, Woody Harrelson. 118 min.

Ben Thomas IRSko agenteak sekretu handi bat gordetzen du. Berrerospen plan bat jarri behar du mar-txan Thomasek eta, horretarako, zazpi pertsona lagunduko ditu. Plana mar-txan dagoela, ezerk egin du aldarazi. Will Smith (*El principe de Bel Air* telesaila) aktore ezagunaren azken filma.

Eskasa: \* Balekoa: \*\* Ona: \*\*\* Oso ona: \*\*\*\* Bikaina: \*\*\*\*\*

El intercambio \*\*\*\*

AEB, 2008. Zuzendaria: Clint Eastwood. Los Angelesen, 1928an girotutako filma. Langileak nagusi diren auzo baten ezkongabeko ama batek, Christine Collinsek, 9 urteko semea agurtuko du zapatu goiz argitsu baten, lanera joan aurretik... Hortik aurrera erabat aldatuko da Christine Collinsek bizitza... Benetak gertakarietan oinarrituta.

La duda \*\*\*

AEB, 2009. Zuzendaria: John Patrick Shanley. 1964. urtea, New Yorken Bronx auzokan San Nicolas elizan. Flynn apaizak moiek zuzendutako ikastetxearen arau zorrotzak aldatu nahi ditu. Flynnek ikasle beltz batez abusatatu duelakoan, Aloysius moja apaiza kaleratzen ahaleginduko da.

Slumdog millionaire \*\*

Erresuma Batua, 2008. Zuzendaria: Danny Boyle. Zortzi sari jaso ditu azken Oscarretan. Jamal Malik Bombayko nerabe pobrea da. Telebista lehiaketa batean dirutza irabazi ostean, polizia atxilotu egingo du, tranpak egin dituelakoan.

Revolutionary Road \*\*\*\*

AEB, 2008. Zuzendaria: Sam Mendes. 50eko hamarkadan, Frank eta April Wheeler bikoteak amets eta ibaropen ugari dituzte. Bizilagunen aldean desberdinak direla pentsatzen dute, eta inguratzen dituen gizarte konformistatik aldentu nahi dute. Frankek gorrotatzen duen lan baten dabil eta Aprilrek aktore izan nahi du Parisen. Gauzak korapilatzen joango zaizkie.

The reader

AEB, 2009. Zuzendaria: Stephen Daldry. Michael Berg 15 urteko gaztea gaitxo egingo da etxetik eskolarako bidean, eta Hanna Schmitz emakumeak jasoko du. Haien artean pasiozko harreman bat piztuko da, Hanna desagertzen den arte... Nazien eskuetan eroriko da Hanna. Oscar saria Kate Winslet protagonis-tarendako.

Valkiria

AEB-Alemania, 2009. Zuzendaria: Bryan Singer. II. Mundu Gerra, Alemania. 1944an, Claus von Stauffenberg armada naziko koronela Adolf Hitler hiltzeko plan bat aurrera eramaten ahaleginduko da. Thriller historikoa da, Tom Cruise aktore ezaguna filmeko protagonista nagusia dela.

## nire aukera



Diego Ardohain Komertziala eta paddle irakaslea Arrasaten

## Aizkorri gogoko duen argentinarra

Euskaldun argentinarra ala argentinarr euskalduna? Diego Ardohainek (36 urte) zazpi urte daramatza Bergaran. Komertzial lanetan dabil makina-erreminta sektorean eta krisia askotxo nabaritu dutela dio. Kirolzale amorratua, astean bi egunez paddle eskolak ematen ditu Arrasaten, Mojategin. Buenos Aires probintziakoa da, Burzacokoa, eta han udan direnez, Pinamarreko hondartzekin egiten du amets: "Landen estiloko paisaia da, Buenos Aires-tik 300 bat kilometrora; hondartzak zoragarriak dira".

**Nolatan paddle irakasle?** Gaztetxo nintzela hasi nintzen, sasoi hartan Argentinan zaletasun handia zegoelako. Orain, berriz, tenisa jarraitzaile gehiago ditu han... Hemen, berriz, poliki-poliki hazten doan kirola da paddlea. Gogorra den? Tenisa zorrotzagoa dela esango nuke. Oso dibertigarria da paddlea, eta sasoiaren egoteko kirol aproposa.

**Mutilak ala neskek animatzen dira gehiago?** Antzera, edozeinek egiteko moduko kirola da. Beharrezko gaitasunik behar den? Erreflexu onak izatea, agian...

**Asteburuan, zer?** Zapatuan Urbiara joango gara. Ea eguraldiak laguntzen duen; behean salda izango dugu zain... Hilabete bitan mendira joaten ahalegintzen gara lagunak. Bereziki Aizkorri, Anboto eta Txindoki ditut gustuko.

**Kirolaz aparte, aisialdirako beste zaletasunik?** Zinemara joatea; *Revolutionary Road* ikusi nahi dut. Gitarra jotzen ikasten ere banabil...

**Futbolzalea ere bazara, River Plate eta Realeko jarraitzaile. Zeinekin sufritzen duzu gehien?** Orain Realarekin, 2. mailan dagoelako... eta gertuago daukadalako.

Edu Mendibil



# Internet sarera autobusez

**IKASTAROAK** Eskaria egiten duten herrietan barrena bi orduko Internet ikastaroak egiten dituzte

**AUTOBUSA** Euskaltelek ordenagailu eta baliabide guztiekin egoki gertatutako autobusean ematen dituzte eskolak

**HELBURUA** Jende heldua sarean sartzea eta Internet gauza arraroa den ustea burutik kentzea da asmoa

**IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA**  
*Internet zuretzat* izenburupean Eusko Jaurlaritzak bultzatu eta Fondo Formacion Euskadiren laguntzaz, Euskaltelek gertatutako autobus batean Internet sarean murgiltzeko aukera izan dute helduek asteon Bergaran. "Antolatzen ditugu ikastaroak Internet jende helduari iristeko. Hauei zailagoa zaie Internetera iristea eta guk eskura ipintzen diegu. Helburua da saltsa horretan sartzea eta gauza arraro bat den uste hori eurei burutik kentzea. Jende heldua etortzen da batik bat; Eskoriatzan, esaterako, 92 urteko ikasle bat izan genuen. Oso egoki prestatutako autobusa dugu horretarako", esan digu Jon Arruti irakasleak.

**BI ORDU, AUKERAN GUTXI**  
Euskal Herrian barrena herririk herri dabilta eta bi orduko saioak egiten dituzte. Jon Arrutik azaldu digunez, "bi ordu ez dute askorako ematen, eta jendearen mailaren arabera antolatzen dira saioak. Bergarako saioetako bate-

an, esaterako, jendeak jakintza apur bat bazuenez erakutsi diegu Google bilatzailea erabiltzen, mapak eta irudiak bilatzen, posta kontu bat sortzen, eta horretan joan zaizkigu bi ordu".

Saioan parte hartu duten ikasleekin egoteko aukera ere izan dugu. "Helduen Heziketa Eskoletan informatika ikastaroa egin nuen eta orduan ibilitako sei lagun etorri gara. Interneten saltsan ibiltzen naiz noizean behin, argazkiak hartu toki batetik, bestean sartu, ikastaroko lagunei e-posta bidez mezuak bidali...", esan digu Agustin Arbuluk.

Mariaje Orbeak hauxe esan digu: "Lehenengo, errepasoa egin dugu aurrez ikasitakoa gogoratu, eta gero, Interneten ibiltzen ikasi dugu, eta gustura. Lanean, barruko kontuetarako erabiltzen nuen ordenagailua, baina bestela, nahiko kontu berria da niretzat Internetekoa; hala ere, etxean ibiltzen naiz ordenagailuan".

Ikastaro amaieran operari eta guzti eta Internet sareak apur bat harrapatuta joan ziren denak.



ORDENAGAILUAK Puntako ekipamenduz gertatuta dago autobusa, eta bakoitzak ordenagailu batekin jardun du.

I.A.

## ahobero

**"Liverpool blai eginda utziko dugu; hemen 3-Oko emaitza lortuko dugu"**

Vicente Boluda >  
Real Madril taldeko presidentea

Partidua jokatu aurretik amets egitea erraza da, baina amestutakoa zelairatzea beste dagokienez... Blai, malkotan blai utzi zituen Liverpoolen Real Madril taldekoak, malkotan edo ikaratuta bai, behintzat. Oilo busti moduan esan bai, baina egin?

## iturri onetik

**Martxoaren 15ean zabalik Antzuolako Torresoroa eraikinean dagoen auditoriuma**

Lanak atzeratu ostean, dagoeneko azken ukituak ematen dihardute Antzuolako auditoriumari. Hortaz, martxoaren 15ean, domekan, Torresoroa eraikineko auditoriumeko ateak lehen aldiz zabalduko dituzte. Lehen ekitaldia herriko txistulari taldeak urtero egin ohi duen kontzertua izango da. Hortaz, kontzertua entzun eta auditorium berria ezagutu nahi dutenek 12:00etan dute hitzordua.

## piperrautsa

Mikel Irizar > [www.goiena.net/blogak/piperrautsa](http://www.goiena.net/blogak/piperrautsa)

**Botoa emango dut**

**E**z nau prezio kanpainak animatu. Kasu egin diodan apurretan ohiko doinua entzun dut, gehienetan zabarra, edukiz pobrea eta estilo gutxikoa. Iduri luke esku bertsuak eginak direla kanpaina hau eta telebistako garbigarrien iragarki kutreak.

Eta, hala ere, botoa emango dut. Gero eta fede txikiagoa dut nire botoaren eraginean, hogeita hamar urteko historia luzean ez dirudi gauzak hohera egin dezaten lagundu duenik.

Baina ez dut abdikatu nahi hiritartasunetik, eta ez daukat nahikoa indar egoera irauliko lukeen abstentzio eragile bat bultzatzeko. Botoa emango dut, fedez apal eta gogo urriz, konpromisoa sentitzen dudalako nire tribuarekin eta bere bizi iraupen zailarekin. Abdikazioa duelako euskararen tribuak etsaieran etsaiena.

## ai, ene!



**Familia ugariendako ume-karroa**

Bikiak, hirukiak eta gurean oso ohikoa ez bada ere baliteke batera ume gehiago izatea. Hortxe, halako familiendako irtenbidea.

[www.nopuedocreer.com](http://www.nopuedocreer.com)

**IBAI-GANE**  
*janari denda*



**ORDUTEGIA:**  
Astelehenetik ostiralera: 16:30-20:00  
Larunbatetan: 10:00-13:30

**Aurrez prestatutako janari ontziratutako zure eskura!**

**Ur-bainu edo mikrouhin-labeen azkar prestatzen diren jaki goxuak!**

**Aurrez prestatutako jakiak enkarguz**